

MEMORIA OROKORRA



2016ko abenduak 28

AURKIBIDEA

SARRERA..... 4

1. ETXEBIZITZA eta ENPLEGUA..... 4

1.1 EMANTZIPA...ZER?	5
1.2. GAZTEAK ETA ENPLEGUA LANTALDEA	7
1.3. EMAKUME GAZTEAK ETA LAN MUNDUA	11
1.4. SOSGazteak II. ITZULTZE PROGRAMAK ETA ESKUBIDEEN GALERA	15
1.5. GAZTELABEL: GAZTERIA POLITIKA PUBLIKOEN KALITATE ZIGILUA.....	18
1.6. BEKA ETA PRAKTIKEN IKERKETA KUANTITATIBOA	22
1.7. POSIZIONAMENDU PUBLIKOAK: LAN ISTRIPUAK	24
1.8. EGUNEROKO LANA.....	25

2. HEZKUNTZA 27

2.1.ASTIALDI FOROEN KOORDINAZIOA.....	27
2.2. ASTIALDIKO IKASTAROAK	31
2.3. ASTIALDIKO UDAKO EKINTZAK	33
2.4. ASTIALDI FOROKO WEBGUNE (WWW.ASTIALDIFOROA.ORG)	34
2.5. ATERPETXEEN ATARIA: ATERGUNE.....	37
2.6. ASTIALDIKO ESKOLEN ETORKIZUNA.....	38
2.7. HEZKUNTZA FOROA.....	39
2.8. EUSKARAZ IKASTEKO ESKUBIDEEN MANIFESTUA.....	40
2.9. GARRAIO GASTUEN ANALISIA.....	41
2.10. LAN-AHOLKULARITZA ETA FORMAKUNTZA.....	43
2.11. EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA	44
2.12. EGUNEROKOTASUNA.....	45

3. PARTE-HARTZEA.....45

3. 1. EUSKAL GAZTEEN BEHATOKIAREKIN ELKARLANA	45
3. 2. GAZTE ETA GAZTEEN ELKARTEEN PARTAIDETZAREN EZAGUTZAN SAKONDU: IKERKETA KUALITATIBOA.....	47

3.3. GAZTERPE: LANTALDEA.....	49
3.4. GAZTEOLINPIADAK.....	50
3.5. GAZTEOK ETA PARTE-HARTZE POLITIKOA.....	52
3.6. GAZTE ERAGILEEKIN ZUZENEKO HARREMANA.....	54
3.7. ERAKUNDE PUBLIKOEKIN ELKARLANA.....	60
3.8. EGUNEROKOTASUNA.....	62
4. BAKEA.....	64
4.1. SETON HALL UNIBERTSITATEKO IKASLEEKIN ESPERIENTZIA-TRUKEA.....	64
4.2. <i>BAKEHIZKETAK</i> TOPAKETA: DOKUMENTALA ETA DINAMIKA PARTE-HARTZAILEA.....	65
4.3. PROTOKOLOA.....	67
4.4. EGK: 30 URTE BAKEAREN ALDE! JARDUNALDIA.....	69
4.5. ESTATU MAILAKO UNIBERTSITATEETAKO GAZTEEKIN BAKEGINTZAZ HAUSNARTZEKO TOPAKETA.....	70
4.6. GAZTE BAKEGINTZAREN DOKUMENTALA.....	72
4.7. TXOSTENA GIDA LIBURUA + PROPOSAMENAK.....	73
4.8. BAKE EKIMENAK EAEko UDALERRIETAN.....	74
4.9. BAKE LANTALDEA: ERRONKAK PROPOSAMEN BIHURTZEN.....	76
4.10. KOORDINAZIOA ETA EGUNEROKOTASUNA.....	77
5. BERDINTASUNA	78
5.1. EGK ETA GAZTERIAREN “I. BERDINTASUN PLANA”	78
5.2. BERDINTASUN ARLOKO LANTALDEAREN ERAKETA ETA JARRAIPENA.....	80
5.3. GENERO BERDINTASUNA ZEHARKAKO BALORE GISA TXERTATU EGKN.....	84
5.3.1. GENERO BERDINTASUN ARLOKO BARNE-FORMAZIOA.....	84
5.3.2. PRAKTIKA EGOKIEN LIBURUA BERRIZTATZEA.....	87
5.3.3. INDARKERIA MATXISTA EDOTA LGTBI+FOBIKOAREN SALAKETARAKO PROTOKOLOAK.....	88
5.4. EMAKUME GAZTEAK ETA ENPLEGUA.....	91
5.5. “GUNE ANITZA” ZIGILUA.....	91
5.6. JAIK: ELKARREKIN ETA GUZTIONTZAT	94
5.8. AURREIKUSITA EZ ZEUDEN LANKIDETZA ETA AHOLKULARITZAK	99

6. KOMUNIKAZIOA..... 102

6.1. RECACCIONA #EGK30AUKERA BIDEO LEHIAKETA.....	102
6.2. PIZTU! HAMABOSTEROKO BULETIN ELEKTRONIKOA.....	105
6.3. WEBGUNEA: WWW.EGK.EUS.....	107
6.4. SARE SOZIALAK.....	110
6.5. KOMUNIKAZIO KANPAINAK	114
6.6. BARNE KOMUNIKAZIO KUDEAKETA ETA BESTE BATZUK	118

7. PRESIDENTZIA..... 120

7.1. BATZORDE IRAUNKORRA.....	120
7.2. LAN TALDE TEKNIKOAREN KOORDINAZIOA.....	122
7.3. BATZORDE EKONOMIKOA.....	124
7.4. BATZAR OROKORRA	125
7.5. LANKIDETZA ETA ORDEZKARITZA.....	127

8. EGK-KO KUDEAKETA EKONOMIKO ETA

ADMINISTRATIBOA..... 12036

8.1. 2016 URTEKO BALANTZE EKONOMIKOAREN IRUZKINA	12736
8.2. BATZARREAN ONARTUTAKO 2016RAKO AURREKONTUA.....	12738

SARRERA

Dokumentu honetan, EGK-k (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua) 2016an zehar egin duen lana jasotzen da. Atalez atal, proiektu guztiak azaldu eta baloratu dira.

Urte berezia izan da aurtengoa, Kontseiluaren 30.urteurrena bete egin da eta horrekin batera ekainaren 22an urte luze hauetan EGKren parte diren elkarte, langile ohiak, harremana duten instituzioak jaialdi berezi batetan bildu egin dira. Egun berezi honetan, Ez-ohiko batzar bat burutu egin da eta bertan EGK-ko presidentaren erreleboa burutu egin da; Itsaso Andueza agurtu eta Maialen Olaberi ongi etorria eman.

2016 urteko ospakizunekin batera, EGKren irudi korporatiboaren aldaketa egin da eta baita webgunearen eguneraketa ahalik eta erabilerraza bilakatzeko asmoarekin.

Oro har, proiektu guztien gauzatzea arrakastatsua eta kalitatezkoa izan da. Aurreikusitako ekintza gehienak burutu dira eta denetatik ondorioak eta mamia atera da. Horiengatik ez balitz, Kontseiluak ez luke diskurtsoa osatzerik, ez eta erakundeei aholku ematerik.

Gazteengandik lortutako parte-hartzea esparru batzuetan baxuagoa izan dela nabaritu egin da; hori dela eta, parte hartze hori handitzeko estrategiak bilatu behar dira hurrengo urterako.

Berdintasun arloak izan du protagonismo gehien urte honetan zehar, batzarrean onartu egin zen erasoen gaineko protokoloaren aktibatzearekin; horrekin batera aurten martxan jarri da etxebizitza eta enplegu arloan GazteLabel ziurtagiria instituzioen artean interesa piztu duena. Gainontzeko arlo guztietan ekintza eta egitasmo ugari burutu dira: Bake eta Bizikidetzako Bakehizketak dokumentalaren aurkezpena eta arloko lantaldea, Astialdiko eskolen etorkizuna eta lantaldeen koordinazioa, Hezkuntzako eragileen Foroa eta burututako aldarrikapenak; Twitter lehiaketak; gazteen parte-hartzerako lantaldea eta GazteOlinpiadak, batik bat.

Lantalde teknikoa momentu honetan 8 pertsonen osatzen dute. Haien kalitatea eta konpromisoa azpimarratzekoak dira. Ezaugarri eta gaitasun ezberdinak batzen dituzte denen artean, horrek EGK izugarri aberastuz.

Barne mailan, aurten bi formakuntza saio burutu egin dira: komunikazio gaitasunak hobetzeko bat eta bestea berdintasunaren arloko oinarritzko ezagutzen barneratzearen gainekoa. Oso positiboki baloratu dira barne-mailako formakuntza saioak eta ahal den neurrian urtero grapenari toki bat uztea interesgarria litzateke.

EGKko langile eta kideek, zein administrazioetako arduradunek, oso positiboki baloratu dute 2016ko jarduna. Inoiz baino oihartzun handiagoa lortu da eta Kontseiluak egindako lana erakundeetako neurrietan islatu dela iritzi da. Datorren urteari begira aurrekoa hobetzea izango da asmoa.

1. ETXEBIZITZA eta ENPLEGUA

1.1 EMANTZIPA...ZER?

Gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak. Haatik, krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzeak edo galtzeak suposatzen duen arazoa orokortu da, gazteriaz gain beste kolektibo askotara hedatuz. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahastuz.

Hala ere, gazteriaren egoera nabarmenki txarra da orokortasunen aurrean. Alde batetik, %20ko inguruko emantzipazio tasa (Observatorio de Emancipación) urriak aurkezten dituelako, eta bestetik, pairatzen dituen lan baldintzak kontutan harturik, egoerak ez duelako hobetzeko itxurarik. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da gaztez osaturiko etxebizitza lan talde bat berreskuratzea eta, enplegu lan taldearekin egin izan den bezala, administrazioarekiko lan zuzena egitea, gazte hauen nahiak eta beharrak politika publikoetara helaraziz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Etxebizitza eskubide subjektiboa defendatu, herri-hiritar denontzako, eta bereziki eskubide hau nabarmenki urratua ikusten da gazteengan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak eta gazte elkarteak etxebizitza arloaren inguruan batuko dituen eztabaida gune bat sortu eta egonkortu.
- Administrazio/instituzio ezberdinek martxan jarritako etxebizitza politika publikoak hausnartu eta erakundeen arduraren inguruan interpelazioa bideratu.
- Eztabaida gunean sortutako ekimenei jarraipena eman eta honen funtzionamendua kudeatu eta bultzatu.

Garapena

POLITIKA PUBLIKOEN JARRAIPENA:

Urtean zehar, administrazio ezberdinek gazteei zuzenduriko hainbat etxebizitza programa eta plan aztertu dira. Adibidez, gazteentzako alokairuzko etxebizitza programa edo etxebizitza partekatuen programak.

GASTEIZKO UDALETXEAREN IV GAZTE PLANAREN ETXEBIZITZA NEURRIAK:

Gasteizko Udaletxearen IV Gazte Planaren diseinua prozesu parte hartzaile baten bitartez egin da, eta EGK horren parte izan da. Plan honen barruan, etxebizitza arloko helburuak eta neurriak proposatu dira. Gainera, Gasteizko Udaletxeko Gazteria sailak urriaren 27an prestatutako Emantzipazio hiruburuan parte hartu zen, neurriak kontrastatzeko eta ekarpenak egiteko.

GAZTERIARI ZUZENDURIKO ETXEBIZITZA PROGRAMEN ETA POLITIKA PUBLIKOEN ANALISIA-TXOSTENA

Jasotako informazioa zabaldu eta gazteei zuzenduriko programen gainean gazteek duten iritzia jasotzeko helburuarekin, on-line galdetegi bat egin zen 2015ean. Galdetegi hau EGK-ko elkarten artean eta sare sozialetan zabaldu zen. Gainera, etxebizitza lantaldea sortzeko eta lehenengo deialdia egiteko oinarri gisa hartu nahi zen. Hala ere, lan karga handiagatik ezin izan zen aurrera atera eta 2016. urterako utzi zen. Guztira 49 erantzun jaso ziren.

Urte honetan inkestako datuak aztertu egin dira eta lortutako informazio guztiarekin uztailaren 20an "Gazteriari zuzenduriko etxebizitza programen eta politika publikoen analisia" txostena argitaratu egin da. Txosten horretan, gazteen hobekuntzarako proposamenak biltzen dira.

Euskarazkoa hemen: <http://bit.ly/2gZ9TeO>

Gaztelerazkoa hemen: <http://bit.ly/2gK6Wkn>

Bestetik, Etxebizitza lantaldeko lehenengo deialdia egiteko baliatu da txostena.

ETXEBIZITZA LANTALDEA

Lehenengo bilera otsailaren 25ean egin zen eta uda hasi baino lehen hilabetea behin batu da. Hasiera batean 6 pertsona osatzen zuten taldea baina uda eta gero lantaldeak indarra galdu du. Gainera, Bilbo ez den hiri batean egitea proposatu denean ez du inor parte hartu.

Bilera hauen bitartez, gazteen etxebizitza politika publikoen informazio jaso eta hausnartu da. Bertan ateratako proposamenak "Gazteriari zuzenduriko etxebizitza programen eta politika publikoen analisia" txostenean txertatu direlarik.

Lantaldeko kideak: JSE-EGAZeko gazte bat, EHUKo Ikasle Kontseiluko gazte bat, Barakaldo Gazte Bulegoko gazte bat, FVJE, AVIEM-eko gazte bat, gazte bat bere izen propioan.

Ebaluazioa

- Lantaldearen lehen deialdia arrakastatsua izan zen, izan ere, 6 gazte gerturatu ziren eta horietako asko EGKn parte hartzen zuten lehenengo aldia zen. Hala ere, urtea aurrera joan den heinean lantaldearen partaidetza aldakorra izan da, beraz, datorren urtean gazte gehiago gerturatzea lortu behar da. Hori dela eta, zaila izan da ekintza gehiago aurrera eramatea.
- Lantaldean Etxebizitza Legeari buruz eta Gazteriari Zuzenduriko Etxebizitza Programen eta Politika Publikoen Analisia egiten duen txostenari buruz eztabaidatu da eta programa horiek bete behar dituzten minimo batzuk lortu dira. Hala ere, arlo honetan ezjakintasun handia dago, eta horrek lana moteltzen du.
- Administrazio desberdinetatik oraindik martxan ez dauden programa eta proiektu batzuen kontrastea eskatu zaigu, EGK administrazioen erreferentea izanik.

1.2. GAZTEAK ETA ENPLEGUA LANTALDEA

Luze da EGKtik gazteriaren prekarietatea salatzen dela, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta are lehenagotik ere pairatutako baldintzengatik ere. Gaur egungo egoerak bereziki gogor jo du gazteria eta bideratzen ari diren hainbat erreformek ez dute prekarietatea denboran eta sakontasunean indartuko baino. Sindikatuek eta beste eragile batzuek emandako erantzunak ez dira gutxi izan, baina beharrezkoa da gazteek, gazte perspektiba batetik, guzti hau hausnartu eta erantzun bat emateko lan talde sendo bat izatea.

Azken urteetan Gazteria eta Enplegua lan taldea jende berriz indartzen eta egonkortzen joan da. Diskurtso sakon eta indartsua landu izan da, eta zenbait kargu politikoren aurrean garrantzizko eragile bilakatzea lortu da. Aurten, ildo bera jarraitu da, lan taldearen ekimenekin jarraituz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriaren perspektiba batetik gazteriarekin loturiko enplegu eta lan munduan bideratzen ari diren politika publikoak hausnartu, administrazioari helarazi eta, eskubide eta prekarizazioaren aurrean gazteen egoera aztertu eta eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea defendatu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK barruko enplegu lan taldea mantendu eta gazte gehiagori zabaldu. Gai berriak jorratu.
- Gazteria eta enplegu politiken inguruko hausnarketa eta eztabaida gune bat sortu, gazteen prekarizazioan erortzen ez diren alternatibak sortzeko bideak irekiz.
- Gazteriaren lan baldintzen eta hauen ondorioen salaketa publikoa egin, enplegu sistemaren arduradun direnen ardura interpelatu.
- Administrazio gazteriaren artean enplegu arloan zubi lana egin.

Garapena

LAN TALDEAREN BILERAK:

Lan taldea hilabeteetan behin batu da. Aurten bilerak Bilbon eta Gasteizen burutu dira. Gainera, gazte berrien parte hartzea lortu da. Dena den, aurreko urteetan parte hartzen zuen jendea baino pertsona gehiago erakartzea espero da datorren urterako. Bilera hauen bitartez, EGK-ko proiektuen kontrastea egin da, eta gazteen enpleguaren politika publikoen inguruko informazio jaso, trukatu eta hausnartu da.

Lan taldeko kide egonkorak: CCOO gazteak, FUJE, EKO-ACG, 3 gazte haien izen propioan.

LAN OSASUNAREN MANIFESTUA:

2015. urtean berreskuratu zen Lan Osasunaren manifestua. Hori dela eta, apirilaren 28an, Nazioarteko Lan Osasunaren egunean, manifestua landu, atxikimenduak batu eta publikatu egin da.

-Manifestua: enplegu lantaldean landu egin da eta aurreko urtean bezala Mutuen Legean arreta jarri da. Gainera, aurten gaixotasun profesionalen datuak gehitu dira.



Euskarazkoa hemen: <http://bit.ly/2hMgpFA>

Gaztelerazkoa hemen: <http://bit.ly/2hDRtUM>

-**Atxikimenduak:** aurreko urteetan bezala, manifestuan lan taldean landu eta gero beste elkarte, sindikatu eta gizarte mugimendu batzeko atxikimendu epea ireki zen. Guztira, 15 atxikimendu jaso ziren: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Juventud Obrera Cristiana (JOC), Gazte Abertzaleak, Asociación Silikosia, ASVIAME, Sare Antifaxista, Juventudes Socialistas de Euskadi (JSE-EGAZ), Pastoral Obrera de Bilbao, Acción Católica General (EKO-ACG), Kale Dor Kayiko eta CCOO, ESK, LAB, STEE-EILAS eta LSB-USO sindikatuak.

PROPOSAMENAK:

Aurreko urtean argitaratu zen **“gazteentzako enplegu planak sukaldatzeko GAZTEON ERREZETAK”** dokumentuaren zabalpenarekin jarraitu da. Besteak beste:

- 2016/01/20: Consejo Económico y Social Vasco.

- 2016/01/26: Bilboko Udaletxeko Bilbao Ekintza.

- 2016/05/12: Gasteizko Udaletxeko Gasteiz Gaztea jardunaldia. Txostena aurkeztu, eta gainera, jardunaldiaren diseinuan parte hartu da. Horretarako, Gasteizko Udaletxeko Gazteria sailarekin eta Enplegu eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren sailarekin bilerak mantendu dira.



-Gazteak eta lan mundua jardunaldia (azkenean ezin izan zen aurrera atera, ikusi justifikazioa 2.2 puntuan).

GAZTE BERMEA JARDUNALDIA:

Apirilaren 20an Gazte Bermeari buruzko jardunaldia egin zen. Jardunaldiaren helburua Gazte Bermearen nondik norakoak ondo ezagutzea zen, geroago gai horren inguruan eztabaida eta hausnarketa gauzatu ahal izateko. Jardunaldiaren hizlaria Amaia Arteaga izan zen, Eusko Jaurlaritzako Enplegu Plangintza eta Berrikuntza Zuzendaria eta bere azalpenak bukatu zirenean galderak egiteko aukera egon zen. Guztira 9 pertsona parte hartu zuten, eta horietako 5 enplegu lantaldekoak izan ziren.



ENPLEGU POLITIKETAN INTERPELAZIOA:

Gazteei zuzenduriko enplegu politiken jarraipena egiteko helburuarekin eta politika hauetan gazteen nahiak eta beharrak islatzeko xedez, politika publiko hauen hausnarketa egin eta haien arduradun diren kargu politiko eta teknikoekin bilerak egin izan dira urte osoan zehar.

-Bizkaiko Foru Aldundia: Bizkaiko Behatokiarekin bilerak egin dira (2016/01/20 eta 2016/09/14).

-Eusko Jaurlaritza: Enplegu eta Gizarte Politiketako sailarekin (2016/04/06 eta 2016/05/04), Plangintzako, Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzarekin (2016/03/10), eta Gazteria eta Kirolak zuzendaritzarekin bilerak egin izan dira (2016/01/15), arduradun politikoak egon direlarik horietako batzuetan.

-Gipuzkoako Foru Aldundia: Gipuzkoako ahaldun nagusiarekin bilera (2016/05/16) enplegu politikei buruz informazioa elkar trukatzeko eta EGK-ko proiektuak azaltzeko.

-Gasteizko Udala: Gasteizko Udaletxeko IV Gazte Planaren Emantzipazio atalaren diseinuan parte hartu da, enplegu arloko helburuak eta neurri zehatzak proposatuz. Gainera, urriaren 27an prestatutako Emantzipazio Hiruburuan parte hartu da enpleguko neurriak eztabaidatuz eta ekarpenak eginez.

-Lanbide: Bi proiektuen hausnarketa eta kontrastea egin da.

-Bilboko Udaletxea: Bilboko Udalak martxoaren 2an eta 3an gazteriari, enpleguari eta ekintzailetzari buruz antolatutako “GAZTETALK BILBAO EUROPA” mintegian parte hartu zen.

- Enpleguaren Euskal Estrategia 2020: Apirilaren 13an Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 lan-jardunaldian parte hartu zen.

- CONFEBASK: Ekainaren 9an CONFEBASKekin bilera bat egin zen. Alde batetik, *“Necesidades de empleo y cualificaciones de las empresas vascas 2016”* txostena aurkeztu zuten eta bestetik, EGK-ko lanaren berrikuntzak azaldu ziren.

Ebaluazioa

- Lan taldeak lan egonkorra egin du eta ekimenak modu parte hartzailean gauzatu ditu. Gainera, EGK-ko proiektuetan parte hartu dute haien iritzia eta proposamenak helaraziz. Dena den, datorren urterako taldea indartu behar da gazte gehiago lortuz.
- Politikari eta administrazioek proposamenei harrera ona egin diete eta neurrien kontrastea eskatzen jarraitzen dute. Beraz, ikusten denez, gero eta garrantzia gehiago ematen zaie gazteen iritzia eta beharrei.
- Lan Osasunaren manifestua aurrera atera da eta atxikimendu gehienak mantendu dira.
- Aurten, lehenengo aldiz, gai konkretu bat lantzeko jardunaldi bat prestatu da. EGK-ko enplegu lantaldekoak ez ziren gazteak gerturatu ziren eta gaia oso interesgarria zela azaldu zuten.

13. EMAKUME GAZTEAK ETA LAN MUNDUA

Azken urteetan emakume gazte eta gizon gazteen arteko enplegu adierazleek aldaketa sakonak jasan dituzte: emakume gazteek ikasketa maila altuagoa dute, aktibitate tasa altuagoa dute, okupazio tasa altuagoa dute...eta hala ere, soldata arrakala ikusterakoan kaltetua irteten dira (urtean emakume gazteek gizon gazteek baino 2.400 bat euro gutxiago kobratzen dute) eta, honi, gazte eta helduen arteko arrakala gehitu behar zaio.

EGK-k urteak daramatza gazteriak lan-munduan bizi dituen egoera eta bereizketa bereziak salatzen eta hauen hobekuntzarako proposamenak luzatzen. Hala, #EkinAlaPlof eta #SOSGazteak lan bildumari jarraipena emateko diseinatua izan da proiektu hau.

Honen lorpen nagusia izan da "Ibilbide moreak" lana. Honetan, emakume gazteek eta lan-mundua duten harremanaren analisi kuantitatibo eta kualitatiboa burutu da, honen hobekuntzarako proposamenak ere jasoz.

Lortutako ondorioak Eusko Jaurlaritzaren plan ezberdinenei neurri proposamenak egitera bideratuta egongo dira (Berdintasun plana, Enplegu plana, Gazte Plana, eta abar).

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Emakume gazte eta gizon gazteen artean lan munduan ematen den diskriminazioa eta soldata arrakala sustatzen duten ekintzak ekiditea izango du helburu, horretarako berdintasuna sustatuko duten neurriak eta proposamenak zehaztu beharko direlarik genero ikuspegi batetik.

HELBURU ZEHATZAK:

- Emakume gazte eta gizon gazteen artean ematen den diskriminazioaren informazioa eta datuak lortu.
- Genero ikuspegi batetik gazteriari bideratzen ari diren politika publikoen hausnarketa.
- Hausnarketaren ondorioak baliatuz Eusko Jaurlaritzaren plan ezberdinei (Berdintasun Plana, Enplegu plana, Gazte plana..etab.) proposamenak egin.
- Administrazioari helarazi egindako proposamenak.

Garapena

Atal hau bitan banatu da. Alde batetik azalduko da edukiari dagokion lana, EGK-ko Berdintasun eta Enplegu eta Etxebizitza teknikariaren elkarlanean egin dena. Bestetik, egiturei eta antolaketari dagokiona, non proiektuaren ondoriozko jardunaldien eta txostenaren azalpena ematen den.

EDUKI LANA:

Edukia prestatzeko Berdintasun eta Enplegu eta Etxebizitzako teknikarien lankidetzan izan da oinarritzat. Era honetara, bakoitzak bere lan arloaren ikuspegitik eta beraien lantaldeetatik ateratako ideiak txertatu ahal izan dituzte. Lan honen helburu nagusiak ondokoak izan dira:

- Hiruburuan eztabaidatuko ziren gai konkrituagoak definitu
- Gaiari buruzko informazio konkritua, datu berrituak eta eraldaketarako proposamenak bilatzea
 - Pausu hau aprobetxatu da txostenean jasoko zen informazioa biltzeko, bai kuantitatiboa eta bai kualitatiboa.
 - Era honetara, txostenaren lehen zirriborroa prest egongo litzateke Hiruburua ospatu zenerako eta, ondorioz, honen ostean bertan agertutako proposamenak aurretiaz diseinatutakoetara batze abasterik ez litzateke geldituko.
- Hiruburuaren eztabaida dinamikaren diseinua eta antolaketa, hala nola, materialen prestakuntza

Honetarako, banakako lanarekin batera, ezinbestekoa izan da komunikazioa mantentzea eta jarraipen eta koordinazio bilerak antolatzea. Hona hemen bileren datak eta hauetan landutakoak:

- Martxoaren 10a: Bilera hau Skype bidez egiten da eta Eztabaidarako gaiak eta hauei buruz informazioa lortzeko baliabide interesgarriez hitz egiteko erabiltzen da.
- Martxoaren 30a: Ordurako egin den datu eta informazioaren berrikusketa bilera.
- Apirilaren 21a: Azken bilera hau Hiruburua dinamizatuko duten teknikari guztien artean egiten da. Alegia, Berdintasun, Enplegu eta Etxebizitza eta Parte-Hartze teknikarien artean. Gaiak eta gaiei buruzko informazioa errepasatzeko bilera da, era berean dinamikaren denbora eta antolaketa errepasatzeko.

EGITURA ETA ANTOLAKETA LANA

Bestalde, egiturari eta dinamikaren antolaketari dagokion lana egon da, kronologikoki horrela izan dena:

- Martxoaren 12a: Egun honetan EGK-ko Berdintasun teknikaria eta Enplegu eta Etxebizitza teknikaria Gasteizko Udaleko Gazteria Teknikariarekin biltzen dira. Erabakitzen da Hiruburua El Pilar Gizarte Etxean burutuko dela apirilak 26an.
- Martxoaren 30a: Berriaren hedapenari beharrezkoak direnak bukatzeko eta bai Komunikazio teknikariari bai Gasteizko Udaleko kontaktuari bidaltzen zaizkie: kartelak, EGKren webgunerako berria, politikari eta teknikarientzat gonbita...
- Apirilaren 5a: Udaleko Gazteria Teknikariarekin gonbitaz eta gonbidatu potentziaz hitz egiten da. Era honetara, hedapenaren erantzukizuna banatu egiten da: EGK-k gazteak bilatuko ditu eta Udalaren bitartez Politikari zein Teknikariak bilatuko dira.
- Apirilaren 9a: Egun honetan informazioa politikari eta teknikariei bidaltzen zaie, hala, parte-hartzaile potentzial gisa ikusiak izan diren gazteei. Honetaz gain, EGKren webgunean berri baten bitartez ekintzaren berri ematen da (<http://bit.ly/23ezPJ1>)
- Apirilaren 15a: Leioako campuseko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Soziologiako 1. mailako ikasleei Hiruburua proiektua aurkeztzen zaie, Genero ikuspegia ikerketarako txertatua duten



ikasleria izateagatik (<http://bit.ly/1RVdZOW>).

- Apirilaren 18a: Onda Vasca-k bi astetik behin EGKri egiten dion elkarrizketa aprobetxatzen da berria aditzera emateko
- Apirilaren 26a: Dinamika hasten denerako dena prest izateko, Dinamizatzailleak izango diren hiru EGK-ko teknikariak (Berdintasuna, Enplegu eta Etxebizitza eta Parte-Hartzea) eta sareetan berria zabaltzen egongo dena (Komunikazio Teknikaria), aurretik batu eta guztia antolatzen dute.
- Apirilaren 27a: Hiruburua pasa berri, ondorio nagusiekin lehen berri bat altxatzen da EGKren webgunera (<http://bit.ly/1VVthdQ>).
- Maiatzaren 11a: Akta bidaltzen zaie parte-hartzaile eta laguntzaile izan ziren eragile guztiei bi hizkuntzetan, adieraziz aurki egongo dela proposamen hauek eta emakume gazteen egoera lan munduan islatzen duen txostena prest.
- Maiatzaren 13a: Aurre aukeraketa prozesu baten bitartez, diseinatzaile lan-poltsatik diseinatzaileetako bat aukeratu eta proiektuaren ideia aurkezten zaio, aurrekontua eta zirriborro labur bat aurkez dezan. Biler honetatik astebetera jasoak dira eta, era honetara, maketaziorako bere zerbitzuen kontratazioaz hitz egiten da.
- Ekainaren 3a: "Ibilbide Moreak" prozedura honen fruitu izan diren proposamenak txertatuak ditu jada eta, azken hizkuntza berrikusketa egin ostean, itzulpengintza lana burutzen da, honen ostean Emakunderekin partekatu ahal izateko azken "feedback" bat jasotzeko.
- Irailaren 20a: "Ibilbide Moreak" Gasteizko Simone de Beauvoir Elkartearen Etxean aurkezten da prentsaurreko baten bitartez eta aurkezpenak hedabideetan eragina du (ikus. eranskina).



- Urriaren 10a: Enplegu eta Etxebizitza eta Berdintasun arloen artean diseinatu diren "Gazteak eta lan mundua: harreman korapilatsu bat?" jardunaldien berri ematen da webgunean eta e-mail bitartez ohiko kontaktuei. Honetaz gain,

dagokion beste gune batzuetan ere berria zabaltzen da (elkarteak.info, agenda.pikaramagazine.com eta Gizalderen buletinaren bitartez). Honetaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak jardunaldien berri ematen du bere ohiko informazio sarean.

- Urriaren 24a: Partaidetza maila baxua baloratua eta ikusita erakarritako gehienak teknikariak zirela, data atzeratzea erabakitzen da, informazioaren berri aurretiaz eginiko bitarteko guztietan zabalduz.
- Azaroaren 17a: Azkenean, partaidetza baxua dela eta, alde batera uzten da eta interesa izan dutenei informazio baliagarria helarazten zaie.

Ebaluazioa

- Prozedura osoa pasata ebaluazio osoagoa burutzea derrigorrezkoa zaigu. Proiektu honetan bi lan-arloen arteko lankidetzak aberasgarria baina baita ere atzerapen eragilea izan da.
- Era honetara, "Ibilbide Moreak" argitalpena atzeratu egin zen eta, ondorioz, beste faktore batzuk ere medio, Enpleguari buruzko jardunaldiak ere atzeratu ziren.
- Honetaz gain, EGK-k bere ekintzetan nabari izan duen partaidetza jaitziera ere azpimarratu beharrekoa da, honek ezinbestean eragin baitu Donostian burutu nahi zen jardunaldia bertan behera utzi behar izatea.

Kontuan izan beharrekoa da hasiera batean jardunaldien data atzeratzea izan zela apustua partaide gehiago lortzeko helburuarekin. Gainera, bai EGK-k bai Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetza lortu ahal izateko zituzten bitarteko guztiak aprobetxatu zituztela. Hala ere, ezinezkoa izan zen partaidetzarako gutxieneko talde bat sortzea, nahiz eta argi gelditu zen antzeko jardunaldiek lekuan-lekuko teknikariak ere erakartzeko gaitasuna izan dezaketela.

Hala ere, partaidetza aldaera hau ere kontuan izan beharrekoa da etorkizunerako, izan ere, apirileko Hiriburuan posible izan zen gutxieneko talde bat sortze Gasteizen. Ondorioz, posible litzateke testuinguru faktore gehiagok eragina izatea.

- Ibilbide Moreak txostena oso harrera ona izan du medio publikoetan eta elkarriketa ugari eman dira txostena azalduz.

1.4. SOSGazteak II. ITZULTZE PROGRAMAK ETA ESKUBIDEEN GALERA

2013.urtean eta 2014.urteko lehen hiruhilekoan zehar SOSgazteak proiektua gauzatu zen, lanagatik atzerrira joandako gazteen errealitatea hausnartu zuena. Proiektu honen bukaeran argitaratu zen ondorio txostenean, besteak beste, atzerrira joandako gazteak itzultzea erabakitzen zutenean topatzen zituzten oztopoak agerian utzi ziren.

desberdinen inguruan hitz egin zen. Atzerrian dauden gazteen gaineko informazio falta handia dagoela adostu zen, Euskadin bizi diren gazteen egoera ordea, oso prekariotzat hartu zen eta egoerari buelta emateko estrategia bat beharrezkoa dela adostu zen, hori gauzatzeko ideia desberdinak azaleratu ziren.

Aretoan antolatutako Hiruburuak jardunaldietan oinarrituta sortutako txostena da hau. Izenburua "Gazteen joan etorriak. Mugikortasun politiken osotasuna helburu. Ondorio nagusiak" du.

Txostena gazteleraz: <http://bit.ly/2hugSNs>

Txostena euskaraz: <http://bit.ly/2gzFSRM>

ADMINISTRAZIOAREKIKO INTERPELAZIOA: ITZULERA PROTOKOLOA ETA GIDA:

Lehen zein bigarren SOSgazteak txostenetan hausnarturiko hainbat gako hobetzeko intentzioarekin, gazteen lan emigrazioan zerikusia duten hainbat administrazio arduradun eta entitaterekin harremana mantendu da.

- **Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza:** Emigratutako euskaldunek behin Euskadira itzulita ez dute errolda antzinakotasuna justifikatu behar hainbat eskubide bereganatzeko. Hala ere, egoera hori ez da oso ezaguna eta eskubide hori existitzen dela zabaltzeko asmoarekin Kanpo Harremanetako Zuzendaritzarekin harremana mantendu zen urte hasieran.

-**Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza:** Aurreko urteko lanarekin jarraituz, urte hasieran 3 bilera burutu ziren (2016/01/15/, 2016/01/18 eta 2015/01/26)) Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzarekin eta teknikariekin. Biler horietan EGK-k egindako "Euskadira Itzultzeko Gida" eta "Itzulitako Euskal Emigrante Ziurtagiria" proposamenak aurrera ateratzearen garrantziaz hitz egin zen eta gidarekin hastea erabaki zen. Hala ere, gida osoa ateratzea lana asko atzeratu ahal zuenez beste formatu bat aukeratu zen, FAQ deitutakoa. Hau da, galdera-erantzuna formatua. EGK-k Eusko

Jaurlaritzak proposatutako galderaren kontrastean parte hartu zuen eta ondoren GazteBizHitza web gunean publikatu zen. Gainera, EGK-ko sare sozialetan zabaldu zen informazioa.

Publikatutako galdera ondorengo izan zen: Zer da itzultzen den emigratzailearen ziurtagiria? Nola lortzen da?

Erantzun osoa ikusteko euskaraz: <http://bit.ly/2d87BrS>

Erantzun osoa ikusteko gazteleraz: <http://bit.ly/2gzv4r>

-**Gasteizko Udaletxeko Gazteria Zerbitzua:** IV Gazte Planaren diseinuaren prozesuaren barnean lanagatik kanpora joan behar izan direnak, eta Euskadira itzultzea erabakitzen

dutenei, informazioa eta aholkularitza eman behar zitzaiela proposatu zen. Izan ere, askotan, atzerrira joateko informazioa ematen da bakarrik.

Ebaluazioa

- Gazteriaren emigrazioaren datuak aztertu eta konpartitu egin dira.
- EGK-k urte hauetan jasotako informazioarekin beste erakunde batzuei aholkularitza eman izan ahal zaie itzulera politikak garatzeko, ikerketak egiteko eta eskura dagoen informazioa zabaltzeko.
- Itzultzen den emigratzailearen ziurtagiria nola lortzen den informazioa zabaltzea lortu da GazteBizHitza plataformaren bitartez. Hala ere, momentuz, ez dute informazio gehiago eskatu horren inguruan. Gainera, datorren urtera begira, informazio gehiago gehitzea espero da.

1.5. GAZTELABEL: GAZTERIA POLITIKA PUBLIKOEN KALITATE ZIGILUA

2015. urtean gazteria politikak publikoak gazteen perspektiba batetik ebaluatuko dituen sistema bat garatu zen. Arkitekturari Ziurtagiri energetikorako zigiluak, hezkuntzan Q kalitatea zigiluak edo janarian EuskoLabel zigiluek haien eremuetan egiten duten moduan.

Urte honetarako GazteLabel proiektu pilotua martxan jartzea erabaki da, eta lehenengo neurriaren kontrastea egingo da, modu honetan ikusiz proiektuaren indarguneak eta ahuleziak, zein hobetzeko atalak.

Helburuak

Helburu orokorra

Gazteen perspektiba batetik eta administrazioarekin elkarlanean, gazteria politika publikoak ebaluatu eta kalifikatzeko sistema bat garatu.

Helburu zehatzak

- Lehenengo neurria aurkeztuko duen administrazioarekin harremanetan jarri.
- Lehenengo neurriaren kontrastea egin.
- Kontraste agente berrien formazioa egin.
- Neurriaren jarraipena eta emaitzen zabalkuntza.
- Bigarren neurri baten kontraste prozesuarekin hasi.
- Garatutako ebaluazio eta zigilu sistemaren osotasun eta fidagarritasuna.

- Garapenean izandako parte-hartzea.
- Zigilu honen erabilgarritasuna eta erraztasuna.
- GazteLabelaren irizpide berdinak erabili proiektua ebaluatzeko.

Garapena

GAZTELABEL EKO KONTRASTE AGENTEEN FORMAZIOA:

GazteLabel prozesua aurrera eramateko eta administrazioen politikak ondo ebaluatu ahal izateko ezinbestekoa da kontraste agenteen parte hartzea. GazteLabel metodologiaren barruan kontraste agente horien formazioa eta izendapena aurreikusten da.

2016. urtean 3 administrazio ezberdinek jaso dute GazteLabellean formakuntza.

-Bilboko Udaletxea.

-Bizkaiko Foru Aldundia.

-Eusko Jaurlaritzako Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza: Kasu honetan parte hartzailea GazteLabel proiektu pilotuan aukeratutako neurriaren auto-kontrastea egin behar zuen arduraduna izan zen.



GAZTELABEL 2016 PROZESU PILOTUA:

2015. urtean hainbat kalitate zigiluren funtzionamendua eta gazteria politikak hausnartzeko erreminta hausnartuta, GazteLabelaren marko pilotua garatu zen. Aurten, metodologia frogatzeko prozesu pilotua aurrera eraman da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak bere gazteentzako enplegu politikak eskaini zituen eta prozesu pilotua Lehen Aukera 2015 programarekin garatu izan da. Behin neurria aukeratua izanda, kontraste agenteen taldea aukeratu zen, aurreko urtean formakuntza jaso zuten artean. Kontraste agenteak ondorengoak izan dira.

-Bizkaiko Foru Aldundiko Behatokiko teknikari bat.

-Donostiako Udaletxeko Gazteriako teknikari bat.

-EKO-ACG elkarteko gazte bat.

-Euskadiko Junior Enpresen Federazioko elkarteko gazte bat.

-EGK-ko presidentea.

Nahiz eta urte osoan zehar neurriaren ordezkaria izendatutako arduradunarekin eta kontraste agenteekin kontaktua mantendu den emailen bitartez eta bilerekin (2016/03/15, 2016/04/15, 2016/04/18, 2016/06/10, 2016/07/14, 2016/07/14, 2016/09/15, 2016/09/16, 2016/09/22, 2016/09/29, 2016/11/09, 2016/12/02) prozesuaren pausuak ondorengoak izan dira:

- 1. Eskaera:** Politika publiko edo neurri baten kontrasterako eskaera ardura kargu bat duen pertsonak edo taldeak egin behar du. Edozein kasutan, eremu horretan neurrien aurkezpena egin beharko dute batera ardura duen departamentuak eta Administrazio arduradunaren gazteria sailak. Beraz, lehenengo pausua Plangintzako eta Enpleguko Berrikuntzako Zuzendariak eta Gazteria eta Kiroletako Zuzendariak neurriaren eskera egitea lortzea da. Horretarako, bi sailetako teknikariekin bilerak egin dira. Hori horrela, 2016ko apirilaren 5ean eskaera formala izatea lortu zen.
- 2. Egokitasuna:** Behin neurriaren egokitasuna aztertuta, horren inguruko informazioa eskatu da. Horretarako, "Kontrastea egiteko hasierako txostena" bete behar izan dute Eusko Jaurlaritzako arduradunek. Behin informazioa izanda kontraste agenteei bidali zaie. Hala ere, hasiera batean informazio guztia ezin izan zuten lortu(emailtzak) eta prozesuan zehar eman behar izan da.
- 3. Protokoloa:** Prozesuaren egutegia zehaztu zen. Hasiera batean planteatutako egutegia moldatu behar izan da urte osoan zehar, izan ere, pentsatutakoa baino denbora gehiago behar izan da informazio guztia eskura izateko.
- 4. Banakako kontrasteak:** Behin informazio guztia izanda, kontraste agente bakoitzak neurriaren banakako kontrastea egin behar izan du. Horretarako, "Kontrastea eta autokontrastea egiteko eredua" txostena bete behar izan dute.
- 5. Informazio gehigarria:** Kontraste agenteek banakako kontrasteak betetzean neurriari buruzko informazio gehiago beharrezkoa zela ikusi da. Beraz, neurriaren arduradunei informazio hori eskatu behar izan zaio.
- 6. Auto-kontrastea:** Eusko Jaurlaritzako neurriaren arduradunek auto-kontrastea bete behar izan dute "Kontrastea eta autokontrastea egiteko eredua" txostena jarraituz.
- 7. Kontraste bateratua:** Banakako kontraste guztiak jaso ondoren, EGK-ko Enplegu eta Etxebizitza teknikariak txosten bateratua egin behar izan du banakako kontraste guztien bildumarekin.
- 8. Kontrastea eta hobekuntzarako proposamen bateratua (Behin-behineko GazteLabela):** Txosten bateratua eta auto-kontrastea kontraste agenteekin konpartitu da GazteLabel proposamen bat lortzeko. Kontraste taldeko kide guztiekin aurrez

aurreko bilera bat egin da. Bertan, txosten bateratua eta auto-contrastea alderatu dira eta behin-behineko GazteLabel proposamena atera da. Proposamena eta txosten bateratua Eusko Jaurlaritzako arduradunei bidali zaie haiekin bildu baino lehen irakurtzeko aukera izateko eta bilerara zalantzak eramateko.

9. Kontrastea-Kontraste eragileak eta arduraduna:

Kontraste agenteak neurriaren arduradunekin bildu da eta kontrastaren ondorioak, zein hobekuntzarako proposamenak azaldu zaie. Gainera, behin-behineko GazteLabel proposamena egin da. Honen ondoren, arduradunak erabaki behar du onartzen duen edo ez.

Bestetik, bai agente kontrastei zein Eusko Jaurlaritzako arduradunei GazteLabelaren metodologia eta prozesua ebaluatzeko orri bat bidali zaie. Horren helburua, hobekuntza proposamenak lortzea izan da. Beraz, datorren urteko GazteLabellean moldaketa batzuk emango dira.

GAZTELABEL PROIEKTUAREN AURKEZPENA:

Apirilaren 8,9 eta 10ean Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren (CJE) 20. batzarrean parte hartu zen. Bertan, EKGK-k GazteLabel proiektua aurkeztu zuen CJE-k prestatutako ekintzen barruan. Gainera, hitzaldia streaming-etik jarraitzeko aukera egon zen.



Ebaluazioa

- GazteLabelaren proiektu pilotua prozesu luzea, konplexua eta lan handikoa izan da. Gainera, ezin izan da aurten emaitza publikatu, izan ere, espero ez ziren gertakari batzuk. Hala ere, kontraste agenteen eta Eusko Jaurlaritzako arduradunen lanerako jarrera oso positiboa izan da eta erakunde desberdinen arteko koordinazioa hobetzeko oso baliagarria izan da.
- Kontraste agenteak eta Eusko Jaurlaritzako arduradunek ebaluazio orri bat bete dute eta, bertan, zigilua hobetzeko proposamenak egin dituzte. Izan ere, prozesuan zehar hutsune batzuk ikusi egin dira. Beraz, kontrastatuko den hurrengo neurriari begira aldaketa batzuk egongo dira GazteLabelaren diseinuan.
- Kontraste agenteak gazteak eta gazteriako teknikariak izan ahal direnez ez dute ondo ezagutzen enpleguko neurriak eta nola funtzionatzen dute. Beraz, horrek

prozesua pixka bat konplikatzeko du. Hala ere, beste ikuspuntu batzuk dituzte, eta kontrastea asko aberasten dute.

- Urtero neurri bat kontrastatzeko aukera dagoela uste da, baina ez gehiago. Izan ere, lan karga handia suposatzen du.
- Politika publikoak kontrastatzen eta ebaluatzen dituen sistema bat egotea oso garrantzitsua da, eta GazteLabela lan hori onarpen handiarekin bete izan du urtean zehar.
- GazteLabel proiektuaren zabalpena egin da eta interesa piztu du erakunde publikoetan eta pribatuetan.

1.6. BEKA ETA PRAKTIKEN IKERKETA KUANTITATIBOA

Azken hamarkadetan, eta bereziki azken urteotan gazteen enplegua sustatzeko eta gazte desenpleguarekin bukatzeko aitzakiapen martxan jarri diren neurri eta lege erreformek gazteriaren lan prekarietatea sustatu dute hein handi batean, kontrataziorik gabeko ez ohizko formulak eta praktiketako kontratuak erabiliz. Alabaina, administrazioa ez da askotan jabetzen haien ekimenekin bultzatzen duten egoeraz eta beste askotan lanaren kantitatea kalitatearen aurretik ipintzen dute, prekarietatea bigarren mailako arazo bat bezala ikusiz.

Oso zaila da gazteen eskubideen murrizketa bat ekartzen duten formula horien (bekak, praktika ez laboralak eta praktiketako kontratuak) menpe dauden gazteen kopurua ezagutzea, izan ere, ikerketa zehatzik ez da egin eta erakunde asko dira parte hartzen dutenak (unibertsitateak, Lanbide, enpresa pribatuak, administrazioa...)

Hori dela eta, garrantzitsua da zenbat gazte dauden egoera horretan azalduko duen ikerketa bat egitea, eta lan hori administrazioei dagokie. EGK-ri ikerketa hori sustatzea eta administrazioetatik lortutako datuen azterketa eta hausnarketa egitea dagokio, egoeraren norainokoak azalarazteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Administrazioek kontrataziorik gabeko, hau da, beka eta praktika ez laboralen menpe eta bestetik, praktiketako kontratu baten menpe dauden gazteen kopurua jakiteko ikerketa kuantitatiboa garatu dezatela sustatu, lan eskubideen murrizketa bat ekartzen duten lan eredu horien eta gazteriaren prekarietatearen norainokoak salatzeko eta datuak azalarazteko.

HELBURU ZEHATZAK

- Administrazio eta informazio iturri izan ahal diren erakunde ezberdinekin kontaktuan ipini datuak lortzeko eta ikerketa martxan jartzearen arduraren inguruan interpelazioa bideratzeko.
- Orain arte publikoak diren datuen azterketa eta hausnarketa egin.
- Behin ikerketa eginda dagoenean, lortutako datuen hausnarketa, sozializazioa eta egoeraren salaketa egin.

Garapena

BEKEN INKESTA:

Inkesta bat sortu zen linean. EGK-ko enplegu-lantaldearekin adostu dira galderak eta erantzunak. Erantzunak jaso ondoren, aztertu egin dira, eta, gero, ondorioak aurkeztu "Euskadiko gazteak kontratatzeko eta ez kontratatzeko salbuespenezko moduei buruzko azterlana" txostenean.

Guztira 30 erantzun jaso dira eta inkesta zabaltzeko moduak ondorengoak izan dira.

- Sare sozialak: EGKren sare sozialetan zabaldu zen galdera-sorta.
- Gazteak eta elkarteak: EGKren elkarteetan zabaldu zen galdera-sorta.

EUSKADIKO GAZTEAK KONTRATATZEKO ETA EZ KONTRATATZEKO SALBUESPENEZKO MODUEI BURUZKO AZTERLANA TXOSTENA:

Lehenik eta behin, praktiketako kontratuak eta prestakuntzarako kontratuak zer diren azaldu da, labur. Jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoan 2008an, 2011n, 2015ean eta 2016ko abuztuan modalitate horien pean kontratatu diren gazteen kopuruaren bilakaera egin da (eskura dauden azken datuak dira 2016ko abuztukoak).

Bigarrenik, kontrataziorik gabeko salbuespenezko formulak (lanekoak ez diren praktikak edo bekak, adibidez) zer diren azaldu da, labur. Era berean, zabaldutako inkesta eta eskuratutako emaitzak azaldu dira. Kasu honetan, ezin izan da modalitate horien pean dauden pertsonen kopuruari buruzko daturik eskuratu; hortaz, azterketa kualitatiboa egin da.

Azkenik, hobekuntza-proposamenak azaldu dira. Administrazioei helaraziko zaizkie, bi azterketetatik ateratako ondorioekin batera.

Txostena abenduaren 21ean argitaratu da EGKren web gunean eta difusioa sare sozialetik egin da.

Euskaraz hemen: <http://bit.ly/2hb9pGg>

Gazteleraz hemen: <http://bit.ly/2hTyPIk>

Ebaluazioa

- Inkesta gazteen parte hartzearekin egin da eta horrek aberastu egin du. Nahiz eta inkestaren zabalkuntza handia egin den EGK-ko elkarteen artean eta sare sozialetan, bakarrik 30 erantzun lortu dira.
- Administrazioek interesa dute gai honetan, izan ere, urtean zehar izan diren bileretan eta jardunaldietan gai honekiko kezka agertu da behin baino gehiagotan. EGK-k ez dauka baliabide guztiak ikerketa kuantitatibo bat egiteko eta publikoak diren datuak eskasak dira. Hori dela eta, ikerketa kualitatibo bat egin da beka eta praktika ez laboralen kasuan. Hala ere, baliabideak dituzten erakundeei ikerketa kuantitatiboa egin behar dela helarazi zaie.
- Txostena urte amaieran argitaratu denez ez da denbora egon difusio handi bat egiteko. Horregatik, datorren urtera begira txostena gehiago zabaltzea eta administrazioei proposamenak helaraztea espero da.

1.7. POSIZIONAMENDU PUBLIKOAK: LAN ISTRIPUAK

Urteak dira EGK-k badituela martxan posizionamendu publikoak egiteko protokoloa: lan istripu baten ondoriozko gazte baten heriotzaren ostekoa, alegia. Protokolo honen helburua, gazteriaren lan prekarietatea eta honen ondoriozko larrienak salatzea, eta horrekin batera, gazteen lan baldintzak hobetzea aldarrikatzea da.

Horrela ba, EGK-k dituen hedabide propioen bidez eta bestelako hedabideen bidez, EAEn gazte bat lan istripu baten ondorioz hilda edo larriki zauritua suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egingo da, protokoloak ezartzen duen prentsa ohar baten bitartez.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Maiztasunez gertatzen diren eta gazteoi bereziki jotzen diguten gertaerak eta haien arrazoiak publikoki salatu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte langileen lan istripuen ondorioko heriotzen errudun diren prekarizazio eta beste lan baldintzak salatu.

- Lan istripuen datuak jasotzen dituzten erakunde ezberdinekin harremanetan ipini gazte bat lan istripu bat izan duenean guri jakinarazteko.

Garapena

LAN ISTRIPUEN PROTOKOLOA:

Laneko istripu baten ondoriozko gazte baten heriotzarekin aktibatzen den protokoloa da hau.

Protokolo hau azken urteetan garatutako enplegu arloko diskurtsoari egokitu zaio eta martxan jartzen duten egoerak gehitu dira, hala nola, heriotza bat sortzen duten istripuez gain, zauri larriak sortzen dituzten lan istripuak gehituz.

Urtean zehar, protokoloari jarraipena egin izan zaio, eta behin bakarrik martxan jarri da, 2016ko uztailaren 2an.

Euskaraz hemen: <http://bit.ly/2gYXS9c>

Gazteleraz hemen: <http://bit.ly/2hEclaj>

OSALAN:

Aurten berriro Osalanekin kontaktuan jarri gara gazteren batek lan istripu bat izaten duenean informazioa eskura izateko. Izan ere, askotan informazio hori ez da publiko egiten. Hala ere, ezinezkoa izan da informazio hori lortzea. Osalanek emandako erantzunaren arabera, Datuen Babeserako Legea dela eta, ezin digute informazio hori eman.

Ebaluazioa

- Protokoloa behin aktibatu da, 25 urteko langile bat hil zelako bere lanpostuan zegoenean.
- Lan istripuei buruzko informazioa askotan ez da publikoa, hori dela eta, Osalani informazio hori ematea eskatu zaio. Hala ere, ez da posible izan Datuen Babeserako Legeak ez duelako baimentzen. Gainera, estatistiketan gazteen adina ez da kontuan hartzen.

1.8. EGUNEROKO LANA

EGKn arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren funtzionamendua bermatu beste lan eremuekin elkarlan egiten eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna emanez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Pentsarekin lan egin hauek eskatzen dutenean.
- Gazteria Planak eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin.
- Beste lan arloen lanaren kontrastea egin.
- Lan taldearen formazioan parte hartu.
- Lan arloarekin zerikusia duten aholkularitzak egin.
- Batzorde Iraunkorarekin eta lankideekin harremana/lankidetza.

Garapena

GASTEIZKO GAZTE PLANAREN JARRAIPENA:

EGK-k Gasteizko udalarekin duen hitzarmenaren baitan administrazio honen GaztePlanaren jarraipena egitea hitzartu da. Hortaz, IV. Gazte Plan orokorraren diseinuan parte hartu da eta jarraipena egin izan da enplegua eta etxebizitza (emantzipazioa) arloari dagokionez. Horretarako, Gasteizko Udaletxearekin bilerak mantendu dira eta haien ekintzetan parte hartu da, neurriak proposatuz eta kontrastea eginez.

BESTE ARLOEKIN LANKIDETZA:

EGK-ko eguneroko lana aurrera ateratzeko ezinbestekoa da arlo guztietako arduradunen lana, bai bakoitzaren arloan eta baita besteen arloetan gauzatzen diren ekimenetan zeharka edo zuzenean ere. 2016.urteari dagokionez, bereziki berdintasun arloan egin izan da lan, izan ere, Ibilbide Moreak txostena bi arloen arteko lankidetzari esker egin da. Gainera, 2016ko ekainaren 22an EGKren 30. urteurrena ospatu zen. Egun hori prestatzeko teknikari guztien artean lana banatu behar izan da.

ERRELEBOA EGITEKO FORMAKUNTZA:

2016. urtean Enplegu eta Etxebizitza arloak teknikari aldaketa izan du. Arloaren erreleboa ondo egiteko, aurreko teknikariarekin formakuntzako 4 saio egin dira. Landutako gaiak ondorengoak izan ziren:

-Urtarrilak 12: Plangintza, protokoloak, SOSGazteak (I) eta SOSGazteak (II).

-Urtarrilak 19: Enplegu planak eta GazteLabel.

-Urtarrilak 29: Etxebizitza.

-Otsailak 5: Ekintzailletza eta prekarietatea.

BERDINTASUN IKASTAROA:

Emakunderekin sinatutako hitzarmena dela eta, teknikari guztiak berdintasun gaien inguruko oinarritzko formakuntza jaso dute. Ikastaroa 20 ordutakoa izan DA, parte bat presentziala izanik eta bestea on-line bidezkoa. Atal presentziala bi egunetan banandu da, maiatzaren 17an eta 24an.

ADMINISTRAZIOEKIN HARREMANA:

Urte osoan zehar administrazio ezberdinekin harremana mantendu da bileren bitartez. Bilera horietan EGK-ko proiektuak azaldu zaizkie eta gazteriaren eskakizunak helarazi zaie. Gainera, sinatutako hitzarmenen jarraipena egin da eta administrazioen asmoak eta proiektuak baloratu dira.

AGERPEN PUBLIKOAK:

Prentsarekin lan egin da horrela eskatu izan denean (ikusi Komunikazio atala).

AHOLKULARITZA:

Aholkularitza eman izan zaie eskatu duten pertsona eta elkarteei (ikusi Parte Hartze atala).

Ebaluazioa

- 2016. urtean zehar EGK-k lan ona egin du. Hala ere, enplegu eta etxebizitzaren arloa lantzen duten elkarteekin eta gazteekin harremanak sendotzea beharrezkoa dela ikusi da ekintzak eta proiektuak aurrera ateratzeko.
- Gasteizko bulegoa aholkularitza gehien ematen duen bulegoa izanik, lan hori ondo bete da, eta beharrezkoa zen kasuetan toki egokietara bideratu da jendea.
- EGK-ko enplegu eta etxebizitza diskurtsoa ondo oinarrituta dago, eta gero eta gehiago kontuan izaten dute administrazioek. Gainera, gai berriak jorratu dira eta diskurtsoa aberastu da.
- Barne lan dinamikak egonkortu dira eta barne komunikazio protokoloak bete dira.

2. HEZKUNTZA

2.1.ASTIALDI FOROEN KOORDINAZIOA

Astialdi Foroa EAEko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da, lurralde bakoitzean talde autonomo batean funtzionatzen duelarik. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko



koordinazio-bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Une honetan astialdiaren esparruan ematen ari diren aldaketak direla medio, garrantzitsua da eragileen arteko sendotasuna eta koordinazioa indartzea instituzioen aurrean iritzi eta posizionamendu bateratua izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdian lan egiten duten elkarte eta eragileekin batera esparru honen garapenerako aurrera eramaten diren ekimen eta proiektuak babestu, sustatu eta ezagutzera eman administrazioen arteko bitartekaritza bideratuz.

HELBURU ZEHATZAK :

- Astialdi Foroko lan taldea sendotu eta eragile gehiagoren parte-hartzea sustatu.
- Eragile eta elkarleen arteko esperientzia eta beharrak trukatu.
- Elkarte eta erakunde publikoen arteko zubi lana bideratu.
- Astialdiaren eta boluntariotzaren zabalpena eta aldarrikapena.

Garapena

Hiru astialdi foroen arteko koordinazioa burutzeko, hilabetero, jarraipen bilerak burutu egin dira lurralde bakoitzean bertako elkarte eta eragileekin. Foro bakoitzean astialdiko eskolak, federazioak eta taldeak bildu egiten dira.

Lurralde bakoitzean eragile kopurua ezberdina da:

- **Araban**, 7 elkartek hartzen dute parte jarraikortasunez: Atsedeen eskola, Arduradun eskola, Gazteen gurutze gorriko astialdiko eskola, Atsedeen taldeak, Euskalerriko eskautak araba, Arabako eskaut laikoa eta Azterlariak.

Bilera batzuetan Itaka-eskolapioak hartu dute parte baina aurten ez dugu Accion 21 eskolaren berririk izan.

- **Bizkaian**, 12 elkartek hartzen dute parte jarraikortasunez: Urtxintxa eskola, Itaka escolapios fundazioa, Gaztetxo eskola, Aisiola eskola, Kurkudi, Bizkaiko gaztetxoen koordinakundea, Bosko taldea federazioa, Euskalerriko eskautak Bizkaia, Kiribil sarea, Amarauna sarea, Aisi-hezi fundazioa eta EDE fundazioa. Bizkaiko Gazteen gurutze Gorriko astialdi eskola aurten lanpetuta ibili dela adierazi du eta ez da koordinazio bileretara etorri.
- **Gipuzkoan**, 7 elkartek hartzen dute parte jarraikortasunez: Larrunarri eskola, Urtxintxa eskola, Hezkide eskola, Mundo Nuevo, Eziko, Gipuzkoako Gazteen gurutze gorriko astialdi eskola eta Gaztetxo eskola.

2016 urtean zehar burutako ekimen nabarmenak lurraldeka zehaztuta hurrengo hauek izan dira:

a) Arabako Astialdi Foroa:

2016an aurrera eraman diren ekintza eta koordinazio lanak:

- Aurten Gasteizko udalarekin eraikitako harremanarekin jarraitu egin da. Gazte Planaren berritze prozesuan murgilduta ibili da lantaldea arloko ekarpen eta proposamenak burutzen eta Gasteiz Gaztea jardunaldietan parte-hartzen.
- Otsailean zehar la Bolsa aretoan 2015eko boluntarioritza lehiaketako argazkien erakusketa bat antolatu egin zen.
- Azaroaren 19an, eragileekin batera el Pilarreko gizarte etxean. Bertan Araban eragina duten **astialdiko elkarteen esperientziak elkartrukatu** egin ziren barne-hausnarketa txiki bat eginez: ze ahultasun eta hobetzeko ze atal dauden azpimarratuz eta baita beste eragileetatik ezberdintzen diren ezaugarriak ezagutzera emateko.
- Aurten ere, astialdi taldeen **udako kanpaina** www.asialdiforooa.org webgunean jaso egin da. Honekin batera iaz sortutako informazio triptikoa ere zabaldu egin da eta pdf-an jasotako informazioa ere ezagutzera eman da. Aurten 15 taldek antolatutako 19 egonaldi plazaratu dira.

- **Kualifikazioek** sortuko duten eszenatoki berriari aurre eginez, eskolen arteko elkarlanean jarraitu da foroko kezka nabarmena bilakatuz. (astialdiko eskolen etorkizuna atalean garatua)

b) Bizkaiko Astialdi Foroa:

2016an aurrera eraman diren ekintza eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen udako ekintzak www.astialdiforooa.org atarian azaldu izan dira iaz bigarren urtez. Informazio hau buletin eta helbide ezberdinetara bidali egin da. Aurtengo Bizkaiko udako kanpainan, 41 elkartek burututako 69 kanpaleku agertu dira.
- Apirilean zehar la Bolsa aretoan 2015eko boluntariotza lehiaketako argazkien erakusketa bat antolatu egin zen.
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinazio saiakerak egin izan dira urte osoan zehar eta azken hiruhilabetean zehar lortu da 2017ra begira jarraikortasuna izango duten saioa eta edukiak adostea. Proposamena hauek Astialdiko 29 proposamenen dokumentuan daukate oinarria. Prozesu honen garapenean indarra jarri nahi da elkarren arteko elkarlana bermatzeko.
- Nazioarteko boluntariotza eguna izanda, zabalpen kanpaina handi bat burutu egin da BFArekin batera. #IzanZuAldaketa izan da honen leloa. Sinatutako hitzarmenean adostu bezala elkarlanerako bideak bilatu dira boluntarioen aitorpena egiteko eta baita gazteak boluntario bilakatzera animatzeko. Azaroaren 28an izan zen kanpainaren zabalpena bideo baten bitartez: <http://bit.ly/2gpgAt4> (908 ikustaldi abenduaren 22an). Horretaz gain, abenduaren 1ean prentsaurreko bat eman zen BFAko liburutegiko prentsa aretoan eta horri esker lortutako zabalpena bai egunkari eta irratietan eman zen. (ikusi komunikazio atala)
- Eskolei eragiten dieten gaiak beste Astialdi foroetan bezala bilera guztietan azaldu egin da. Koordinazio eta aholkularitza lanak burutu izan dira urte osoan zehar.

c) Gipuzkoako Astialdi Foroa:

2016ean aurrera eraman diren ekintzak eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen udako ekintzen zabalpena iaz bezala, astialdi foroko atarian izan da. Oraindik ere pdf formatuak mantendu egin dira. Aurtengo Gipuzkoako datuak hauek izan dira: Gidan, 13 elkartek burututako 32 kanpaleku agertu dira.
- Gipuzkoako Astialdi Foroaren parte-hartzea egonkortu egin da nahiz eta berriro ere eskolen foroa bihurtu Bosko taldearen ordezkaritza galduta. Aurten Gaztetxo eskola hasi da foroa parte-hartzen eta jarraikortasunez ibili da sartu denetik.
- Foroan protagonismoa hartu duten gaiak formakuntza aginduaren eguneratzea eta eskolen etorkizuna izan dira. Foroko ordezkaritza gehiena eskolena izanda gai hau hilerok landu egin da. Koordinazio bilerez gain, EJ eta Lanbiderekin bilerak pare bat burutu dira urtean zehar aurrerapausoak emateko asmoarekin.

2.2. ASTIALDIKO IKASTAROAK

Astialdiko begirale, zuzendari edota gizarte animatzaile izateko ikastaroen eskaintza zabaltzen dute EAE-ko astialdiko eskolek EGK informazio horren jasoketa eta difusioa burutu egin du. Iaz bezala, informazioa irailean soilik zabaldu beharren, uztailan ere deialdiaren aurrerapenaren albiste txiki bat sortu da. Gazteei irailera arte ikastaroetan izena emateko epea zabalik zegoela gogorarazi nahi izan da.

Gipuzkoako astialdi taldeek antolatzen dituzten begirale eta zuzendari ikastaroen zabalpena burutzea eta aldarrikatzen duten hezkuntza eredua ezagutzera ematea da urtera zabalpen kanpaina honen helburua.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdiko eskolen kalitatezko hezkuntza aldarrikatzea bere metodologia eredua ezagutzera emanez eta eskaintzen informazioa zabalduz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen artean ikastaroen informazioa eta formakuntza lana ezagutzera ematea
- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzea.

Garapena

ASTIALDIKO IKASTAROEN ESKAINTZA JASO:

Astialdi Foroan Euskadi mailako astialdi eskolek haien ikastaroak www.astialdiforooa.org webgunean argitaratu dituzte hirugarren urtez gida interaktibo baten bitartez.

Ikastaroen informazio zehatza eskaini da: ordutegia, epeak, hizkuntza... eta interaktiboa izanda, eskolen webguneak eta helbide elektronikoak klik baten bitartez eskuragarri zeuden. Astialdi Foroko webgunean argitaratzeaz gain, EGK-ko webgunean eta sare sozialetan ere zabalduta da.

Eskaintza honetan 17 eskolek eskainitako 50 ikastarotik gora jaso dira astialdiko begirale, zuzendari eta gizarte-animatzaile izateko aukera eskainiz.

ASTIALDIKO IKASTAROEN ZABALPENA:

Eskolen eskaintza zabaltzeko, eta ikastaroen gida sortzeko gain, aurreko deialdien zabalpenerako sortutako bideoak berriro ere gizarteratu dira: [Youtubeko lau bideoak](#). "Behar duzun denbora hartu astialdiko hezitzaile izateko" lelopean hedatu dira berriz ere.. Modu horretan, Euskal gazteriari hemengo eskoletan hezteko dei egin nahi izan zaie.



ASTIALDIKO IKASTAROEI LOTUTAKO AHOLKULARITZA KUDEATU:

Astialdiko formakuntza eskaintzaren zabalpenarekin batera, gai honi lotutako zalantzen kudeaketa proiektu honen beste atal bat da. Astialdiko webgunearen bitartez, gazteek haien zalantzak plazaratzeko aukera izan dute bertan azaltzen den "buzoia"-ren bitartez.

Iaz bezala, 2016/2017ko astialdiko ikastaroen informazioa uda garaian (uztailaren 14an) zabaltzeko egin da gazteek informazioa aldeztu aurretik izan dezaten. Horrela kanpainaren zabalpena luzatuz aholkularitza gehiago egiteko aukera izan da.

Informazioaren zabalpena albiste honen bitartez egin da: <http://bit.ly/2hlhc7J>

Ondoren, irailean, matrikulazio garaiarekin batera beste albiste bat sortu egin da izena emateko azken egunak direla gogoraraziz.

Esteka honetan gogorarazpenaren albistea aurkitu daiteke: <http://bit.ly/2gz9SjW>

Ebaluazioa

Zabalpena urtero bezala hainbat gazteren aholkularitza bideratu egin du eta horrekin batera Astialdiko webgunearen zabalpena. Datorren urtera begira, zabalpenarekin batera ikastaroetan emango diren aldaketak jaso beharko dira. Hau modu bateratuan koordinatu beharko da bai Aldundiekin eta baita Eusko Jaurlaritzarekin ere.

2.3. ASTIALDIKO UDAKO EKINTZAK

Urtero bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako astialdi taldeetako boluntarioek urtean zehar egin duten lanari esker, 69 elkartek antolatuta 120 ekintza; hau da, guztira 10.000 plaza eskaintzen dituzten udaleku, topaketa eta bestelako jardueretan parte hartzeko hainbat aukera egon dira..

Aurten ere, formatu digitala erabili egin da zabalpenerako: www.astialdiforooa.org webgunean informazioa txertatu.

Arabian 15 elkartek 19 ekintza prestatu dituzte; Bizkaian, 41 taldek 69 txanda diseinatu dituzte; eta Gipuzkoan, 13 erakundek 32 plan proposatzen dituzte.



Helburuak

- Astialdi taldeetako udako ekintzen zabalpena egitea.
- Lurraldeko astialdi taldeak ezagutzera ematea.
- Boluntario gazteen lana aintzat hartzea.

Garapena

Udako ekintzen zabalpena Astialdi Foroko webgunearen bitartez zabaltzeko egin da. Alde batetik betiko pdf-ak mantendu egin dira. Lurralde bakoitzeko eskaintza jasotzen dituztenak informazio zehatza (udaleku mota, hizkuntza, adina, astialdi taldea ...) eta harremanetarako bideak erakutsi.

Bestetik, udako ekintzen bilatzailea osatu egin da ekintza bakoitzeko miniatura sortuz eta informazioa dinamikoagoa eginez.

Albisteak webgunean (apirilak 13): <http://bit.ly/2gok5wd>

Ebaluazioa

Aurten udako kanpaina soilik on-line formatuan burutu izan da guztiz. Hori dela eta, aurreikusitako diru kopurua, diru-iturri gehiago eskatu dituen aterpetxeen atariari eskaini izan diogu.

Gipuzkoa eta Araba mailan astialdi talde gehiagoren informazioa ezagutzera ematea falta da. Datorren urtera begira, urteko helburu berdina aurrera eraman beharko da: eskaintza ahalik eta handiena zabaltzea, baina urte osoan zehar dauden astialdi taldeekin harremana osatuz.

Zabalpenari dagokionez, 2017ra begira, 3 Aldundiek batera zabaltzen duten eskaintzarekin batera aipamen berezi bat egitea izango litzateke bultzada ona. Askotan familia askok ez dute eskaintza hau ezagutzen eta soilik aldundietako eskaintzaren zain daude.

2.4. ASTIALDI FOROKO WEBGUNEA (WWW.ASTIALDIFOROA.ORG)



Astialdi Foroko webgunea, astialdiko eragile, boluntario eta gazteen artean astialdiko gaien bilgunea eta tresna da. 2014ko

irailetik martxan dago eta denbora tarte honetan zehar webgunearen kudeaketa eta hobekuntza lanak burutu izan dira ahalik eta informazio eguneratua ezagutzera emateko asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdiaren arloko informazio eta proiektuen inguruko zabalpena indartzea eta gune erreferentea bilakatzea arloko gazte eta elkarten artean.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi elkarteak ezagutzera ematea
- Astialdi Foroko eragileen lana jendarteratzea
- Atari dinamiko eta erabilgarria izatea

Garapena

ASTIALDI FOROKO WEBGUNEA:

2 urte daramatza Astialdi Foroko webgunea martxan eta emaitza onak jaso dira. Astialdiko erreferentziazko ekintzetan, udako ekintza eta astialdiko ikastaroen aholkularitza eta informazioa bideratzeko tresna baliogarria bihurtu da. Bestetik, gazteen zalantzak jasotzeko eta astialdiko edozein gairen gaineko informazioa hedatzeko baliabide erreferentea da arloko eragileen artean.

2015eko emaitzekin alderatuta, guztira 10778 bisita egon ziren urtean eta 2016an abenduak bisitak kontuan hartu gabe 11529 jaso dira.

GAI BEREZIAK:

Egun berezien aipamena: webguneari mugimendua ematen jarraitzeko, aurten hilabetean behin sarrera berezi bat burutzea izan da ideia. Horrela, nazioarteko egunen aipamenarekin batera, astialdiaren ikuspegitik albiste sarrera txikiak sortu izan dira.

Natura sexualeko aurrekari penalen ziurtagiria: boluntariotza legean azpimarratzen den bezala, hurrekin lan egiten duten pertsona orok natura sexualeko aurrekari penalik ez daukala egiaztatzen duen ziurtagiria izan behar du. Hasiera batetan, gai honen gainean zegoen informazioa oso nahasia zen eta ziurtagiria lortzeko ordaindu beharra zegoen. Astialdiko eragileentzako lagungarri bezala eta gazteen artean aholkularitza egokia bideratzeko asmoarekin, albiste bereziak sortu izan dira aurten EGK-ko webgunean eta baita astialdikoan ere. Hainbat eragile eta instituziok eskertu izan digute aholkularitza laguntzea eta albistea sortzea.

Aurrekari penalen ziurtagiriaren aholkularitza albistea: <http://bit.ly/2hryfBP>

Aldaketak eta zehaztasunak: <http://bit.ly/2hleadm>

WEBGUNEKO BISITA MUGIMENDUAK:

2016	Bisitak	Erabiltzaileak
Urtarrila	736	636
Otsaila	487	451
Martxoa	732	675
Apirila	1471	1364
Maiatza	1275	1175
Ekaina	1155	1076
uztaila	1045	952
Abuztua	850	783
Iraila	1564	1419

Aurten Google tresnaren Foroko erabiltzaile eta neurtu egin da esker atariaren egiteko aukera	Urria	894	843	Analytics bitartez Astialdi webgunearen bisita kopurua egunero. Horri jarraipen erreala izan dugu.
	Azaroa	1320	1133	
	Abendua	1237	1176	
	GUZTIRA	12766	11683	

*Abenduko azken asteko datuak jaso gabe.

Ebaluazioa

Aurten inoiz baino eduki gehiago sartu da webgunean hilabeteko egun berezien aipamenarekin eta baita sortu izan diren sarrerekin. Aurreko urteko datuekin konparatuz urteko bisita eta erabiltzaile kopurua 2000 puntutan handitu egin da. Abenduko azken asteko datuak kontutan izan gabe hauek dira datu ofizialak: 12766 bisita eta 11683 erabiltzaile 2016 urtean zehar.

Datuei arreta jarritz neurgailu ona da bisita kopurua igotzearena. Datorren urterako erronken artean edukien eta bisita kopuruak aurrera egiten jarraitzea izango da. Hurrengo urterako bisita kopuruak gainditzea izango da erronketako bat webgunean ahalik eta informazio gehien eguneratzearekin batera.

2.5. ATERPETXEEN ATARIA: ATERGUNE

EAEko gazte eta gazte elkarten eskura dagoen aterpetxeen ataria sortzea Astialdiko eragileen eskera bat izan da. Bere garaian Amarauna Sareak sortutako baliabidea desagertu zenetik, horren falta nabaritu izan dute arloko eragileek batez ere. Gabezia horri erantzuna emateko sortu da ataria.



Helburuak

- Euskadi mailako aterpetxeen atari eguneratu eta dinamikoa sortu.

Garapena

Proiektua garatzeko EGK-k sortutako diseinatzaile gazteen lan-poltsako enpresa bat aukeratu egin zuen, Tapuntu. Lanean hasi baino lehen ideiaren nondik norakoak azaldu zitzaizen eta azpimarratu egin zen beste atari berri bat sortu beharrean, astialdi foroko atal bat izatea nahi zela.

Azpimarratutako ezaugarrien artean, erabilerraza, argia eta erakargarria dira nabarmenenak. Horretarako mapa baten gainean txertatutako kokapen-irudiak aukeratu izan dira. Bertako irudien gainean klikatuz gero laburpen txiki bat eta informazio eguneratua duen fitxa bat jasotzen da. Behean atariaren irudi bat ikus daiteke.



Ebaluazioa

Proiektuaren ebaluazio bat egiteko oraindik goiz da. Martxan jarri denetik hilabete batzuk beharko dira gutxienez izan duen harrera zenbakietan neurtzeko eta erabilerak markatuko dituen eguneraketak egiteko.

Datorren urtera begira, atariko espazioen kopurua handitzea izango da helburu nagusia.

2.6. ASTIALDIKO ESKOLEN ETORKIZUNA

Aurten eskolen etorkizunaren gainean lanean jarraitu egin da Kontseilutik. Aholkularitza eta laguntza eskaini da. Trantsizioak eragingo dituen aldaketei nola aurre egin eta zer nolako proposamenak egin da landu egin dena Astialdi Foroko bileretan.

Helburuak

- Astialdiko formakuntza dekretuaren berrikuntzaren jarraipena burutu
- Institutuzio eta astialdiko eskolen arteko koordinazio mantendu

Garapena

Astialedian ematen ari diren aldaketek egunerokotasunean izan dute eragina. Bai Eusko Jaurlaritza eta eskolen arteko informazio trukean eta baita Aldundien koordinazioan ere. Lortu egin da Eusko Jaurlaritza eta Lanbiderekin bilera bat egiten prozesuaren nondik norakoak zehaztu ahal izateko eta bide batez zabalpen kanpaina bateratu baten beharra azpimarratzeko. Bertan Aldundiei zor zitzaizen bilera informatibo bat eskatu zuten Astialdiko eskolek eta horrela izan zen aurrerago.

KOORDINAZIO BILERAK:

- Martxoak 8: Lakuan 3 lurraldetako eskolen bilera E] eta Lanbiderekin batera.
- Martxoak 22: E], aldundiak eta EGKren arteko bilera.

EAE-ko ESKOLEN EGOERA:

Une honetan hauek dira Gipuzkoa mailan Lanbideko formakuntza zentroen errekonozimendua eta egoera:

- Errekonozimendua daukaten eskolak: Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko Gurutze Gorriak, Itaka-Eskolapios Fundazioa, EDE fundazioa Gaztetxo eskola, Kurkudi eskola eta Atsedan taldeak.
- Errekonozimendua burutzeke daukaten eskolak: Gipuzkoako Urtxintxa eskola, Hezkide, Eziko, Bizkaiko urtxintxa eskola, Arduradun eskola eta Aisiola

- Errekonozimendua eskatuko ez duten eskolak: mundo nuevo, Larrunarri. eta euskaraz egin,

*Acción 21 eskolaren berririk ez dugu izan 2016ikasturte honetan zehar, ez dakigu zein da haien apustua.

AGINDUAREN ARGITALPENA:

Urte amaiera heltzeaz, azaroaren 17an aginduaren argitalpena burutu egin da. Hemendik aurrera trantsizio prozesuaren atzerako kontaketa hasi egin da. Urtean zehar proposatutako diskurtso bateratua, kanpora begira burutu beharreko jakinarazpen eta zabalpen kanpaina informatiboa, eskolen errekonozimenduak lanbideko formakuntza zentro bezala...

2017rako LAN ILDOAK:

Astaldi Foroetatik jasotako proposamenak kontuan hartuz eta urte honetako koordinazio bideak ikusita, EGKren bitartez instituzio eta eskolen arteko prozesu parte-hartzaile eta bateratua burutzea da asmoa.

Ebaluazioa

EAE-ko astaldi eskolek Lanbideko formakuntza zentro izateko eskaera eta formakuntza dekretuen aldaketaren tematikak lantzeko aholkularitza eta koordinazio lanak administrazioarekin batera aurrera eramateko lanak egin dira.

2017/2018ko ikastaroen kanpainari begira EGK-k koordinazio prozesu barne-hartzaile bat burutzea proposatzen du, betiere instituzio eta eskolekin aldez aurretik koordinatuz.

2017ra begira gai honen gaineko informazioa argia eta berdina izan behar da gazteoi ulerterraza bilatzeko.

2.7. HEZKUNTZA FOROA

Urteak dira Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) baitan ikasle elkartez, Kontseiluz eta hainbat gaztez osatutako Hezkuntza Foroa martxan dagoela. Lantalde honek Hezkuntza Formalaren arloan gazteen eskubideen alde lan egiteko helburua du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteek hezkuntza arloan bizi dituzten egoerak, arazoak eta kezkak ikusarazi, proposamenak jaso eta gizarteratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Eztabaida pizteko bideak erraztu eta guneak sortu.
- Instituzioekin harremana bideratu

Garapena

Hezkuntza arloko ikasle elkarte, kontseilu eta maila indibidualean datozen gazteekin batera hilabeteen behin bildu eta bilerak koordinatzen dira. Landutako gaien artean hurrengo orrialdeetan aipatzen diren proiektuak daude besteak beste: euskaraz ikasteko aldarrikapena, garraio gastuen proiektua eta lan-aholkularitza eta formakuntza.

Ebaluazioa

Aurten hezkuntza formalean proiektu zehatz ezberdinak lortu dira eta eragileen parte-hartzea urte osoan zehar jarraitua izatea lortu da. Datorren urtera begira lurralde historiko bakoitzeko unibertsitateetako ikasle kontseiluekin harremana sendotzea izango da helburuetariko bat eta bide batez ikasle elkarte eta gazteen parte-hartzea handitzea lantaldean.

2.8. EUSKARAZ IKASTEKO ESKUBIDEEN MANIFESTUA

Urteetan zehar Hezkuntza Foroa jasotako kezka da unibertsitate mailan %100ean ikasteko oztopoak daudela. Hori dela eta, gauza gizarteratzea proposatu da aurten plangintza eta horrela burutu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EHU mailan %100ean euskaraz ikasteko zailtasunak daudela ezagutzera ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egun ezagutzen diren oztopoak ezabatzea.
- Unibertsitatean euskararen egoera zein den aztertzea era eguneratzea.

Garapena

Gaiari heltzeko gazteon esperientziak elkarbanatu egin dira Hezkuntza Foroko lantaldean egunerokotasunean bizi diren zailtasunak jasoz eta horiek ekiditeko proposamenak eztabaidatuz. Ideiak sendotzeko azken urteotan unibertsitate mailan euskararen egoeraren gaineko analisi txiki bat burutzea izan da asmoa baina EHUKo webgunean azaltzen ziren datuak ez zeuden eguneratuak.

Gauzak horrela, arazoa ezagutzera emateko manifestu txiki bat osatu da Kontseiluaren aldarrikapenak jasoz, baita aurrera egiteko emango diren pausoak ere.

Manifestuaren zabalpena egiteko abenduaren 2a aukeratu egin zen eta euskararen egunean bertan sare sozialetan izan zuen presentzia dokumentua eta aldarrikapena bera. Esteka honetan zabaldutako manifestua irakur daiteke: <http://bit.ly/2gP41Vh>

Manifestuaren zabalpenarekin batera EHUKo errektore berriari email eta telefono bitartez jakinarazi egin zaio berarekin bilera bat eskatuz. Mezuari erantzunez, urtarrilean bere legealdia modu ofizialean hasiko dela jakinarazi zuen eta biltzeko prestutasuna erakutsi. 2017rako proiektu honen jarraipena burutuko da eta EHUREkin batera elkarlana burutzea posible izatea espero du EGK-k.

Ebaluazioa

Urteetan zehar landutako gaiari heltzea lortu egin da manifestuaren bitartez. Helburuak definitu dira eta proposamen zehatzak adierazi.

2017an zehar Nekane Balluerka errektore berriarekin bilduko da EGK eta hortik aurrera elkarlanerako bide berriak bilatuko dira, beti ere gazteon ahotsari protagonismoa emanez.

2.9. GARRAIO GASTUEN ANALISIA

EGK-ko Hezkuntza arloak martxan dituen proiektuen artean gazteok ikasteko urteko garraio-kostuak zenbatekoak diren jakiteko azterketa bat burutu du. Hezkuntza Foroa deituriko lantaldean bilduta dauden gazte eta eragileei esker, lurraldeen arteko desorekak daudela ikusita horri nolabaiteko erantzuna eman behar zaiola adostu da.

Datuak aztertzeaz gain, garraio arloari lotutako diru-laguntzak eta deskontuak zeintzuk diren jasotzen ari dira gazteei informazio hori hurbiltzeko eta erraztasunak emateko asmoarekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Lurraldeen arteko garraio gastuen analisia burutu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Instituzioei bideratutako proposamenak batzea.
- Gazteon errealitatearen eta proposamenen argazkia egitea.

Garapena


INFORMAZIO ETA PROPOSAMEN BILKETA:

Hezkuntza Foroko lantaldean proiektuaren xedeak zehazteaz gain, informazio eta proposamenen bilketaren lehenengo fasea burutu egin da.

INKESTA:

Informazio eta proposamen bilketa osatzeko ekarpen eta iritzi gehiago jasotzea proposatu egin zen. Horretarako beste proiektu askorekin egin ohi den bezala, formulario labur bat sortu da Euskal Autonomia Erkidegoko gazte gehiagorengana heltzeko asmoarekin.

Guztira 102 gazteren ekarpenak eta iritziak jaso izan dira inkestan adin-tarte hauetan banatuta:



Jasotako proposamenen artean nabarmenena Euskal Autonomia Erkidego mailan bidaia-txartel bakarra osatzea izan da %96ak aldeko apustua eginez.

TXOSTENAREN OSAKETA ETA MAKETAZIOA:

Proiektuak aurreikusitako baina dimentsio eta lan-karga handiagoa hartu du. Proiektua urte amaierarako bukatzeko saiakerak egin diren arren, 2017an aurkezteke egongo da. Txostenaren zirriborroa bukatu eta ondoren horren maketazioa burutuko da urtarrilean jasotako informazioa eta horren analisiaren berri emateko.

Ebaluazioa

Proiektuak bere garapenean erantzun positiboa izan du gazteen artean. Egunerokotasunean eragiten dien azterlana baita. 2017an zehar proiektuaren aurkezpena burutzeaz gain, proposamenen gauzatzea bilatuko da instituzioekin izan nahi diren koordinazio bileretan.

2.10. LAN-AHOLKULARITZA ETA FORMAKUNTZA

Azken urteetan, ikasle Kontseilu eta elkarte ezberdinekin batera ikasleen egoera hobetzeko eta haien eskubideak aldarrikatzeko lanetan dabil EGK hausnarketa eta ekintza bateratuen bitartez. Azken hilabeteetan zehar lantaldea lan munduarekin harremana duten atal eta oinarritzko kontzeptuen formakuntzaren beharrean oinarritu da.

Helburuak

- Gazteen lan-aholkularitza eta formakuntzaren gaineko oinarritzko ezagutzak bermatzearen aldarrikapena.

Garapena

Hezkuntza Foroko parte-hartzaileek azpimarratu duten bezala, gazteen hezkuntza ibilbide osoan zehar ez zaie inolako erreferentziarik egiten lan eskubide, nominak, gizarte segurtasuneko kotizazioak... eta antzeko gaiei hain garrantzitsuak izanda laneratzerako orduan. Aurretik aipatutako oinarritzko ezagutza horien gabeziak gazteei ez die mesede egiten eta Kontseilutik egoera honi irtenbidea jarri nahi zaio.

Horretarako irailaren 16an, EGK Maite zelaiarekin bildu da, Ikasleen, momentuko Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordearekin. Bilera horretan Kontseiluaren aurkezpena egiteaz gain gazteen lan-aholkularitza eta formakuntzaren gaineko jakintza eskasa unibertsitatean zelan kudeatu zitekeen aztertu genuen.

Aukera ezberdinen artean unibertsitate mailan ikasleei zuzendutako ikastaroak burutzea izan zen aipatutako bat. Errektoretzatako hauteskundeak tartean informazioa

errektore talde berriari jakinaraziko zitzaiola adierazi zen 2017ra begira elkarlanerako bideak osatzeko.

Horretaz gain, iritziak trukatu, proposamenak helarazi eta Kontseiluan azken hilabeteetan hezkuntza arloan egindako proiektuen berri emateko aukera azaldu zen.

Ebaluazioa

Aurrerapausoa izan da EHUrekin batera koordinazio bilera bat burutzea. Hemendik aurrera bileretatik haratago begiratu behar du EGK-k eta Euskadi mailan gazterian erreferentea izanda EHUrekin batera elkarlanerako ekintza zehatzak eta aukerak landu beharko lirateke.

2.11. EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA

Deskribapena



Euskadiko Eskola Kontseilua unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorrarekin zerikusirik duten giza eragileek parte hartzeko organo gorena da. Bere Funtzioen artean, hauek dira aipagarrienak: EAE mailan irakaskuntza garatzen duten arauetako buruzko irizpenak egitea, irakaskuntzaren egoeraren inguruko txosten orokorra burutzea eta txostenak egitea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Eskola Kontseiluan gazteon ahotsa; kezkak eta ekarpenak plazaratzea.

Garapena

Aurten eskola kontseiluko bileretan parte-hartzea ezinezkoa izan da bai presidentziako ordezkarietatik eta baita hezkuntza arloko ere.

Emailen bitartez deialdi eta dokumentuen berri du Kontseiluak eta ahal den heinean hezkuntza foroko eragileekin batera kontrastea burutu da.

Ebaluazioa

2017ra begira hezkuntza arloko ordezkari bezala, EGKren presentzia bermatu beharko litzateke burutzen diren koordinazio bileretan.

2.12. EGUNEROKOTASUNA

Deskribapena

Arlo bakoitzaren lan zehatzetaz gain, teknikariok egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dugu egunero: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; material, dokumentazio, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarritzko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu.

Helburuak

Helburu orokorra:

Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman.

Garapena

Egunerokotasunean aurreikusitako proiektuak aurrera eramateaz gain beste hainbeste funtzio eta ekimen burutu behar dira. Hauek laburpena hurrengo lerroetan dago jasota:

- 2016ko plangintza
- 2016ko memoria
- Bulegoetako aholkularitza.
- EGK-ko 30.urteurrenaren koordinazioa
- Lantalde teknikoaren koordinazioan lagundu: erreleboak, bajak...
- Barne formakuntza ikastaroak: komunikazio harreman eta estrategiak hobetzeko eta berdintasunaren gaineko oinarritzko kontzeptuak bereganatzeko.
- Ez-ohiko koordinazio bilerak: bai instituzio, lan-talde tekniko edo bestelako eragileekin.

Ebaluazioa

Aurten EGKren barne nahiko aldaketa eman dira eta horrek egunerokotasuneko lan-karga handitzea ekarri du zentzu askotan. Hala ere, lantalde teknikoak egoera guztiei aurre egiteko lanak egin ditu eta urtero bezala gauzak aurrera atera.

3. PARTE-HARTZEA

3.1. EUSKAL GAZTEEN BEHATOKIAREKIN ELKARLANA

2013an EGK-k “Gazteak eta parte-hartzea” ikerketa lan kualitatiboa aurkeztu eta gero Gazteen Euskal Behatokiarekin batera ondorio kuantitatiboak aztertzeko elkarlana jarri zuen martxan.

2015ean elkarlan horren ondorio den “Gazteak eta parte-hartze soziala Euskadin” ikerketa lan kuantitatiboa argitaratu zen. Txosten horri jarraipena egiteko eta bertan azaltzen den informazio baliagarri guztia sozializatzeko eta jendarteari modu erraz batean zabaltzeko asmoarekin EGK-k Rekkam enpresa gaztearekin bideo bat ekoiztu du. 2016an material horren difusioa egin da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriak duen parte-hartzea zenbatzea eta nolakotasuna aztertzea, hau da, gazteek zertan eta zenbat parte-hartzen duten definitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

2015ean planifikatu, diseinatu eta ekoiztu egin den bideoaren zabalpena eta sozializazioa.

Garapena

Urtarrilean, Komunikazio Teknikariarekin batera, bideoaren zabalpena egin zen sare sozialen bitartez. Egun, 300 bat ikustaldi ditu YouTube, bideoa ikusteko sakatu [lasterbidean](#).

Urtean zehar ere hainbat hitzaldiren bitartez zabaldu egin zaie elkarte eta gazteei. Horren adibide dira:

Boluntak antolatutako Boluntariotza Azokan egindako ikustaldia eta ondorengo eztabaida. Jolas eta ekin elkartearekin batera egindako ekimenean.

Gasteiz Gaztea jardunaldian, IV. Gazte Planari begira egindako proposamenak batzeari lotutako topaketan.

Ebaluazioa

Ebaluaziorako irizpide dira sare sozialen bitartez egindako zabalpenari esker lortutako ikustaldiak, hau da, erabili diren medioek izan duten inpaktu zuzena. Kasu honetan, 300 bat ikustaldi izan dira.

Horrez gain, gazte, gazteen elkarte, komunikabide eta administrazioek eskatzen duten aholkularitza ere kontuan hartzen dugu. Garapenean azaldu bezala, bideoa hainbat

hitzaldiren oinarria izan da.

3. 2. GAZTE ETA GAZTEEN ELKARTEEN PARTAIDETZAREN EZAGUTZAN SAKONDU: IKERKETA KUALITATIBOA

Europako Komisioak Erasmus+ programa multzoaren bitartez gazteen parte-hartzea bultzatu egiten du. Demokraziaren sakontzea helburu izanik, gazteen elkartegintzaren eta parte-hartzearen ezagutza handitu, eragileen arteko komunikazioa areagotu eta hobetzeko zenbait baliabide jartzen ditu eskura. Horien artean, aipatutako programaren hirugarren neurriaren barnean (KA3) garatzen den Elkarrizketa Egituratua.

Espainiako Gazteriaren Kontseiluarekin (CJE) eta beste autonomia erkidegoko gazteria kontseilu zein bestelako gazte eragileekin batera EGK-k Estrasburgon ospatu den European Youth Event (EYE) delakoan Euskadiko gazteen iritzia ordezkatu du.

2016ko urtarrilean Holandak Europako Komisioaren lehendakaritza hartzearekin batera hasi eta 2017ko ekainean amaitzen den zikloaren izenburua “Bizitza eta gizarterako prest! Gazteak Europa anitz, barne-hartzaile eta saretu baten alde lan egiten” da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bazterketa arriskuan dauden gazteek parte-hartzerakoan dituzten oztopo eta baliabideak bistaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bazterketa arriskuan dauden gazteen parte-hartzearen nolakotasuna ezagutzea
- Parte-hartze ekimenetan oztopo eta aukera izan daitezkeen baldintzak (norbanakoarenak edota egiturazkoak) azaleratu
- Lan arlo hau jorratzen duten elkarteak eta gazteak ezagutzea eta elkarlana bultzatzea Europako politika publikoen eraketan eragin
- Gazteriaren ikuspuntutik kolektiboaren barne-hartzearen aldeko lana indartuko duten ideiak garatzea
- Administrazio maila desberdinetan hobekuntza moduak aurkeztea

Garapena

Elkarriketa Egituratua delakoa Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren (CJE) gidaritzapean ematen den proiektua da. EGK elkarlanean aritzen da aipatutako Kontseiluarekin Euskadiko enbaxadaren bitartez. Enbaxadak proiektuaren deszentralizaziorako erremintak dira eta erkidego bakoitzean bat bultzatu da. Euskadiren kasuan, EGKren gidaritzapean ematen da. Enbaxadaren funtzioa zubi-lana egitea da, hau da, CJErekin batera proposatzen diren ekintzak Euskadin eragina izatea eta Euskadin garatutako iradokizunak Madrilen eta Europan eragina izatea. Garatu diren ekintzen artean:

European Youth Event: 2016ko maiatzaren 19tik 23ra Estrasburgon ospatu den topaketa da. Bertan dagoen Legebiltzarra ezagutzeaz gain Parte-hartze Teknikariak hainbat ekimen ezagutu eta bertan eragiteko aukera izan du. Ekintzak Legebiltzarraren barnean zein kanpoan garatu dira eta Europako gazteen arteko ezagutza ematea eta eztabaida piztea izan da helburua.

Inkesta zabaltzea: V. Zikloaren gaineko proposamenak egin aurretik gazteen egoeraren gaineko analisi bat bideratu da. Horretarako, erkidego desberdinetan inkesta bera zabaldu da. Euskadiren kasuan EGK-k zabaldu du uztaila eta abuztua artean. Erkidego guztien erantzuna kontuan izanda 500 inkestatik gora jaso dira. Inkestaren zabalpenean koordinatzeko helburuarekin uztailaren 6an Skype bidezko batzar bat egin zen Inkestaren emaitzak eztabaidatzeko abuztuaren 18, 19 eta 20an topaketa bat burutu zen Malagan. Ondorioak, Eslovaquiako topaketan eztabaidatu eta bertatik zenbait gomendio luzatu ziren. Topaketa honen ostean beste koordinaziorako Skype bilera bat burutu zen irailaren 13an.

Dialogo Estructurado topaketa: abenduaren 1ean EGK-k Eslovaquian garatutako gomendioak eztabaidatu ditu Bilbon horretarako prestatu duen topaketan. EAPNrekin batera (Pobrezia eta Bazterketa Sozialaren Aurkako Sarea) egin du hori San Frantziskoko Udaltegian garatu den dinamikan. Topaketan 25 bat gazte parte-hartu dute barneratze soziala eta parte-hartze sozialaren gaineko proposamenak egiteko helburuarekin. Ateratako proposamen horiek Madrilen defendatuko dira abenduaren 18tik 20ra.

Ebaluazio orokorra: Madrilen egingo da abenduaren 18tik 20ra.

Ebaluazioa

Partaide gazteen aniztasuna ebaluaziorako irispidea izan da. Orokorrean, gazteria emantzipaziorako zailtasun handiak dituen kolektiboa da. Enplegu prekarioak etxebizitza

bat eskuratzeko zailtasunak handitzen ditu eta horrekin batera bizitza autonomo bat garatzeko aukerak. Horregatik, gazteriaren bazterketa arriskua handitu daiteke. Egoera hau gazteen parte-hartzea mugatzen du. Izan ere, parte-hartzea, batez ere, bestelako beharrianak ase daudenean ematen da. Abenduaren 1ean 25 bat gazte biltzea arrakasta da zentzu honetan. Hala adierazi zuten bertaratutako hezitzaileak. Gazteak, topaketara etortzeaz gain gogotsu eztabaidatu zuten proposamenak jasotzearen helburua ahaztu gabe

Gazte etorkin eta zailtasun ekonomikoak dituzten gazteak egoera bereziki zaurgarrian daude. Hauen parte-hartzea sustatzea bereziki interesgarria da.

3.3. GAZTERPE: LANTALDEA

Gazteen partaidetza moduak ugariak dira. Batzuetan, gonbidapen bati jarraiki hartzen dute parte, beste batzuetan ordea, euren kabuz erabakitzen dute partaidetza aurrera eramatea. Partaidetza behar batzuekin izaten du lotura eta gazteek dituzten egiturazko gabeziei aurre egiteko helburuarekin antolatzen dira.

Parte-hartze arloan lantaldea sortu da gazteen parte-hartzerako espazioak aztertzeke helburuarekin. Lehentasunezko bi espazio identifikatu dira: gazteen lokalak eta gaztetxeak. 2016an EGK-ko Parte-hartze lantaldeak gazte lokalak aztertzea erabaki du.

Lantaldeak, gazte lokalei lotutako prozesu parte-hartzaile desberdinak ebaluatu eta aholkularitza bideratzeko helburuarekin elementu klabeak bistaratu eta garapen positibo baterako pausuak aurreikusiko ditu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen parte-hartze eta antolakuntzarako espazio desberdinek administrazioarekiko (izan) dituzten harremanak aztertzea

HELBURU ZEHATZAK:


- Gazteen parte-hartze eta antolakuntzarako dauden espazioak ezagutu eta aztertu
- Espazio hauen eraketarako gazteek eta administrazioek bideratu dituzten prozesuak ezagutu
- Prozesuen nolakotasuna aztertuko duen gazte talde bat eratu

- Gatazkari modu positiboan aurre egin dioten prozesu parte-hartzaileak azalarazi
- Kohesio sozialaren aldeko gomendio txosten bat garatu

Garapena

Martxoa hasieran Gazterpe lantaldeari eman zitzaion hasiera. Proiektuaren difusioa egin zen modu desberdinetan, adibide dira irratian egindako agerraldiak, hala nola, maiatzaren 2an Onda Vascan egindakoa.

Lantaldea hilean behin batu da gai hau jorratzeko. Bilera horietan prozesuen



adibideak ezagutu, zalantzak adierazi eta proposamenak egin dira. Prozesuen gaineko zalantzak agertzean herri zehatzetako Gazteria Teknikariek jarri da harremanetan EGK-ko Parte-hartze Teknikaria. Gainera, azaroaren 10ean Bermeoko Teknikaria EGK-ko bulegora hurbildu zen lantaldearekin egotera eta herri honetako esperientzia kontatzera.

Informazio guztia batuta eta lantaldeak sortutako diskurtsoarekin batera Parte-hartze Teknikariak gomendio txosten bat prestatu du eta horrekin batera Udalerrii aholkularitza eskaintzeko protokoloa.

Memento honetan, txostena maketazio prozesuan dago, hala ere, aurreratu dezakegu ondorio nagusia. EGK-k lokalen erabilera onerako gomendioak luzatzea eskatzen die administrazioei. Administrazioen ardura da gazteen segurtasuna bermatzea baita gazteen parte-hartzea sustatzea. Horregatik, administrazioek parte-hartzerako espazioak erraztu edota sustatu behar dituzte.

Ebaluazioa

Txostena amaitzearekin batera EGK-k beharrian berrien identifikazioa egin du. Kasu honetan, udalerrii aholkularitza egokia emate aldera prozesu parte-hartzaileetan gazte eta administrazioen artean suertatu daitezkeen gatazkak modu baketsu batean bideratzeko gida baten falta ikusten da.

3.4. GAZTEOLINPIADAK

Kirolarekin zerikusia duen gazteen elkartegintza nabarmen handitu da azken urteetan. “Gazteak eta parte-hartzea Euskadin” ikerketaren ondorioei erreparatuz gazteen partaidetza handiena kirolean ematen dela esan daiteke, kirol elkarte baten bazkide delako edota jokalaria edota boluntarioa delako.

2015ean GazteOlinpiaden ospakizunaren bitartez kirola gazteen partaidetza eta ongizaterako erreminta paregabea dela ikusi da. Batez ere, kolektibo baztertuen aldeko ekimen barne-hartzaile bat antolatzen denean.

2016an gazteek ekimenean parte-hartzeaz gain ekimena bera antolatu dezaten prozesua bideratu da. Bilboko Udalarekin elkarlana sustatu da, aurreko urtean izandako esperimentziaren bitartez aholkularitza bideratu eta gazteen parte-hartzea sustatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

GazteOlinpiada lehiaketak gazteen parte-hartzerako ondorioak eta gomendioak jasotzea du helburu. Horretarako kirola tresna gisa erabiliko da, eta dinamika baten bitartez kirolak dituen balio parte-hartzaileak zein beste proposamenak lortuko dira.

HELBURU ZEHATZAK:

- Kirola parte-hartze modu bat bezala erakustea eta garatzea
- Kirolaren bitartez balio parte-hartzaileak bultzatzea
- Dinamiken baitan, gazteen iritziak eta proposamenak jasotzea, parte-hartzearen inguruko ondorioak eta gomendioak proposatu ahal izateko
- Gazte mota guztientzako ekitaldi barne-hartzaileak izatea
- EGKren sozializazioan laguntzea

Garapena

Gazteolinpiarrek lantaldea: gazteak GazteOlinpiaden antolatzaile nagusi izan zitezen helburuarekin batera lantaldea sustatu zen eta honekin, hainbat funtzio banatzeko saiakera egin zen ere.

Dinamikak

Bilbo ibiltzera goaz: Ekainaren 25ean, Kale Dor Kayiko Elkarteko gazteekin behaketa parte-hartzailea garatu eta ebaluatzeko irizpide batzuk zehaztu eta praktikan jarri ziren.

Eztabaida taldea: Uztailaren 13an, Ellacuria Fundazioko gazteekin eta Bigite Elkartarekin batera eztabaida talde bat antolatu zen beharizan ekonomikoak dituzten gazteen zailtasunak mahai gainean jarri eta proposamenak eraikitzeko.

Inkesta: Sare sozialen bitartez zabaldutako galdetegiari esker emakume gazteen, aniztasun funtzionala duten gazteen eta beharizan ekonomikoak dituztenen kirol parte-

hartzea errazteko asmoa duten hainbat proposamen jaso dira. Inkestak 37 erantzun jaso ditu.

GazteOlinpiadak: Urriaren 1ean Bilboko San Inazio Kiroldegian eginiko jarduera parte-hartzaile eta gaztea da. Kirola ardatz izanda aniztasuna bilatzen duen ekimen honek gazteok kirolean aritzeko ditugun proposamenak kontrastatzeko balio izan du. Horrez gain, gazteoi kirol egokituak ezagutzeko eta probatzeko aukera eman digu.

Bertaratutako gazteak 40 bat izan ziren. ONCE gazteak eta ESN Bilbao elkarteko gazteen parte-hartzea bereziki aipagarria da.



Ebaluazioa

Ekimenaren bitartez 72 proposamen batzea lortu da. Kirola ardatz izanda zenbait kolektiboren irisgarritasuna eta parte-hartzea hobetzeko saiakera da.

Bestalde, EGK ezagutzera emateko ekimen paregabea da, esan bezala 40 bat gazte batu zituen goiz bakarrean eta egin zuten ebaluazioa positiboa izan zen. Egindako ekimenetan parte-hartu zuten gazte guztiak zenbatuz gero 85 bat izan direla esan dezakegu.

3.5. GAZTEOK ETA PARTE-HARTZE POLITIKOA

Alderdien bidezko partaidetza politikan aritzeko aukera bat da. Hala ere, ez da bide bakarra, gizarte eragileetatik edota norbanako interesetik ere posible da erabaki politikoetan zeresana izatea.

2016ean Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak direla eta 2015ean antolaturiko #GaztEztabaidaren formatua errepikatu egingo da. Gazte asko hurbiltzen da ekimenera eta gazteentzako interes handikoa izan dela esan daiteke. Baliabide komunikatiiboak (Whatsapp eta Twitter) zabalpenean ez ezik gazteen parte-hartzean eragin handia izan du.

Twitter bidez urteko plangintza berrirako egiten diren proposamenei entzunda gazteriaren ikuspegitik alderdiek dituzten proposamenak aztertu dira. Horretarako alderdiei informazioa eskatuko zaie, eta hortik abiatuta gazteei zuzendutako politiken laburpen bat egin da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

2016eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak direla eta, ordezkari politikoak eta gazteak elkartzea da ekintza honen helburua. Modu horretan gazteek ordezkarien eta hautagaien aurrean hitza hartzeko aukera izango dute. Bere aldetik, eragile politikoek ere gazteei euren proposamenak eta erantzunak emateko testuinguru aproposa edukiko dute.

HELBURU ZEHATZAK:

- Parte-hartze politiko-elektoral bultzatzea gazteen artean
- Gazteen eta ordezkari politikoaren arteko elkarbizketa sustatzea
- 2016ko hauteskundeetarako dauden aukera eta ideia ezberdinak zuzenean ezagutzeko aukera izatea
- Gazteek euren proposamenak, kritikak galderak plazaratzeko aukera ematea

Garapena

GaztEztabaidari proiektuari lotuta hiru ekimen agertzen dira:

Programak tauletan: Alderdien hauteskunde programa laburtzea eta ezagutzera ematea helburu duten taulak sortu eta webgunean publikatu ziren. Taula hauen berezitasuna gazteei bideratutako proposamenak biltzen dituela da. Programak ahalik eta modu zintzoenean laburtzeko helburuarekin abuztuaren 17tik irailaren 8ra gazte taldeekin batu zen Parte-hartze Teknikaria. Alderdi politikoaren gazte talde batzuk EGKren parte dira beste batzuk ez, Podemos eta Ciudadanos-eko gazteak dira horien adibide. Batzar horietan EGKn sartzeko gonbidapena egin zitzaion. Taulak ikusteko sakatu [lasterbidea](#).

Nola parte-hartu legebiltzarrean: Herritarrok Legebiltzarrean parte-hartzeko moduak batu eta laburbiltzen dituen dokumentua da. Txostenaren helburua legebiltzarrearen gaineko zalantzak argitzea eta bertan parte-hartzeko moduak ezagutzeko da, informazioa baita parte-hartzeko lehenengo pausua. Txostena irakurtzeko sakatu [lasterbidea](#).

GaztEztabaida: Aurten Leioako fakultateko areto nagusian egin da “Lan Harremanak eta Gizarte Langintzako” dekanorekin eta Ikasle Kontseiluarekin batera. 80 bat gazte hurbildu ziren bertara Oinarrizko Errentaren gaineko eztabaida entzun eta bertan parte-hartzera. #GaztEztabaida traola trending topik bihurtu zen berriro ere. Eztabaida ikusteko, sakatu [lasterbidean](#).

Ebaluazioa

Taulei dagokionez ebaluazio positiboa egiten da. Lehenengo urtea da horrelako laburpen bat egiten dela eta hainbat izan dira taulak ikusi, deskargatu eta irakurri dituzten gazteak.

Legebiltzarrean parte-hartzeko moduak aurkezten dituen txostenaren gaineko ebaluazioa positiboa da ere. Tresna erabilgarria izateaz gain, hurrengo urteetan osatzeko aukera ematen du. Hori horrela egiten bada udal, foru eta europar hauteskundeek gaineko erreferentziatzko txosten bat osatzea lortuko da.

GaztEztabaidari dagokionez, ohiko gazte kopurua hurbildu zen. Dinamika zurrunagoa izan zen eta parte-hartzeko aukerak asko murriztu ziren unibertsitatearekin egindako koordinazioan arazoak egon zirelako. Gainera, areto nagusia handiegia suertatu zen hurbildutako gazte kopuruarekin konparatuta.

3. 6. GAZTE ERAGILEEKIN ZUZENKO HARREMANA

3.6.1. MATERIAL ETA GELEN LAGAPENA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren material eta gelen lagapen zerbitzua eskaintzen zaie gazte talde eta parte-hartzerako ekimen ezberdinei. Zerbitzua hobetzeko prozedura estandarizatua 2014an abiatu zen eta ordutik Parte-hartze arloak koordinatzen du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren elkarteei eta beste eragileei gelak eta materialak maileguan eskaintzea, gazte elkartegintzarekin eta eremu parte-hartzaileekin harremanak sortuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko materialak eta gelak lagatzea.
- Indarrean dagoen prozedura estandarizatua jarraitzea.
- Egindako lagapenei jarraipena egitea eta zerbitzua bultzatzea.

- Lagapenaren bitartez harremanak eta elkarrekiko konfiantza sortzea, EGK eta gazte eragileen arteko sarea eraikiz.

Garapena

Urte hasieran prozedura estandarizatu eguneratu zen eta ondoren, webgune berriarekin batera EGKren estilo berrira moldatu zen. Horrez gain, material berriak sartu dira lagapen zerrendan, hiru esekileku eta tripodea, hain zuzen ere.

2016an EGK-k elkarte hauen eskaera erantzun du:



- 2016/02/12-15 Gurutze Gorria elkarteko gazte taldeari soinu ekipoa laga zaio.
- 2016/03/07-09 Gurutze Gorria elkarteko gazte taldeari soinu ekipoa laga zaio.
- 2016/03/16 SARE elkarteko gazte taldeari Donostiako gela laga zaio.
- 2016/04/07 EAPN sareko gazte taldeari Bilboko gela txikia laga zaio.
- 2016/04/15 Gasteizko ikasle bati grabagailua laga zaio.
- 2016/04/20 SARE elkarteko gazte taldeari Donostiako gela laga zaio.
- 2016/06/11 Betti Gotti euskara elkarteari Donostiako gela laga zaio.
- 2016/09/24 AFS Euskal Interkultura elkarteari Bilboko gela handia laga zaio.
- 2016/10/23tik 2016/11/02ra AVIEM elkarteari proiektorea laga zaio.
- 2016/12/10 Euskal Interkultura elkarteari Bilboko gela handia laga zaio.
- 2016/12/29 ADICAE elkarteari Donostiko gela laga zaio.
- 2016/12/29tik 2017/01/09ra "tu risa mi sonrisa" elkarteari Bilboko proiektorea laga zaio.

Ebaluazioa

2016an material eta gelen mailegu zerbitzua bere horretan mantendu da. Zerbitzuaren onuradunak EGKren parte diren elkarteak zein EGKren parte ez diren elkarteak izan dira. Materialak edo gelak maileguan hartzeko gazte eragileek edota gazteek webgunean dagoen formularioa ([ikusi webgunean](#)) bete egin behar dute. Behin hori eginda EGK-ko Parte-hartze Teknikaria harremanetan jartzen da eskatzailearekin, lagapena zehazteko. Webgune berriarekin batera formularioaz gain, materialen katalogoa, gela edota materialak eskatzeko jarraibideak eta fidantzen zerrenda eskuragarriagoak dira.

2015ean bezala, maileguan ematen diren materialak eta gelak jarraipen orri batean apuntatzen dira eta Parte-hartze Teknikariak guzti honen koordinazioa eramaten du. Prozedura estandarizatu honi esker, zerbitzuaren kalitatea hobetzea lortu da. Honekin batera, beharrezko aldaketak eta hobekuntzak egin dira.

Prozedurari esker zerbitzu honen kudeaketa ona izan da, bai EGKrentzat, bai eskatzaileentzat. Zentzu honetan, lagapen guzti-guztietan fidantzak jaso eta itzuli dira, lan hau Idazkaritzarekin elkarlanean egin da.

Hemendik aurrera helburuak hurrengoak izango dira: prozedura mantentzea eta eguneratzea, mailegu zerbitzua ezagutzera ematen jarraitzea eta lagapenak eragile gehiagorengana heltzea.

3.6.2. GAZTE ERAGILEEI AHOLKULARITZA ETA PARTE-HARTZEAREN SUSTAPENA

2016an gazte ezberdinei aholkularitza eskaini zaie. Ekimen eraginkorra izateaz gain, gazteei aholkularitza emateko gaitasunak zentzu praktikoa eta ulergarriagoa ematen dio EGK bezalako erakunde bati. Lan hau gauzatzeko teknikari guztiak inplikatu dira.

Gainera, Parte-hartze arloak gazte eragileekin zuzeneko harremanari ekin zion.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren elkarteei eta beste eragileei gelak eta materialak maileguan eskaintzea, gazte elkartegintzarekin eta eremu parte-hartzaileekin harremanak sortuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko materialak eta gelak lagatzea
- Indarrean dagoen prozedura estandarizaturik jarraitzea
- Egindako lagapenei jarraipena egitea eta zerbitzua bultzatzea
- Lagapenaren bitartez harremanak eta elkarrekiko konfiantza sortzea, EGK eta gazte eragileen arteko sarea eraikiz

Garapena

AHOLKULARITZA

EAEn hainbat gazte elkarte eta gazte eragileek EGK-ko lan taldearen aholkularitza jaso dute. Gai desberdinen gaineko informazioa eskuratu dute honi esker, besteak beste, astialdia, enplegua, berdintasuna, etxebizitza eta parte-hartzea. EGKn sartzeko prozedurari lotutako zehaztasunak ere argitu dira.

Gazteek EGKra jotzen dute hainbat zalantzekin. Zalantza batzuk, betiko zerbitzuen gainekoak dira, hala nola, astialdiko ikastaro eta udako ekintzen gainekoak. Beste batzuk ordea, EGK-k lantzen dituen gai berriei dagokie. Zentzu honetan, azpimarratzekoa da izaera sexualeko delituen gainean jasotako aholkularitza eskaera handia.

Gune Anitza zigiluak eta horri lotutako manifestuak ere zenbait aholkularitza eskakizun izan ditu.

Enpleguari dagokionez, langabezian dauden gazteek laneratzeko ikastaroak jasotzeko irizpideengatik galdetu dute. Atzerrian egon diren gazteen kasuan itzultzean dituzten zalantzak argitzeko aholkularitza eskatu dute (kotizazioak...).

Hainbat izan dira ere, alokairuan bizitzen joateko laguntzengatik galdetu duten gazteak.

Gainera, 2015ean “Gazteak eta parte-hartze soziala Euskadin” ikerketari jarraipena ematen dion eta izen bera duen bideoa 2016an zabaldu da eta hainbat aholkularitza eskaintza jaso ditu. Zentzu honetan, azpimarratzekoa da Gaztematikak bideoaren oihartzunean lagundu duela horri esker bideoak 300 ikustaldi izan dituela. Bideoa ikusteko sakatu [lasterbidean](#).

Aholkularitza eskatu duten kolektiboen izenak hauek dira:

- Parte Hartuz ikerketa taldea
- Urnietako gaztelekua
- Errespetutxoz elkarte
- Bizigay elkarte
- Norbanako gazteak
- Gazteen gaien inguruan interesa duten beste pertsonak (gurasoak, irakasleak, etab.)

EGKREN KIDE IZATEKO AHOLKULARITZA

Parte-hartze Teknikariaren funtzioetako bat gazteen elkarteei EGKn sartzeko aukera helaraztea da. Horretarako bi bide daude, elkarteak eskaera egitea edota EGK-k elkartearen garrantzia identifikatu eta gero EGKn sartzeko eskaintza egitea.

Elkarteei begira kide izateko bi modu daude: eskubide osoko kide izatea edota kide sogilea izatea. Eskubide osoko kidea den elkarte Batzorde Iraunkorreko kide izateko eskubidea dauka baita Batzar Orokorrean hitz egin eta bozkatzeko eskubidea. Sogilearen kasuan, batzarrera joan eta hitz egin dezake baina ezin du bozkatu ezta Iraunkorraren parte izan.

Bestetik, EGK-ko lantaldeetan parte-hartzeko aukera eta EGK-ko ekintzetara etortzeko aukera zabalik dago elkarte eta gazte guztientzat. Aukera hau oso garrantzitsua da batez ere elkartuta ez dauden gazteentzat.

EGKn aholkularitza jaso eta gero kide diren elkarten zerrenda Presidentziaren atalean dago. EGKn sartzeko aholkularitza jaso duten baina oraindik sartu ez diren elkarteak:

- Alboan
- Kaebnai
- Atara Zarata
- Ekhitarrak

EGK-ko lantaldeetan eta ekimenetan parte-hartzeko gonbidapena gazte gipuzkoar guztiei luzatu zaie.

ZUZENeko HARREMANA PARTE-HARTZE ETA BOLUNTARIOTZAREN ALDEKO SAREEKIN

EGK-k gazte eta gazteen elkarten parte-hartzea sustatzeko sareetako kide izateko helburua dauka. Batetik, aholkularitza eskaintze aldera eta bestetik, gazteen parte-hartzea eta boluntariotza merezi duen aitorpena izan dezan.

Sareginez:

Horregatik hain zuzen ere EGK Sareginez plataforma gipuzkoarraren parte da. Gipuzkoarren parte-hartzea eta boluntariotza sustatzen duten elkarten sare honetan EGK-k paper aktiboa dauka. Sarea osatzen duten elkarteekin batera, hala nola, Gizalde, Gurutze Gorria, Kaebnai, DYA Gipuzkoa, Caritas Gipuzkoa, Nagusilan, InterRed, Surfrider eta Atzegirekin urteko plangintza bat adosten du. Bertan hiru helburu nagusi islatzen dira: boluntarioekiko esker ona, elkarten formakuntza eta boluntariotzaren ikusgarritasuna.

Horretarako hainbat ekimen planteatzen dira urtean zehar. Aurtengo plangintzari dagokionez, aurrera eraman dira formakuntza saioak, boluntariotza azoka eta boluntarioei esker ona adierazteko kanpaina. Plataformako kideekin koordinatze aldera hilabeteen behin antolatzen diren batzar ia guztietan parte-hartu du Parte-hartze Teknikariak.



Ohiko batzarretan egoteaz gain, Sareginez plataformak aholkularitza eskaerak izan dituenean EGK-k horiek argitzen parte-hartu du. Adibide dira, Xabier Bañuelos Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren 2016ko ikerketarako antolatutako lan taldean parte-hartzea edota 2017ko erronkak lantze aldera Ramon Andrinuari, Jaurilaritzako teknikaria, egindako harrera.

Ebaluazioa

Jaso ditugun aholkularitza guztien ondoren esan dezakegu EGKren lana ezaguna dela eta zenbait gaitan erreferente bihurtzen ari dela. Adibidez, izaera sexualeko delituen kasuan argi ikusten da hori. Adingabeekin aritzen diren elkarteak EGKrengana jo dute behin eta berriz aldaketen berri izateko eta prozeduraren gainera zalantzak argitzeko.

Norbanako gazteen eta gazteen gurasoen kasuan, Donostiako bulegoak aholkularitza gutxien dituen bulegoa da. Arrazoi nagusia bertara sartzeko zailtasuna da izan ere, tinbrea jo eta lehenengo pisura igo behar da. Aldiz, Gasteizen eta Bilbon errazagoa da sartu eta galdetzea bulegoak beheko pisuetan daudelako. Zentzu horretan, egin diren aholkularitzak telefono eta e-posta bitartekoak izan dira.

EGKren kide izateko aholkularitzaren kasuan, sartu ez diren elkarteak 2017an kide egiteko aukera aztertzen ari dira. Horrekin batera, interesgarria ikusten da EGKren parte izateko aholkularitza zeharkakotasunez lantzeaz gain epe zehatzetan indarra jartzea horretan eta modu batean edo bestean prozesu hori estandarizatzea.

Sareginezen parte-hartzearen gainera ebaluazioa positiboa da. Espazio horretan Gipuzkoan eragina duten elkarteak ezagutu eta egiten dituzten ekintzen berri izateaz gain modu koordinatu batean gazteen ikuspegitik boluntariotza lantzeko aukera ematen duelako.

3. 7. ERAKUNDE PUBLIKOEKIN ELKARLANA

EGKren zereginetako bat gazte eragileen eta erakunde publikoen arteko zubi-lana izatea da. Euskadiko administrazioek paper garrantzitsua jokatzen dute gazteen parte-hartzearen arloan eta euren laguntza, kooperazioa eta kudeaketa elkarbanatua ezinbestekoa da proiektuak errealitateak bihurtu ahal izateko

Harreman instituzional honek seriotasuna eta zilegitasuna ere ematen dio EGKri, eguneroko lanak babes ofiziala jasotzen duen neurrian. Zentzu honetan, etorkizunari begira oso modu baliagarria izan daiteke proiektu berriei bideragarritasuna emateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Lortutako harreman instituzionalak mantentzea eta harreman berriak ahal den neurrian garatzea, parte-hartzearen berezko ikuspegitik. Praktikara eramateko bideak (proposamen praktikoak) aztertzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Eusko Jaurlaritzarekin harremana sakontzea (GEB barne).
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eta Foru Aldundiekin harremanetan jarraitzea. Ahal den neurrian, Aldundi bakoitzak duen berezko eskaerak bideratzea.
- Beste mailako erakundeei gurekiko harremana izatea eskaintzea.

Garapena

ERAKUNDE PUBLIKOAK:

Eusko Jaurlaritza:

Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroko Hiritarren parte-hartze, Kultura eta Sentsibilizazio Batzorde Iraunkorra:

Parte-hartze teknikaria gonbidatua izan zen ekainaren 16an bertaratzera aholkularitza emateko helburuarekin. Helburua gazte etorkinen parte-hartzearen gaineko errealitatea izanik Foroak EGKren parte-hartzea interesarri ikusi zuen gaia lantzen duen bitartean. Hori horrela, urriaren 6an egindako batzarrean egon zen Parte-hartze teknikaria, jada EGK Foroaren kide zela.

AFA

AGORA: Parte-hartze teknikaria 2016ko urtarrilak 21ean egin zen aurkezpen dinamikan egon eta parte-hartu zuen.

2017ko Hitzarmena: Joseba Koldo Perez de Heredia eta Agustina Hormias-ekin batera egindako batzarrean egon ziren EGK-ko Presidenta eta Parte-hartze teknikaria. Batzar hau azaroaren 24an izan zen eta 2017ko Hitzarmena aztertzea zuen helburu.

Arabako Batzar Orokorra:

Manu Rezola, EH Bilduko ordezkaria batzarra eskatu zien Presidenta eta Parte-hartze teknikariari urtarrilaren 12an, Gazteriaren Foru Erakundea berritzeko asmoarekin.

Juanjo Celorio-k, Podemos alderdi politikoaren ordezkaria, gazteen arazoek gaineko galdera batzuk egin behar zituela eta Parte-hartze teknikaria gonbidatu zuen entzutera uztailaren 10ean. Azkenean, segurtasun arazoak zirela eta sarreran arazoak izan zituen teknikariak eta sartzeari ezinezkoa izan zen.

Gasteizko udala:

Gazteria Elkargunea: Parte-hartze teknikaria Gazteria Elkargunean parte-hartzeko deitu diren batzar guztietan.

Gasteiz Gaztea: Parte-hartze teknikaria IV. Gazte Plana eraikitzeko jardunaldiaren prestaketan parte hartu du. Parte-hartzearen gaineko blokearen prestaketa eta dinamizazioan lagundu du. Horretarako, hainbat koordinazio batzar izan ditu udaleko gazteria teknikariekin batera.

IV. Gazte Planerako proposamenak: Parte-hartze teknikariak Gazte Planaren Hiritartasuna izeneko atalean landuko diren proposamen batzuk helarazi ditu. Horrez gain, urriaren 18an antolatutako topaketara bertaratu zen Hiritartasun ataleko lehentasunak markatzea helburu zuen topaketara.

BFA:

Gizarte Ekintza: Maiatzaren 18an, EGK-ko Presidenta eta Parte-hartze teknikaria Gizarte Ekintzako Gabin Alzolarekin batera bildu ziren aholkularitza emateko.

Bizkaiko Behatokia: Esti Biguri gazteria teknikariarekin batera hainbat koordinazio batzar izan ditu Parte-hartze teknikariak, adibide dira: uztailak 8, irailak 14 eta urriak 27ko batzarrik. Batzar hauetan hitzartutako proiektuen jarraipena egin da.

Bilboko udala

Parte-hartze teknikariak Bilboko Udalak sustatutako hainbat prozesutara hurbildu da. Adibide dira otsailaren 13an Bilborock zaharberritzeko prozesuan izandako parte-hartzea eta azaroaren 17an HAPO-aren gainean jardun zuen Gaztetalk-a.

Maiatzaren 6an, EGK-ko Presidentarekin batera GazteOlinpiadak proiektuaren koordinazioa egiteko Bilboko Udalera hurbildu zen.

Ebaluazioa

Koordinazio lanaren garrantzia hain handia izanik honetan indarra jartzen jarraitzeko helburua mantentzen da.

3. 8. EGUNEROKOTASUNA

Arlo bakoitzaren lan zehatzetatik aparte, teknikarien lan taldeak egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar du: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; materiala, dokumentazioa, eskutitzak, e-postak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarritzko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu; lankide berrien hautaketa-prozesuetan parte hartu e.a.

Helburuak

Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eramatea.

Garapena

Aldiro, Parte-hartze Teknikariak harremana izan du boluntariora agentziekin. Sortu berri den Batekin, Gizalde, Boluntarekin. Azpimarratzekoa da apirilaren 28an Jolas eta ekin elkartearekin batera egindako hitzaldia Bizkaiko boluntariora ferriako hitzaldi bakarra izan zela, beste guztiak bertan behera geratu ziren. Gasteizko boluntariora ferriari dagokionez, EGK-k ez zuen bertan parte-hartu baina ekimena ezagutzera eta harremanak egitera hurbildu zen.

2015ean publikatutako txostenen jarraipena egin eta eskatu den aholkularitza eman da. Adibide dira “gazteak eta parte-hartzea Euskadin” eta “gazteen lan mugikortasuna eta itzulera” dokumentuei egindako jarraipena.

Urtean zehar hainbat formakuntza saio jaso ditu Parte-hartze Teknikariak, adibide dira Berdintasun arloan egindakoa eta Komunikazio gaitasunak garatzeko formakuntza.

Parte-hartze Teknikariak lankideen proiektuetan lagundu du ere, adibide dira “emakumeak eta enplegua” Hiriburuan egindako dinamizazio lana, azaroaren 8 Berdintasuna zertarako proiektuan egindako dinamizazioa eta “#Izanzualdaketa” boluntariora kanpainari egindako ekarpenak.

Parte-hartze arloko ebaluazio orokorra egiteko Deialdi Irekia zabaltzeaz gain, Parte-hartze Teknikariak aspaldiko partez egiten ez zen EGKren urteko ebaluazioa abiatu du. Formulario baten bitartez EGK-ko elkarteei ebaluazio orokorra egiteko aukera eman zaie.

Beste ekimen batzuk:

Urteko Batzar Orokorraren prestaketa lanak: lekua bilatu, Gasteizko El Pilar gizarte etxea erreserbatu, beharrezko teknologiaren funtzionamendua baieztatu, beharrezko materialak eraman...

Apirilaren 13an EHUKo Magisteritza eskolako irakasle batek EGK deitu zuen eta Parte-hartze Teknikaria bertaratu zen aholkularitza eta parte-hartze bideak azaltzera.

Maiatzaren 6an, Parte-hartze Teknikariak 16 urteko gazteen bozkaren gainean hitz egin zuen Euskadi Irratian eta neurria gazteen protagonismoa eta eragiletzan laguntzen duela defendatu zuen.

Maiatzaren 10ean, EGK-ko Parte-hartze Teknikariak Innobasqueko sozializazioa eramaten duen langilearekin batera batzarra izan zuen, elkar ezagutzeko.

Ebaluazioa

Boluntarioritza agentziekin egindako elkarlanaren garrantziaz ohartuta harremana mantendu eta indartu beharko da. Batez ere, Batekin agentzia berriarekin.

EGK-ko elkarteekin eta EGK-ko elkarteak ez direnekin harremana hobetze eta sakontze aldera ekimenari berezko entitatea eman beharko zaio eta prozedura bat aurreikusi, irizpideak ezarri beharko dira ere ondoren ebaluatu ahal izateko.

Urteko ebaluazioa EGK-ko elkarteei zabaltzeko saiakera begi onez ikusten da. Hori dela eta, 2017ko azaroa aldera berriz egitea komenigarria litzateke. Ohitura hau Parte-hartze Teknikariaren funtzioa bilakatze aldera prozesua estandarizatu beharko da.

4. BAKEA

4.1. SETON HALL UNIBERTSITATEKO IKASLEEKIN ESPERIENTZIA-TRUKEA

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gazteek memoria, kontakizuna eta iraganarekiko duten ikuspegia anitza izateko, Seton Hall unibertsitateko (AEB) ikasleekin esperientzia-trukea antolatu da Bilbon. Bi ikasle taldeek maila pertsonalean elkar ezagutzeko aukera izan duten bitartean, gaiarekiko ikuspuntuak partekatu eta alderatzeko tarteak eduki dute ere. Gazteon bizipenak partekatu dituzte batez ere, hau da: diskurtso akademikotik aldendu eta egunerokotasunean ikusi, entzuten eta sentitzen dutenaren gainean hausnartu dute.

Helburuak

- Gazteek memoria sozialaren kudeaketari dagokionez hainbat esperientzia partekatzea eta ondorioz, memoria soziala kudeatzeko erremintak bereganatzea.
- Gazteek bakea eta bizikidetzaren esperientziak partekatzeko gune erosoak sortzea.
- Gazteek bakegintza prozesuan protagonistak direla eta zer esan badutela sinetsaraztea.

Garapena

SORRERA:

EGK-ko bake ekimenetan parte hartu duen ikertzaile gazte batek bakea eta bizikidetzarekin lotutako tesia burutzen ari da EHUn. 2015eko udazkenean, bere tesiaren tutoreak Seton Hall unibertsitateko Diplomazia ikasle talde baten eskakizuna jaso zuen: EAEEn memoria, kontakizuna eta iraganaren kudeaketa nola lantzen zen jakitea. Horretarako, Euskadira ezagutza bidaia antolatu nahi zuten. Ikertzaile gazteak bidaiaren programa diseinatzeko ardura hartu zuen eta eragile desberdinekin harremanetan ipini zen, besteak beste Bakea eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia eta EGKrekin.

PLANTEAMENDUA:

2015eko abenduan egindako batzorde batean EGK-k eta ikertzaile gazteak jardunaldiaren xehetasunak erabaki zituzten: helburuak, metodologia, gutxi gorabeherako partaide kopurua, zabalpena egiteko bideak, etab.

URTARRILAK 9:

EAEko gazte-taldea eta Seton Halleko ikasle-taldearen arteko esperientzia-trukea urtarrilaren 9an burutu zen Bilbon. Guztira hemezortzi gazte hurbildu ziren bertara: zazpi

AEBkoak eta gainerakoak EAEkoak. Topaketa bi zatitan banatuta zegoen. Lehenengoan, ordubetez, Bilboko alde zaharrean dagoen taberna batean elkarrekin pintxoak hartu zituzten. Era honetan, ezagutzen ziren bitartean, bazkaltzeko aprobetxatu zuten eta gertuko giroa errazago sortu zen, ondoren aurrera eramango zen dinamika emankorrakoa izan zedin. Bigarrenagoz, BilboRockeko LAB gelatxoan ordu eta erdiz hausnarketa trukea egin zen. Bikoteka edo hirukoteka banatuta (ingeles-gaztelania mailaren arabera), hurrengo gaiak landu ziren. Gai bakoitza lantzeko hamar bat minutu zituzten eta ondoren beste hamar bat talde egintzarekin hitz egindakoa partekatzeko:

- Norbanakoaren memoria, memoria soziala, memoria historikoa eta historia kontzeptuak: definizioen arteko berdintasunak eta desberdintasunak aztertu.
- Noiz hasi gara memoriari arduratzen eta zergatik?
- Zeintzuk dira memoria ezagutzeko gaizteak gure esku ditugun errekurtsoak?
- Memoria-politiken gaineko ebaluazioa.

Ebaluazioa

- Ekimenean parte hartzeko ingeles maila eskatu arren, bertako gazte dezente animatu dira parte hartzera.
- Bai landutako gaiak, bai metodologia parte hartzailea oso harrera eta iritziz positiboak jaso dituzte bi gazte taldeen artean.
- Seton Halleko ikasleek asko eskertu dute EAEko gazteen errealitatea dinamika parte hartzaile baten bitartez ezagutzea (ohiko hitzaldietatik aldentzea, alegia).
- EAEko gazteek bakea eta bizikidetzaren gaiak jorratzeko beste lurraldetako eta kulturetako gazteekin topaketak sustatzea eskatu diote EGKri.
- Hurrengo urtearen hasieran zabalduko den liburuxkaren atal batean, gazteek topaketa honetan egindako hausnarketak kontsultagarri egongo dira.

4.2. **BAKEHIZKETAK** TOPAKETA: DOKUMENTALA ETA DINAMIKA PARTE-HARTZAILEA

EAEko gazteei, komunikabideei, instituzioei eta gizarteari 2015eko urrian burututako Bakehizketak proiektuaren ondorioak helarazteko asmoz, dokumental labur bat sortu eta aurkezpen publiko bat egin da. Ekitaldi honetara Bakehizketak barnetegira etorri ziren eragile eta gazteak gonbidatu dira, eta beste horrenbeste eragile eta gazte berri. Gainera, dokumentala ikusi ostean, dinamika parte-hartzaile bat burutu da, non gazteek etorkizun baketsu baten aurrean dituzten erronkak identifikatu dira.

Helburuak

- Bakehizketean esperientzia eta bertan hausnartutakoa gizarteari, eragile desberdinei eta komunikabideei helaraztea.
- Gazteek bakegintza prozesuan protagonistak direla eta zer esan badutela sinetsaraztea.
- Belaunaldien arteko isiltasunak gainditzea eta elkarren artean hausnartu eta solastea.
- Gazteek oraina eta etorkizunerako bakearen aurrean dituzten erronkak definitzea.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Garapena

ANTOLAKETA:

Bakehizketak barnetegiarekin lortutako ebaluazioa ikusita (bai gazte parte-hartzaileen partez, bai gonbidatu ziren eragileen partez), EGK-k bertan grabatutako ikus-entzunezko material guztiarekin bideo bat egitea erabaki zuen, dokumental labur bat, alegia. Dokumental hau aurkezpen publiko batean proiektatzeko leku aproposak bilatzen hasi zen, baita azpiegitura aldetik beharko zituen gauza guztiak prestatzen ere. Bilboko udalak Bakehizketak proiektuan zeukan interesa zela eta, Azkuna Zentroko gela bat erraztu zion EGKri. Gainera, egun horretan bertan, dinamika parte hartzaile bat egitea erabaki zen, proiektu honi etorkizunera begira jarraipena emateko. Dinamika parte-hartzaile horretan gazteriak etorkizun baketsu baten aurrean dituen erronkak identifikatu beharko ziren.

ZABALPENA:

2015eko abenduan, urriko asteburura etorri ziren gazte eta eragileekin hitz egin zen aurkezpenera gonbidatzeko. Eta urtarrilean eragile berri anitz gonbidatu ziren. Bestetik, EGK-k bere baliabideak erabilia deialdia gazte-elkarte eta gazteen artean zabaltzeko egin zuen. Horrekin batera, sare sozialetan, interesa pizteko kanpaina bat egin zen: urtarilaren hasieratik, astero, dokumentalarekin lotutako bideo motz bat zabaltzen zen, asteburu horretan landutako bost gaiekin lotutakoa. Gainera, komunikabideetan proiektuaren gainera interes handia zegoen eta EGKra jo zuten elkarrizketak eta erreportajeak egiteko informazioaren eske.

OTSAILAK 12:

Otsailaren 12an, Bilboko Azkuna Zentroan Bakehizketak dokumental laburraren aurkezpen publikoa egin zen. Bertara ehun bat lagun gerturatu ziren, erdia baino gehiago gazteak. Ekitaldia bi zatitan banatuta zegoen. Lehenengo zatian, Bakehizketak proiektua azaldu, dokumentala ikusi, asteburuan parte hartu zuten lau gaztek euren esperientzia azaldu eta entzuleen aldetik galderak egiteko aukera egon zen. Bigarren zatian, taldea apur bat txikitu zen: aurkezpen publikoa irekia baitzen eta dinamika parte-hartzailea, berriz, izena eman zuten gazte eta eragileentzat. *Consenso escalonado* metodologia erabilita, eragile eta gazteen artean sortutako taldeek (hamar guztira) gazteriak etorkizun baketsu baten aurrean dituen lau erronkak identifikatu behar zituzten. Guztira, berrogei erronka identifikatu ziren eta saioari amaiera emateko talde bakoitzeko ordezkariak eurentzat erronka esanguratsuena zena gainerakoekin partekatu zuen.

Ebaluazioa

- Urrian Bakehizketak barnetegian parte hartu zuten gazte eta eragile gehienak otsaileko topaketara hurbildu dira. Baita gazte eta eragile gehiago ere.
- Topaketaren aurretik, egun berean eta ostean, komunikabideek interes handia aurkeztu egin dute dokumentala eta bertan hausnartutakoaren gainean.
- Dokumentala oso harrera positiboa lortu du topaketara hurbildu diren gazte eta eragileen artean. Baita sare sozialetan egin den zabalpenarekin ere.
- Metodologia parte hartzailea oso iritzi positiboak jaso ditu bai gazte eta bai eragileen aldetik.
- Guztira hamar talde sortu eta berrogei erronka identifikatu dira.
- Gazteek bakea eta bizikidetzak gaiak jorratzeko beste belaunaldietako erreferenteekin elkarlana sustatzea eskatu diote EGKri.
- Hurrengo urtearen hasieran zabalduko den liburuxkaren atal batean, gazteek topaketa honetan egindako hausnarketak eta identifikatutako erronkak kontsultagarri egongo dira.

4.3. PROTOKOLOA

Udaberrian euskal gazte batek bere ideia politikoengatik jasandako erasoak, EGK kasu hauen aurrean erantzun arin eta sendo bat emateko gaitasuna zalantzan jarri zuen. Hori dela eta, Batzorde Iraunkorrak eta talde teknikoak protokolo bat sortzearen beharra mahai gaineratu zuten. Beraz, protokoloak eskatzen zituen lan orduak, bake-gazte manifestuaren proiektutik kendu egin behar izan ziren, proiektu hau bertan behera utziz.

Sortu den protokolo honen xedea EGK-ko gazte-elkarte baten parte edota EAEn bizi diren gazteen kontrako erasoak identifikatu eta deitoratzeko balio izatea da. Betiere, pairatutako Giza Eskubideen urraketak gaztearen jatorria, kultura, erlijioa edo ideologia politikoa badu oinarri. Horretarako, hainbat testu eredu prestatu dira, kasuaren arabera adierazpen testu bat edo beste plazaratzeko.

Helburuak

- Edozein ideia politiko, erlijioso, kulturalaren defentsan biolentziaren erabilerari zilegitasuna kentzea.
- Gazte-izaera anitza aldarrikatzea eta ondorioz eraikitzen gaituen edozein ezaugarri erasotzea izateko dugun askatasuna erasotzea dela argi uztea.
- Bake kulturarekin lotutako baloreak gazteen artean sustatzea: tolerantzia, errespetua, enpatia, etab.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Garapena

Iraganean terrorismoa eta indarkeria politikoa eragindako gazteen Giza Eskubideen urraketak salatzeke, EGK-k protokolo bat ezarri zuen 2004an. Hala ere, gaur egun bizi den egoerarekin bat ez zetorren protokoloa zen hau. Horregatik, eta EGK-ko Batzorde Iraunkorrean eraso edota urraketan aurrean erantzun arina eta sendoa emateko gaitasun eza zela eta, protokolo berri bat egiteko proposamena egin zitzaien.

Protokolo honen berrikuntzak bi dira. Batetik, erasoaren oinarrian dauden arrazoi gehiago kontuan hartzen dira, hau da: lehen terrorismoa eta indarkeria politikoa salatzen zen soilik eta orain, ordea, kultura, jatorria eta erlijioarekin lotutako erasoak ere. Eta bestetik, erredakzioaren tonua: eraikitzailea, gorrotoaren lengoaiatik aldendua, gizatasunean oinarritutako baloreen sustatzailea, etab.

Martxoan, protokolo berria eta testu ereduak amaituta zeudenean, talde tekniko eta Batzorde Iraunkorrari azaldu zitzaien eta euren onespina lortuta, hurrengo urteko martxoan ospatuko den Batzar Orokorrean aurkeztu eta onartzea espero da. Hala ere, data horren aurretik aipatutako arrazoi horiengatik gazte edo gazte-talde baten kontrako eraso bat egonez gero, protokoloa aktibatuko litzateke.

Ebaluazioa

- Protokoloa Batzorde Iraunkorreko kide guztiak ados jartzea lortu du.
- Batzorde Iraunkorrean eta talde teknikoan onartu zenetik behin jarri behar izan da martxan: Bizkaiaiko Nuevas Generaciones-eko presidentea eraso zutenean (urriaren 30ean).
- Protokoloari esker, gertatutako erasoaren aurrean erantzun arina (egun berean) eta sendoa ematea lortu zen. Beraz, protokoloaren eraginkortasuna frogatu eta baieztatu zen.

4.4. EGK: 30 URTE BAKEAREN ALDEI JARDUNALDIA

EGK-k orain dela 30 urte hasi zuen bere bidea eta ordutik gaur egun arte beti mantendu du gazteen artean bake kultura eraikitzeko konpromisoa. Horregatik, jardunaldi berezi bat antolatu da, non EGKn bakea eta bizikidetza landu dituzten teknikariek egungo gazteen ikuspuntua osatu duten. Jardunaldiaren helburua gazteei gure memoriaren parte bat ezagutzeko aukera ematea izan da.

Helburuak

- Belaunaldien arteko isiltasunak gainditzea eta elkarren artean hausnartu eta solastea.
- Iraganeko eta orainaren arazo-konponbideak alderatzea.
- Gazteek bakea eta bizikidetza esperientziak partekatzeko gune erosoak sortzea.
- Gazteek bakegintza prozesuan protagonistak direla eta zer esan badutela sinetsaraztea.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Garapena

URTEURRENAREN HARIRA:

Aurten EGK-k 30 urte bete ditu eta bake lan arlotik ere ekimen berezi bat prestatzea erabaki zen, batez ere, Kontseiluaren sorreratik antimilitarismoa eta bake kultura haren muinean eraman duelako. Ekimena gaur egun bakea lantzen duten gazteak eta EGKn bakea landu duten teknikari ohien arteko topaketa bat izango zen, non iraganean eta egun dauden erronken arteko aldean gainean hausnarketa sustatuko zen. Garai guztietako teknikariak topatzeko ikerketa sakon bat egin zen eta ondoren, emailaz eta telefonoz gonbidapen zuzenak egin ziren. Bestetik, gazteak animatzeko, EGK-k deialdia bere sare sozialetan zabaltu zuen.

EKAINAK 17:

Topaketa ekainaren 17an burutu zen EGK-ko Bilboko egoitzan. Bertara hamar gazte hurbildu ziren (erdia bake lantaldekoak) eta lau teknikari ohi: Rafa Ajangiz (EGK-ko eragozpen-kontzientziako teknikari ohiak aholkatzen zituen abokatu); Iñigo Abasolo (Bosniako kanpaina eraman zuen teknikaria); Iñaki Otamendi (Eragozpen-kontzientziako teknikari ohia); eta Maider Martiarena (Bake teknikari ohia). Topaketa bi alditan banatu zen. Lehenengoan, gazteei azaldu zitzairen topaketaren xedea eta ondoren, bi taldeetan banaturik lehiaketa bateri ekin zioten: gure historia eta memoriarekin lotutako datu eta gertaerak denbora lerro batean kokatzea. Bigarrenkoz, aulkiak biribilean ipini eta gonbidatuekin solasaldi bideratu bat burutu zen.

Ebaluazioa

- Bake lan taldera gazte gehiago gehitzeko aukera paregabea izan da topaketa hau.
- Urteurrenaren harira, EGKn bake heziketan jardun zuten teknikariei aitortzen xume bat egiteko aukera izan da topaketa hau. Eta haiek hala bizi izan dutela adierazi dute.
- Bai landutako gaiak, bai gonbidatuak, bai metodologia parte hartzailea oso harrera eta iritzi positiboak jaso dituzte gazte taldearen artean.
- EGK-ko beste lan arloekin lotura duten teknikari ohiak eta erreferentziazko pertsonak/profesionalak ezagutzeko prestutasuna adierazi dute gazteek, batez ere berdintasun arloan jardun zutenak (feminismoa eta LGTB gaiak landu zituztenak, alegia).
- Hurrengo urtearen hasieran zabalduko den liburuxkaren atal batean, gazteek topaketa honetan egindako hausnarketak kontsultagarri egongo dira.

4.5. ESTATU MAILAKO UNIBERTSITATEETAKO GAZTEEKIN BAKEGINTZAZ HAUSNARTZEKO TOPAKETA

Proiektu honen helburua bertako gazteek Estatuko beste gazteekin batera hausnarketak partekatzea izan da, EAEtik kanpo gaur egungo bizikidetzaren egoera nola jasotzen den ikusteko, besteak beste. Donostian egin den hiru eguneko topaketa hau Demagun elkartearekin batera burutu da. Zehatz-mehatz, proiektu honetan EGK-k izan duen egitekoa dinamika bat antolatu eta bertako gazte taldea anitza izatea bermatzea izan da.

Helburuak

- Gazteek bakea eta bizikidetza gaien gaineko esperientzia desberdinak partekatzea eta ondorioz, egoera kudeatzeko erremintak bereganatzea.
- Estatu mailan Euskadiren egoeraren gainean dauden ikuspegiak ezagutaraztea.
- Gazteek bakea eta bizikidetza esperientziak partekatzekeo guneroseak sortzea.
- Gazteek bakegintza prozesuan protagonistak direla eta zer esan badutela sinetsaraztea.

Garapena

AURREKARIAK:

laz adostu bezala, aurtan, EGK Demagun elkarteak urtero Donostian, azaroan, burutzen dituen *Hitz egin, parlar, falar, hablar*: **BAKEG/LEAK** jardunaldiak elkarrekin antolatzekeo proposamenari eutsi egin zion. Hain zuzen ere, EGKren egitekoak bi izan dira. Alde batetik, parte hartuko zuen bertako gazte taldea anitza izatea bermatzea. Eta bestetik, azaroaren 24eko arratsaldean egingo zen Bake Ibilbidea koordinatzea.

DEIALDIA ETA KOORDINAZIO LANA:

Urriaren bukaera eta azaroaren lehenengo bi asteak bitarte, bi prozesu paralelo aurrera eramane dira. Alde batetik, jardunaldien zabalpena egin da EGK-ko elkarteetan, sare sozialetan eta EGK-ko beste bake ekimenetan parte hartu duten gazteen artean; baita izen ematea kudeatu ere. Eta bestetik, Bake Ibilbidea aurrera eramatekeo beharrezkoak diren espazioak bilatu eta materialak erosi dira. Baita gazte-taldea dinamizatzeko beharrezkoak izan diren beste bi profesional prestatu ere.

AZAROAK 24:

Azaroaren 24ean, Donostian, Bake Ibilbidea burutu da. Parte hartu duen gazte-taldea 30 neska mutikoz osatuta zegoen: hamasei Estatuko beste unibertsitateetatik etorriak (Catalunya, Galizia, Madril eta Kordoba) eta gainerakoak EAEko udalerr desberdinetakoak (gehien bat Gipuzkoatik). Hamar gaztez osatutako hiru talde anitz sortu dira eta arratsaldea Donostiako txokoz txoko igaro dute Euskadiko iraganaz, orainaldiaz eta etorkizunaz elkarrekin hausnartzen.

Ebaluazioa

- Ekimen ezezaguna eta berritzailea izan arren, bertako gazte dezente animatu dira parte hartzera.

- Gazte taldean aniztasun gehiago lortu behar da, bai Estatu mailako ikasleen artean, bai bertako gazteen artean (gehienak ezkeriak, abertzaleak eta independentistak baitira).
- Bake lerbide, lan-metodologia gisa, oso harrera eta iritzi positiboak jaso ditu.
- Demagun elkararekin elkarlana oso emankorra izan da eta hurrengo urteari begira, elkarlana mantentzeko prestutasuna aurkeztu dute.

4.6. GAZTE BAKEGINTZAREN DOKUMENTALA

Burututako ekimen guztietan lortutako ikus-entzunezko materialaren baliagarritasuna antzemanda eta parte hartu duten gazteek gai hauekiko duten interesa ikusita, EGK eta Ejko hitzarmenaren baitan egindako lana dokumental batean bildu da. Era honetan, bi gauza lortu nahi izan dira. Batetik, ikus-entzunezko gazte-memoria bat sortu, instituzio, komunikabide eta gizarteari helarazteko. Eta bestetik, parte hartu duten gazteek beste gazte batzuk bake kulturaren alde lan egitearen garrantzian kontzientziatu, sentsibilizatu eta konprometitzea.

Helburuak

- Bake hitzarmenaren baitan garatutako proiektu desberdinak gizarteari, eragile desberdinei eta komunikabideei helaraztea.
- Ikus-entzunezko gazte-memoria bat sortzea.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Garapena

EGK-ko urteurrena eta 2016an zehar eman diren barne aldaketa nabarmenen ondorioz, hainbat teknikariek lan karga handia izan dute. Horrek, hitzartutako proiektuen garapenean eragina izan du. Hain zuzen ere, dokumentalaren eraketan. Lehenengo justifikazioan adierazi zen bezala, uztaiera arte egindako lana gutxienekoa izan zen: planteamendua definitu, grabatu beharrekoak identifikatu, estruktura finkatu eta denborak zehaztu. Iraila eta azaroa bitarte, iraganeko errekursozko irudiak lortzeaz saiatzeaz gain, dokumentalean parte hartzeko deialdia zabaltu egin zen gazte-elkarte eta gazteen artean, eta falta ziren grabazioak egin dira. Une honetan eta hurrengo urtearen hasiera bitarte REKKAM grabazio taldea, betiere EGKren ikuskapenarekin, edizio fasean daude. Batzorde Iraunkorraren eta talde teknikoaren onespina jaso bezain pronto, zabalpena egingo da.

Ebaluazioa

- Iraganeko errekurtsozko irudiak lortu dira.
- EGK garatutako bake ekimenen ikus-entzunezko kalitatezko irudiak lortu dira.
- EGK-ko teknikari ohiekin eta bakegintzan konprometituak dauden gazteekin grabazioak egin dira.
- Ez dira dokumentala ekoizteko laguntza gehiago lortu.

4.7. TXOSTENA GIDA LIBURUA + PROPOSAMENAK

2014 eta 2016 bitarte EGK eta EJ hitzarmeneko ekimenetan lortutako hausnarketa eta ondorioekin txosten gida liburu bat egin da. Helburua, lan hitzarmenaren magalean egindako lan guztia jaso eta plazaratzea, gizarteratzea da. Era honetan, gazteek gaiarekiko dituzten kezak, beharrak, interesak eta proposamenak, instituzio, gizarte eta komunikabideei helaraziko zaizkie; eta aldi berean, beste gazte batzuk kontzientziatu, sentsibilizatu eta konprometitu daitezke, bakegintza prozesuan parte-hartzera animatzeko.

Helburuak

- Bi urtetan bake hitzarmenaren baitan garatutako proiektu desberdinetan jasotako guztia gizarteari, eragile desberdinei eta komunikabideei helaraztea.
- Beste erakunde edo eragileek bakea eta bizikidetza lantzeko orduan erreferentziazko txostentzat hartzea.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragile aitortuta izatea.

Garapena

EGK-ko urteurrena eta 2016an zehar eman diren barne aldaketa nabarmenen ondorioz, hainbat teknikariek lan karga handia izan dute. Horrek, hitzartutako proiektuen garapenean eragina izan du. Hain zuzen ere, txosten gida liburuaren eraketan. Abuztuaren bukaeran, hasiera eman zitzaion liburu honen erredakzioari. Printzipioz, laurogei bat orrialdeko txosten elebiduna eratzea zen helburua. Baina bi urteetan zehar lortu diren gazteen hausnarketa eta ondorio sakonak ikusita (garatutako proiektu bakoitzean, 2015eko udazkenean zabaldutako galdetegian, bake lantaldea egindako proposamenetan, etab.), aurten bertsio bakarreko ehun bat orrialdeko liburu plazaratzeko aukera egongo dela egiaztatu da. Beraz, gaztelaniazko bertsioa behin

amaitutzat ematen denean, euskarazko bertsioa egitea eta honen ostean, bi liburuxken zabalpena burutzea izango litzateke asmoa. Betiere, Batzorde Iraunkorraren eta talde teknikoaren onespina jaso eta gero. Beraz, gaztelaniazko bertsioa urte hasierarako prest izan arren, hurrengo urteko hitzarmenaren baitan geratuko da euskarazko bertsioa burutzeko aukera.

Ebaluazioa

- Burututako proiektuetatik, zabaldutako galdetegitik eta lantaldeak egindako proposamenetatik abiatuta, kalitate handiko hausnarketak eta ondorioak lortu dira.
- Edukiak era ulergarrian eta erakargarrian islatzea lortu da.
- Erredakzioa genero ikuspegia bermatzen du.
- Liburuxka, bere osotasunean, gazte produktu bat izatea lortu da: edukiak, erredakzioa, argazkiak, maketazioa, diseinua eta infografiak gazteek egin dituztelako.

4.8.BAKE EKIMENAK EAEko UDALERRIETAN

Hitzarmenaren baitan diseinatutako bake ekimenak EAEko beste udalerri batzuetara eramateko aukera eman da. Helburua, lurraldeetako hiriburuetatik urruntzea, herriguneetan bizi diren gazteak konpromiso honetan inplikatzeko. Deialdia zabaltzeko lurraldeetako gazte plataformak eta udalerrietako hainbat gazte-elkarte eta gazte-teknikariekin harremanak sortu dira. Era honetan, ekimenak aurrera eramateko prestutasuna aurkeztu duten udalei, ekimenak bertako errealitatera ahalik eta gehien moldatzeko aukera eman zaie; nahiz eta une oro gazteen aurrean EGK izan ekimenetako sustatzaile, arduradun eta ekoizle.

Helburuak

- Elkartegintzan aritzen ez den herrigunetako gazteriara iristea.
- EAEko udalerri desberdinetan bizi diren gazteen errealitatea-egoera-bizipenak ezagutzea, betiere bakea eta bizikidetzat gaitan.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Garapena

DEIALDIA ZABALDU:

lazko baldintza beretan, aurten ere, EGK-ko bake proiektuak garatzeko aukera eman

nahi izan zaie EAEko udalerriei (proiektuen garapena eta kostua bere gain hartzen du EGK-k eta udalerriak espazioak erraztu eta gazte taldea sortzeaz arduratzen dira). laz udalerriek oso tarte gutxi eduki zuten eskaera egiteko eta proiektuak garatu ahal izateko. Beharbada arrazoi horrengatik udalerri gutxi jarri ziren harremanetan EGKrekin. Aurten deialdia otsailaren amaieran zabaltzen hasi da eta proiektuak garatzeko azaroaren erdialdera arte aukera egon da. laz bezala, hiru dira udalerriei eskaintzen zaizkien proiektuak: Bake Ibilbideak, formakuntza saioa eta Bake&Arte tailerra. Bestetik, erabilitako zabalpenerako bideak, hauek izan dira: Gaztematika eta Gaztebizz plataformak, aldundietako gazteria zuzendariak eta bake planak edota ekimenak aurrera eramaten dituzten udalerrietako gazte teknikariak.

KONTAKTUAK ETA EKIMENAK:

Oso udalerri gutxi erantzun dute EGKtik egindako deialdira. Zehatz-mehatz: Irun, Sopuerta, Balmaseda, Trapagaran, Arrigorriaga eta Abadiño. Esan beharra dago, Zarautz, Durango eta Txorierriko mankomunitatea joan den urtetik proiektu hauek euren udalerrietan garatu nahian dabiltzala eta aurten ere saiakera egiteko asmoa aurkeztu dutela. Azkenean, nahiz eta Zarautz, Balmaseda, Trapagaran, Arrigorriaga eta Abadiñoko teknikariekin (eta batzuetan ere zinegotziekin) batzordeak egin, Balmaseda izan da Bake&Arte tailerra burutu duen bakarra (maiatzaren 2an). Zarautz, Arrigorriaga eta Abadiñoko saioak bertan behera gelditu dira gazte taldea sortzea lortu ez dutelako.

Ebaluazioa

- EAEko herrietan bake ekimen bakarra gauzatzea lortu da. Era zuzenean harremanetan jarritako udaletxe gehienek hasiera batean interesa aurkeztu arren, gehienek azkenean emailaz bidalitako deialdira ez dute erantzun. Emandako arrazoiaren artean hauek dira nagusienak:
 - 1) Gazteria teknikariek zinegotzien onespena behar dute proiektuak aurrera ateratzeko eta beharbada EGK-ko bake ekimenek ez dute filtroa pasa.
 - 2) EGK-ko proiektuak koordinatzeko denbora behar da eta beharbada udaletxeetan dagoen lan karga ez du horretarako tarterik uzten.
 - 3) Gazteria teknikariak zailtasunak dituzte haien herrietako gazteei gerturatzeko eta antolatutako ekimenetan parte-hartzea sustatzeko (instituziotik etortzen diren proposamenak automatikoki deuseztatzen dituztelako, gaia motibatzen ez zaielako, astialdirako denbora gutxi dutelako, etab.).

- Hurrengo urteari begira, EGK-k ezin du ziurtatu proiektu hauek garatzeko aukera izango duen ala ez. Hala ere, EGK-k bere gain hartzen du EAEko herrietako gazteei iritsi eta bakegintzarekiko konpromisoa zabaltzeko erronka.

4.9.BAKE LANTALDEA: ERRONKAK PROPOSAMEN BIHURTZEN

Otsailean, Bakehizketak topaketan atera ziren erronkak abiapuntutzat hartuta, bake lantaldeak gazteen artean bakegintzan lagunduko dituzten proposamenak identifikatu eta landu ditu. Hauek, EGK-k, etorkizunera begira, errealitateari egokituagoak dauden gazteentzako bake-proiektuak egiteko baliagarriak izatea espero da.

Helburuak

- laz jaio zen lantaldeari gazte gehiago gerturatzea.
- Gazteak bakea eta bizikidetzaren gainean dituzten proposamenak eztabaidatu eta identifikatzea.
- Gazteek bakea eta bizikidetzaren esperientziak partekatzeke guztiak erosoak sortzea.
- Gazteek bakegintza prozesuan protagonistak direla eta zer esan badutela sinetsaraztea.

Garapena

AURREKARIAK ETA DEIALDI BERRIA:

EGK-ko bake lantaldea 2015ean sortu zen bakea eta bizikidetzarekin lotutako Nazioarteko Egunen gainean hausnarketa sustatzeko eta ekimenak antolatzen saiatzeko (aipagarriena, Memoriaren Egunean egindakoa). Aurten, Bakehizketak topaketan identifikatutako erronkak aztertzea du helburu, baita hauek errealitate bihurtzeko proposamenak lantzea ere. Horretarako, martxoaren hasieran deialdi bat zabaldu zen EGKtik, taldera gazte gehiago animatzeko asmoz.

SAIOAK:

Martxoa eta azaroa bitarte sei saio burutu dira (kontutan izanda udaran saioak eten egiten direla): martxoak 18, apirilak 15, maiatzak 27, ekainak 17, irailak 23 eta urriak 21. Ekainean burututako saioak planteamendu berezia zeukan, EGKren urteurrena zela-eta, teknikari ohiak gonbidatu zirelako. Aipatu beharra dago, saio bakoitzeko batez besteko partaidetza sei gaztekoa izan dela. Taldeak hurrengo urtearen hasieran argitaratuko den liburuxkan bakegintza sustatzeko proposamenak definitzea du helburu (betiere gazteen ikuspegitik).

Ebaluazioa

- Aurten egindako deialdiaren ondorioz gazte gehiago gehitu dira bake lantaldera.
- Martxoa eta azaroa bitarte (uda kenduta) hilero saio bat egitea lortu da.
- Lantaldea sendotu egin da eta egindako lana horren isla dela esan daiteke. Hain zuzen ere, hurrengo urtearen hasieran zabalduko den liburuxkako atal batean lantaldearen proposamenak kontsultagarri egongo dira.
- Hurrengo urteari begira, lantaldea lanean jarraitzeko prestutasuna aurkeztu du.

4.10. KOORDINAZIOA ETA EGUNEROKOTASUNA

Teknikari bakoitzaren gunetik barne eta kanpo, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko egin behar diren lanak kontutan izan behar dira, lan arloko egunerokotasunean eragina baitute.

Helburuak

- EGK-ko izaera eta funtzionamendua bermatzen duten eguneroko lanak burutu.

Garapena

- Jarraipen bilerak: talde teknikoarekin, Batzorde Iraunkorrarekin, Bakea eta Bizikidetzatza Idazkaritza Nagusiko ordezkariarekin, hala eskatzen duten elkarteekin, etab.
- EGK-ko beste lan arloetako proposamenei baliogarriak diren balorazioak eman eta ekintzetan parte hartu.
- Barne formakuntza saioak: aurten komunikazio abilezietan eta berdintasunaren oinarritzko kontzeptuetan trebatzeko formakuntza saioak egin dira.
- Gazte gaien gainean aholkularitza eta informazioa erraztea, ziurtagirien kudeaketa, prestatzen diren ekimenen gaineko izen ematearen kudeaketa eta zalantzak argitzea, etab.
- Egoitzako kudeaketa lanak: gela eta materialen lagapenak, telefonoa artatu, ezustekoak, etab.
- Komunikabideen eskakizunei erantzuna eman eta EGK-ko gazte-bake diskurtsoa bertan zabaltu.
- Urteko proiektuen justifikazioa.
- 2016eko memoriak.
- 2017ko plangintza.
- Aurten EGKren urteurrena ospatzeko ekitaldiaren antolaketa.
- Peace Programen baitan pentsatuta zegoen gazte-trukea garatu ez arren,

Catalunyako Bakerako Nazioarteko Institutuak irailean Medellinera gonbidatu zuen EGK bakegintzan egindako proiektuak azaltzera eta esperientziak partekatzera.

- Bakea eta Bizikidetzatza teknikari berriaren lan deialdia prestatzea.

5.BERDINTASUNA

5.1. EGK ETA GAZTERIAREN “I. BERDINTASUN PLANA”

2015 urtean zehar EGK-k Berdintasun Diagnostika burutu zuen, bai entitate modura (langileria ikuspegitik eta antolaketa ikuspegitik) eta bai Kontseilu modura analisi sakon bat eginez genero ikuspegitik. Honen bitartez, hurrengo urtean Berdintasun Plan baten diseinua burutzeko oinarriak finkatuak gelditu ziren. Ondorioz, urte honetako lana zen Diagnostik eratorritako ondorioetan eta bertan azaleratutako datuetan oinarriturik bai EGKren eta baita gazteriaren beharretara erantzuten zien Plan bat diseinatzea, 2017-2020 urteetarako. Izan ere, Plan hau 2017ko martxoan burutuko den hurrengo Batzar Orokorrean onartu ahal izango da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bai EGK barnean eta bai gazterian hurrengo urteetan genero berdintasuna zeharkako balore bezala txertatzeko eta ikuspuntu honen arabera eraldatzeko dokumentua sortu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k Genero Berdintasun ikuspegitik egoera hobetu ahal izateko mapa izatea.
- EGK entitate eredugarria izatea eta bestelako gizarte eragileengan kontzientzia piztea.
- Gazteriaren berdintasun arloko gaian indar-eragile bat gehiago izatea.
- Gazterian berdintasunerako eta gizarte parekide batenganako bidea hasteko grina piztea.

Ekintzen jarraipena

Proiektu honetarako ez da beharrezkoa izan bilerarik burutzea edota bestelako lankidetzatza baliabiderik erabiltzea, azken fasean ezik. Hortaz, gehienbat bulego lana izanik, bere jarraitutasuna eta garapena bestelako proiektu puntualen agerpen ezarekin lotura estuagoa izan du bere kronograma edo erritmo propioarekin baino.

BERDINTASUN DIAGNOSIAREN ANALISIA:

Berdintasun lan arloa jarri zen lehen hilabetearen buruan bai Berdintasun Planaren eraketarako eta baita bestelako helburuetarako (adibidez, urteko Plangintzaren diseinurako) burutu zen analisi hau.

Honen bitartez, dokumentuak dituen indargune eta ahuleziak detektatzen dira, hala, honetatik eratorri daitezkeen ekintzak, bai jada lehenengo urte honetan burutzeko, hala nola, hurrengo urteei begira aurrera eraman beharko den Planaren iraupenean zehar burutzeko.

Aurreikusia zegoen bezala, lehen ekintza honek martxoan bukatzen da eta bai entitatearen eta bai gazteriaren beharrei buruzko pistak lortzeko guztiz ezinbestekoa suertatzen da.

EGK-ri ZUZENDUTAKO NEURRIEN DISEINUA:

Bigarren fase honi abiada emateko ezinbestekoa da esanguratsuak diren Berdintasun Plan desberdinen adibideak hartzea. Hau dela eta, martxoan bukaeran administrazio esanguratsuen (Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak...) eta bestelako entitateen (Jaume I Unibertsitatea, beste batzuen artean) Berdintasun Planen bilaketa eta berrikusketa burutzen da. Halaber, Planaren diseinurako baliagarria izango den Emakundek 2008an argitaratutako "Tokiko berdintasun planak diseinatzeko, kudeatzeko eta balioesteko gida" ere eskuratzen da.

Hauek abiapuntu izanik, EGKra zuzendutako ekintzak diseinatzeko dira. Kontuan izanik beste edozein enpresak beharrezko dituen neurriez gain bere antolaketaerako eta barne prozesu parte-hartzaileentzako ere neurriak izan behar dituela, nola ez. Izan ere, gizarteko beste hainbat erakundeetan gertatzen den bezala, emakumeak sufragio pasibo gisa, alegia, hautagai gisa, lantzea da beharretako bat.

GAZTERIARI ZUZENDUTAKO NEURRIEN DISEINUA:

Bigarren fase honek, beste proiektu batzuek izan duten bezala, atzerapena izan du, ondorio orokorretan azalduko diren faktore batzuek direla eta.

EBALUAZIO-METODOEN DISEINUA:

Nahiz eta hasiera batean ebaluazio-metodoen diseinua aurreragoko prozesu gisa planeatuta egon, lanak aurrera egiten duen heinean bideragarriago eta egokiago ikusten da neurriak diseinatu ostean hauekin hain lotura estua izango duten ebaluaziorako irizpideak diseinatzea. Gauzak horrela, 2016ko Irailean jada lehen barne zirriborroa burutua zegoen.

BUKAERAKO ERREDAKZIOA:

Azken atal honek atzerapen bat jasan du. Izan ere, Berdintasun Teknikaria Jaume I Unibertsitateko Berdintasun Masterrera Master Bukaerako Lan gisa aurkeztua izan da

eta arrazoi pertsonalengatik ezinezkoa izan zen lehen deialdirako aurkeztea. Era honetara, lana aurkeztua izan zen abenduaren 2an. Honen ostean, Plana Emakundeko lankidetzarako kontaktuei helarazi zaie abenduaren 21ean Emakundek ohikoa duen berrikusketa egin dezan eta bere ekarpenak 2017an txertatuak izan daitezen Batzar Orokorrean onartua izan dadin aurkeztu aurretik.

AURKEZPENA:

Azkenik, behin dokumentua bukatua, Batzorde Iraunkorrera aurkeztua izango da, behin honek onartua martxoan burutuko den Batzar Orokorrean onartua eta hortik aurrera martxan jarria izan dadin. Hiru hilabete hauen bitartean ere dokumenturen maketazioa eta inprimaketa lanak burutuko dira, honen onarpenaren ostean argitaratzea posible izan dadin. Esan bezala, azken lan hau 2017an burutu beharrekoa izango da.

Ebaluazioa

Proiektu honen kasuan jasan diren eraldaketak bi eratakoak izan dira. Alde batetik, hasierako antolaketan aurreikusitako diseinu eskema eraldatu da. Era honetara, ebaluazio-metodoak behin neurriak diseinatu ostean eraikiko dira.

Ordea, honek zuzenean Plan osoaren diseinuaren erritmoan eragiten du, Gazteriara zuzendutako neurrien, hala nola, hauen ebaluaziorako mekanismoen diseinua eraldatuz (lehenak aurreratuz eta bigarrenak atzeratuz).

Bestalde, kontuan izan behar da ere azken batean Berdintasun Plana bikoitza dela. Alegia, beste edozein testuinguruetan eratzen den Planen lanaren bikoitza dakarrela barne bi biztanleri helburu izanagatik: EGK bera eta gazteria. Hortaz, ez da harritzekoa ere berezitasun hau izanagatik ere lanaren erritmoak eraldatzea lanak aurrera egin ahala.

Azkenik, soilik esan beharra dago bai barne eta bai kanpora begira hainbat lan-ildo jorratu direla, bai bizitzaren esparru publikoa bai esparru pribatua kontuan izanik, hala nola, justiziaren etika eta zaintzaren etikaren ikuspegiak uztartuz. Gauzak horrela, urte bukaera iritsita, proiektuaren erritmoa berreskuratzea lortu da; hala ere, lanak izango dituen kanpo feedback-ak ziurtatzeko, azken barne berrikuspen tekniko bat 2017rako gelditzen da.

5.2. BERDINTASUN ARLOKO LANTALDEAREN ERAKETA ETA JARRAIPENA

Barne antolaketa mantentzeko bideratuak ez dauden EGKren lan arlo guztietan gazteriaren iritzia eta beharrak jaso eta proposamenak eraikitzeko lantalde desberdinak eratzen dira, hartara feedback-a eta errealitatean oinarritutako diskurtsoa ziurta ahal

izateko. Hau dela eta, Berdintasun lan-arloa berreskuratu berri egonik, Otik hasi beharreko eta ezinbestekoa suertatzen zen lan bat izan da hau.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Berdintasun arloko lanaren egokitasuna, hedapena eta jarraitutasuna ziurtatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK barruko lan taldea sortu eta denboran mantentzeko oinarriak ezarri.
- Gazteriaren Berdintasun arloko egoeraz eztabaidatzea, premiak detektatzea eta eraldaketarako beste bide batzuk eraikitzea.
- Berdintasun eta LGTBI arloetako gabeziak detektatu eta eragin politikorako gune bilakatzea.
- Berdintasun Arloarekin bat proiektuak burutzea.

Garapena

Lehenik eta behin kontuan izan behar dugu jada Justifikazioan aipatutakoa. Alegia, lantaldea eratzeak zekarren zailtasuna Berdintasun lan-arloak urteetako etena izan baitu. Honekin batera, kontuan izan behar da oraindik ia fruiturik emanda ez zituen lan-arlo batez ari garela eta batzuetan oinarri falta hori partaidetzarako motibaziorako galera izan daiteke.

LANTALDEA SORTZEKO GONBITA ETA HONEN ANTOLAKETA:

Lantaldea eratzeko lehen betebeharra izan zen honetan partaide gisa egon zitezkeen elkarte desberdinak identifikatzea, bai EGKren partaide direnen artean eta baita ez direnen artean ere. Era honetara, bai Euskadi mailako eta baita maila lokaleko berdintasun eta LGTBI+ arlotako elkarten zerrenda lortu zen, telefono edota mezu elektroniko bitartez ondoko kontaktuak egiteko.

Izan ere, lehen zailtasuna izan zen hainbat elkarteren kontaktua lortu ezin izatea, informazioa ez zelako eskuragarria ez Internet bitartez ezta zegozkien udalerrien Berdintasun zerbitzuen bitartez. Hala, bost elkarte soilik emailaz jaso ahal izan zuten lantaldearen berri, guztiz ezinezkoa izanik telefonoz harremanetan jartzea.

Azkenean, bilaketaren ostean, 20 elkarte eta 7 banakok jasotzen dute informazioa emailaz edota telefonoz, EGKren partaide diren elkarteez gain, ohiko informazio kanalen bitartez jasotzen dutenak informazioa. Bigarren kasu honetan, otsailak 22an zabalpen bat egiten da non, beste berri batzuekin batera, burutuko den Berdintasun lan arloko lantaldearen lehen bileraren informazioa hedatzen den posta elektroniko bitartez.

Lehenengo kontaktu hartze honen ostean informazio emate prozesu zuzenak ondoko kopuruetara iritsi da:

- **Berdintasun edota LGTBI+ gaietan zentratuta dauden 11 elkarterekin harremanetan jarri gara.**
Kontuan izan behar da hauetariko 3 ez direla Euskadi mailakoak, baina beraien Udalerrietan duten aktibitate altuagatik jo dela beraiena.
- **EGKren partaide diren eta interesa izan dezaketen 5 elkarte**
Elkarte hauen interesa aurreko urteetan egin dituzten lanen arabera interesa dela eta ebaluatu da aurretiaz.
- **Bestelako kontaktuak**
Donostiako eta Basauriko emakumeen etxearekin, Gasteizko Jabekuntza Eskolarekin eta Bilboko Ekuador Etxea elkartearekin ere harremana sortu da proiektua aurkezteko.

Bestalde, informazioa 10 pertsona gazteri ere helarazi zaio era zuzenean, jada Berdintasun lan arloarekin nolabaiteko kontakturen bat izandakoak baitziren.

Prozesu honetan, martxoaren 7an, astelehena, Onda Vasca-n EGK-k egiten duen agerpena aprobetxatzen da berria ere aditzera emateko. Honekin batera, astebete gelditzen denean lantaldearen lehen bilerarako, talde anitzagoa egitearen eta berria aditzera ematearen helburuekin, berria partekatzen da bai EGKren webgunean (<http://bit.ly/1ntBxm2>) eta baita Pikara Magazine aldizkari feministan (<http://bit.ly/1UJssPM>).

LANTALDEAREN ERAKETARAKO LEHEN BILERA:

Lehen bilera honetara (martxoaren 15ean ospatua, Gasteizko Simone de Beauvoir Gizarte Etxean) lau elkarteetako partaideak gerturatzen dira eta beste sei parte-hartzaile gazte etortzen dira. Hauetaz gain, beraien aurrez-aurreko parte-hartzea azkenengo momentuan ezeztatzen dute eta helbide elektroniko bitartez iradokizunak egiteko konpromisoa hartzen dute.

Inongo zailtasun gehigarririk gabe, bilerak aurrera egiten du aurreikusita zeuden puntuak landuz:

- Berdintasun Diagnosiaren eta honen ondorio garrantzitsuen eskema
- 2016 urterako Plangintzaren aurkezpena proiektua
- Lantaldearekin kontrastea: egoerari buruzko iritzia
 - o Lantaldeari eskatzen zaio adieraztea ea zeintzuk dituzten Emakume eta Gizonezkoen arteko Berdintasuna, Indarkeria Matxista eta LGTBI+ kolektiboaren egoerari dagokionez gazteriak bizi dituen 3 arazo nagusiak eta hauek erronka modura planteatzea.

Bilera honetarik eratortzen da bat datozela hein handi batean Berdintasun Diagnostikoa

identifikatutako ahuleziak eta indarguneak eta lantaldeak detektatutakoak. Hala, lantaldearen kezka gehienak, guztiak ez esatearren, jada txertatuak daude urte honetarako plangintzaren ekintzetan, hurrengo urteetarako edota bestelako testuinguruetarako proposamenak egonik.

Honetaz gain, jada lantalde finko bat agertzen da eta proiektuan parte-hartzen jarraitzeko interesa duen taldea, elkartetako eta norbanako modura datozen gazteez osaturik, EGKren diskurtso eraketarako ezinbestekoa dena.

LANTALDEAREN BILERAK ETA EKINTZAK:



Lehen bilera honen ostean, hilabetero bilera bat burutzeko konpromisoa hartzen da. Hala ere, maiatzako bilera bat atzeratzeak eta udaran bilerak bertan behera uzteak eragin du, azkenean, urte bukaeran **sei** bilera eginak izatea.

Honetaz gain, gehitu beharra dago parte-hartzaileak diren gazteen testuinguruak, hala, lantaldeaz informatzeko saiakera berriek webguneko

berrien bitartez (<http://bit.ly/2eZJDil>), parte-hartzean efektua dutela: pertsona berriak gerturatzen dira, beste batzuk beraien lan egoeragatik parte-hartzea uzten dute eta beste batzuk helbide elektronikoz parte-hartzera pasatzen dira.

Lehen urte honetan EGK-ko Berdintasun lan-arloaren diskurtsoaren oinarriak ezarri dira, Gune Anitza, Salaketa Publikorako Berdintasun Protokoloak, Berdintasun Plana eta Aniztasun Sexualari buruzko gidaren diskurtso oinarria eraikiz, beste batzuen artean.

Hala ere, parte-hartze maila desberdintasun nabaria egon da bilera batetik bestetara, hala nola, aurrez-aurre parte hartzeko zailtasunak izan dituzten pertsonak.

Ebaluazioa

Proiektu honen ebaluaziorako kontuan izan behar da prozeduran eta lehenengo bileraren antolaketari begira ere hasieratik agertutako zailtasunak.

Hasteko, lantalde bat Otik asteak, aurretiaz honen ohiturarik izan gabe EGKren barruan bai barne eta kanpo elkarteen motibazteak dakar ezinbestean. Bereziki, kanpo elkarteei dagokionez, partaide izan gabe beraien interesa eta motibazioa piztea zaila izan da, hauetatik asko beraien banakako ibilbidean urteak daramatzaten hainbat

baitzeuden.

Halaber, mugimendu feminista gaztea piztuta badago, hemen izan dugu beste zailtasun bat. Bai hiriburuetatik gertu eta bai esparru lokaleko hainbat elkarte EGK-k momentu honetan dituen baliabideen bitartez ia ezinezkoa izan da beraiekin harremanetan ezartzea beraiek erabiltzen dituzten sare sozialen formulengatik eta askotan udalerrietako Berdintasun sailekiko duten distantziagatik.

Hasierako zailtasun hauei gehitu behar zaizkie gerora urtean zehar agertutako zailtasunak: partaideen parte-hartze eraldaketa zailtasun pertsonalak medio, taldeko partaide batzuen “desagerpena” eta harremanetan jartzeko beste biderik ez izatea...

Hortaz, nahiz eta lehen urte honetan produktiboa izan den talde bat izan den Gaur8 lantaldea, hurrengo urteari begira ere beharrezkoa ikusten da partaidetza eta aniztasun erronkak hartu eta hauek zuzentzeko neurriak hartzea.

Gauzak horrela, erronka nagusiak dira:

- Elkarren berri era azkarrean eman ahal izateko beste harremanetarako bideak pentsatzea (adibidez, mugikor bitartez harremanetan jarri ahal izatea).
- Bileren aldizkakotasuna eta eredua (aurrez-aurrekoa ala ez) birbaloratzea eta malgutasuna ezartzea ere urtean zehar behar desberdinei moldatu ahal izateko.
- Talde berriak detektatzea, bereziki talde feministen ekarpenak berreskuratu eta denboran zehar mantentzea.

5.3. GENERO BERDINTASUNA ZEHARKAKO BALORE GISA TXERTATU EGKN

Ekintza ildo hau 2015ean argitaratutako diagnosiaren gomendioetatik eratortzen da eta Genero Berdintasuna balore gisa txertatzeko beharrezko diren gutxieneko ekintzez osatua dago:

- EGK-ko Lantalde teknikoaren formakuntza Berdintasun arloan.
- Praktika Egokien Liburua berriztatzea.
- Indarkeria Matxista edota LGTBI+fobikoaren Salaketarako Protokoloak burutzea.

Gauzak horrela, kontuan izan behar da hauek burutu ostean, gerora azalduko den bezala, zeharkakotasuna mantentzeko bestelako berrikusketa eta aholkularitza elkarlanak egongo direla.

5.3.1. GENERO BERDINTASUN ARLOKO BARNE-FORMAZIOA

Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasun balorea era egokian txertatzen dela ziurtatzeko, ezinbestekoa zen Berdintasun Teknikariaren agerpenaz gain lantalde tekniko osoak Berdintasun arloko formakuntza minimo bat jasotzea. Era honetara,

Berdintasunaren balorearen zeharkakotasuna egun dauden teknikaritzak guztietan ziurtatzen da. Dena dela, kontuan izan behar da urte honetan bertan lantaldeak berak eraldaketa nabariak izan dituela. Izan ere, urte erdian Presidente berria hasi zen lanean eta urriaz geroztik Idazkari berria ere izan du. Hortaz, nahiz eta lehenengo formakuntzak material gehigarriak erraztu zituen, premiazkoa zen bigarren formakuntza bat burutzea, kasu honetan, EGKren hizkuntza ez-sexistaren oinarriak ezartzeko, egunerokotasunean bertan premia bazegoela baloratu baitzen azaroaren 14ean egindako egun osoko bilera teknikoan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko Lantalde Teknikoak zeharkako Berdintasun ikuspegi bat garatzea beraien lan-arloetan aplikatu ahal izateko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lantalde Teknikoak Berdintasun arloko formakuntza jasotzea.
- Bere lan arloan Genero Berdintasunaren balorea txertatzen jakitea teknikari bakoitzak.
- Egunerokotasuneko balore izatea lan harremanetan ere, hala nola, eguneroko komunikazio formalean hizkuntza ez-sexistaren erabilera ziurtatu ahal izatea edozein teknikarik.
- Ekiteko eredu berri hau gazteriara zabaltzea eta emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren balorearen garrantziaz kontzientziaztea.

Garapena

LEHENENGO FORMAKUNTZA:

Ekintza honen zailtasun nagusia egon da formazioa eman beharko lukeen taldearen bilaketan. Izan ere, ikasturte erdian izanik, jada hainbat taldek beraien egutegia guztiz beteta zuten eta EGKrentzat ezinbestekoa zen lantaldeak lehenbailehen jasotzea formakuntza honen efektuak ukaezinak izango baitziren eguneroko lanean.

Azken batean, EGKren beharretara egokitzen zen Daiteke aholkularitza zerbitzua izan zen proposamen bat hasiera batean pentsatutako datetara egokituta bidaltzen bakarra eta honekin burutu izan zen formakuntza.

Ordea, egunerokotasunaren hainbat zailtasunek formakuntza bi astebete atzeratzea eragin zuten. Izan ere, apirilaren 18tik 25era Biesbaden-era bidaia burutu zuten EGK-ko presidenteak eta Komunikazio Teknikariak. Gainera, tartean beste lankideetako baten baxa ere egon zen eta lantalde osoa egotearen aldeko apostura egin zen, nahiz eta

azkenean baxa hau luzatu egin zen.

Azkenik, formakuntza maiatzaren burutu zen; on-line formakuntza eta aurrez-aurreko formakuntza (Bilboko EGKren egoitzan burutu zena) konbinatuz. Gauzak horrela, lehen on-line formakuntzarentzat epea maiatzaren 10etik maiatzaren 17ra zabaldu zen, azken egun honetan burutu baitzen lehen aurrez-aurreko saioa. Honen ostean, on-line zen bigarren atalaren epea ireki zen, 24ean burutu baitzen bigarren aurrez-aurreko saioa. Bi saioetan, hala on-line plataforman parte-hartzen, teknikari guztiak topatu ziren.

Honetaz gain esatea formakuntzaren ebaluazioa aholkularitzaren esku egon dela, ondorioz, prozesuaren abiada eraldatuz.

BIGARREN FORMAKUNTZA:

Aurretiaz adierazi bezala, EGK-k azaroaren 14ean egun osoko bilera teknikoa burutu zuen ahuleziak eta indarrak, hala nola, 2017rako erronkak definitu ahal izateko, bai lantalde gisa, baita Kontseilu gisa ere.

Ahulezien identifikazioan detektatu zen oraindik ere hizkuntza ez sexista txertatzeko hainbat zailtasun agertzen zirela. Izan ere, sexismoa hizkuntzan ekiditeko estrategia linguistikoetan abilezia falta zen zailtasunik handiena. Gauzak horrela, eta kontuan izanik EGK-k aurretiaz Artez Euskara Zerbitzuarekin harremana izan duela lan konkretu desberdinetarako, aurrekontua eskatu eta bigarren formakuntza saioa martxan jarri zen. Abenduaren 2, 12 eta 13 egunak erabili ziren azkenik bigarren formakuntza saio hauetarako, saioen artean teknikari bakoitzak bere kabuz egin beharreko ariketa desberdinak egonik ere. Aurrez-aurreko saioak berriro ere EGKren Bilboko egoitzan burutu ziren, kasu honetan balorazio honetarako faktorerik erabakigarriena izanik formakuntza eman zuen enpresa ere Bilbon bertan izatea bulegoa eta, ondorioz, garraio gastuak ekiditea lortzen zela. Era berean, formakuntza tartearen ostean beste hiriburuetan dauden teknikariek burututako bestelako barne bilerek erraztu zuten garraio gastu hauek ere ekidin ahal izatea. Guztira, 20 orduetako formakuntza izan da hau ere.

Ebaluazioa

Atal honetan bi formakuntza esperientziak baloratuko dira. Lehenengoari dagokionez, asebetetze maila altua lortu zen bai lantalde teknikoaren aldetik, bai formakuntza eskaini zuen enpresaren partetik (Daiteke Gizarte Aholkularitza). Bestalde, bigarrena ere asebetegarritzat jo dute bai teknikariek bai enpresak. Hala ere, badaude kontuan izan beharreko hainbat ohar.

Alde batetik, denbora ere kontrako faktore bat izan dela proiektu honetan. Lehenengo formakuntzaren kasuan, eskaria enpresa desberdinei helarazi zitzaielako eta honek

aukeraketa atzeratu behar izan zuelako. Bigarrenaren kasuan, jada lanez jositako datak zirelako teknikarientzat beraientzat ere, baina beharra hain agerikoa izanik ez zegoen beste aukerarik.

Bestetik, kontuan izan behar da bigarren formakuntza honen beharrak ohartarazten duen faktore bat: lantalde teknikoaren eraldaketan izan dezakeen eragina Berdintasunaren zeharkakotasunean. Berdintasun lan-arloaren lehen urte honetan bideragarria izan da, eta salbuespen gisa, bi formakuntza desberdin burutzea, baina hori ezin ziurta daiteke urteroko edota teknikari aldaketa dagoen bakoitzeko ezinbesteko baldintza gisa. Hortaz, honek Berdintasun Planean aurreikusita dagoen Harrera Eskuliburuaren garrantzia azpimarratzera garamatza; honetan txertatuko baitira EGKren lanerako formularik garrantzitsuenak eta honen bitartez erraztu ahal izango baita.

5.3.2. PRAKTIKA EGOKIEN LIBURUA BERRIZTATZEA

2013an EGK-k Praktika Egokien Liburua argitaratu zuen, bai barne erabilerarako, baita bere partaide eta eragile diren elkarte eta entitateen artean banatzeko gida modura. Liburu honen helburua da egunerokotasunaren eta proiektu konkretuen gutxieneko kontuan hartzekoak islatzea. Bi urte beranduago eta genero ikuspegitik lehen argitalpen honek zuen sakontasuna baloratuz, planteatzen da bigarren argitalpen bat beharrezkoa dela eta liburuan jasota dauden esparru desberdinak sakontasun gehiagorekin garatzeko aukera ezin hobe dela.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Genero Berdintasunak zeharkako balore gisa behar duten zentraltasuna erakusten duen Praktika Egokien Liburua sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Berdintasuna eta sexu-aniztasunaren baloreetan murgiltzea egunerokotasuneko lanerako.
- Praktika Egokien Liburua erabilgarria izatea edozein proiektu hasi aurretik edo egin ostean diseinatu edo ebaluatu ahal izateko.
- EGK-ko partaide diren elkarteek beraien proiektuetarako gidaliburu bat izatea.

Garapena

Proiektu honek ere eraldaketak jaso izan ditu urteak aurrera egin ahala. Aurreko memorian jasota zegoen bezala, lehenik eta behin AMIA analisi azkarra burutu zitzaion, jada eskema guztiz berri eta iraultzaile bat planteatuz beharrezkotzat. Era honetara, uztailean Parte-hartze teknikariarekin partekatzen da ondorioztatutakoa eta, behin eraldaketaren beharrea adostasuna dagoela ikusita, lantalde osora luzatzen da gogoeta.

Talde osoko bilera teknikoan baloratzen da egokiagoa dela 2017 urterako proiektu gisa uztea Praktika Egokien Liburuaren berrikuspina eta diseinua. Hartara, ez da generoari dagokion atala berrikusia eta sakontasun gehiagoz landua izan ahal izango dena, baizik eta liburua bere osotasunean. Era honetara, behin-behineko Praktika Egokien Liburuaren eskema bat izanik, proiektua geldiarazi eta hurrengo urterako uzten da.

Ebaluazioa

Positibotzat jotzen da proiektu honi dagokionez gertatutakoa, izan ere, lantalde osoak balorazio berdina egitea eta Praktika Egokien Liburu baten benetako indartzearen aldeko apustua egitea barne koordinazio eta antzeko beharren detekzioa dagoela azaleratzen du.

Gainera, honek ahalbidetuko du jada Berdintasun arloan formakuntza jaso duen lantalde tekniko eta jada onartua izan den Berdintasun Plan bat oinarri izatea. Era berean, aurten argitaratua izan den Aniztasun sexualari buruzko gida, hala nola, hurrengo urtean zehar Bizkaiko Foru Aldundiarekin dagoen lankidetza hitzarmen markoan beste lan-arlo batzuek burutuko dituzten gidak oinarri baliagarriak izango dira.

5.3.3. INDARKERIA MATXISTA EDOTA LGTBI+FOBIKOAREN SALAKETARAKO PROTOKOLOAK

EGK-k baditu egun bai barne erabilerarako bai kanpo komunikaziorako hainbat protokolo, horien artean bereziki garrantzitsua izanik, adibidez, gazte batek lan istripu bat jasaten duenean prekaritatea eta lan baldintzen egoera publikoki salatzeko protokoloa. Tresna hauek sentibilizazio eta intzidentziarako tresna egokitzat jo dira EGKren esperientzian, hau dela eta beharrezkotzat jo dira Berdintasun lan-arloan ere antzeko tresnak izatea honetan hain kezkarriak diren egoerak ematen direnean gazterian.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Indarkeria Matxista edota LGBTI+-fobikoaren aurrean ekintza-gida bat izatea eta hau aplikatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Oraindik dagoen gizarte desberdintasuna salatzea gazteen artean gertatzen denean.
- Arazoaren aurrean EGKren errefusa postura argia gizarteratzea.
- Beste entitate, elkarte eta eragileei begira portaera eredugarri bat izatea, gizarteraldaketan indar bat gehiago izateko.

Ekintzen jarraipena

Proiektu honetan ere epeen barruan helburuak lortu dira. Izan ere, pasa den ekainaren 22an, EGKren Ezohiko Batzarrean, protokoloak onartuak gelditu ziren. Hortaz, jada abian daude. Baina has gaitezen prozeduraren hasieratik.

Jada Berdintasun Diagnostik eratorri zen behar bat zen salaketa publikorako protokoloena. Izan ere, jada lantalde teknikoan bazegoen ideietako bat zen behar hau. Ordea, nahiz eta otsailetik martxan jarritako proiektua izan, azkenengo pausua ezinbestean ekainak 22an burutu beharko zen, aurretiaz burututako martxoak 22ko Ohiko Batzarra izan zenean Gaur8 lantaldeak ez baitzuen ibilbide gehiegi ezta denborarik horrelako dokumentu bat prestatzeko.

PROZESUAREN BERRIA EMAN ETA PARTE-HARTZEKO DEIALDI IREKIA:

Azkenean hau izan zen lehen pausua. Era honetara, lantaldearen bigarren bilera ospatu aurretik webgunean honen berri eman zen eta parte-hartzerako gonbita luzatu zen apirilaren 6an (<http://bit.ly/1TOztCY>).

Berria luzatze honen ostean, jada aurreko saiorako gonbita jaso zuen pertsona bat kontaktuan ezartzen da eta bigarren bilera honetara animatzen da. Nahiz eta elkartegintzan dabilen, banako modura dator.

INDARKERIA MATXISTA ETA LGBTI+FOBIKOAK KONTZEPTUAK DEFINITU LANTALDEAN:

Apirilak 12an burututako lantaldearen bigarren bileran oinarrian egongo diren kontzeptuak partekatu eta hauei buruz hitz egiten da. Definizioak lantaldea osatzen duten gazte guztientzat baliagarriak izan behar dira eta talde zein banako desberdinen ikuspegiarekin bat etorri behar dira.

Hau dela eta, topo egiten duten ikuspegi desberdinen talka ekiditeko, irtenbide edo 3. bide modura aukeratzen da kontzeptu propioen erabilera estrategia gisa.

KONTZEPTUETATIK ABIATUZ, EKITE-GIDA SORTU:

Bigarren bilera honen ostean, oinarrian zegoen protokoloen eskeman ekarpenak txertatzen dira eta jada sortua gelditzen da hilabete baten buruan baino gutxiago

protokoloa bera (bi protokoloetan banatua dagoena aldi berean)

PROTOKOLOAK BATZORDE IRAUNKORRARI AURKEZTU:

Maiatzaren 23an protokoloak aurkezten zaizkio Batzorde Iraunkorrari, hilabete barru lekua izango duen Ez Ohiko Batzarrean onartuak izango direnez, jada Permanenteak hauek ezagutu ditzan eta honi azken ekarpenak egin diezazkion.

Bileran honetan protokoloak onartuak dira eta inongo ekarpenik edo aldaketarik gabe aurreikusten da aurrera jarrai dezaten onarpenerako bidean.

PROTOKOLOAK EZ OHIKO BATZARREAN ONARTZEA:

Azkenean, aurreikusita zegoen bezala, ekainak 22an burutzen den Ez Ohiko Batzarrean protokoloak onartuak dira aho-batez. Era honetara, protokoloak ofizialki EGKren baliabide bilakatzen dira eta, ondorioz, aurrerantzean edozein momentutan aktiba daitezke hauek jasotzen diren egoerak salatuak direnean jendaurrean.



PROTOKOLOAK MARTXAN JARTZEA:

Protokoloak izan dira urtean zehar lan denbora gehien eskatu duten proiektuetako bat behin martxan jarrita. Izan ere, Indarkeria LGTBI+fobikoa salatzeko protokoloa 3 aldiz aktibatua izan da eta Indarkeria Matxista salatzeko protokoloa 32a alditan.

Ebaluazioa

Urtea pasata, proiektuaren lehen fasea ebaluatzea baino, atal honi dagokio protokoloen erabilerak berak azalarazi dituen zailtasun eta indarguneak azpimarratzea.

Indargune edota protokoloen aukera argia da hauek hedabideetan izan duten inpaktua eta eragina. Izan ere, udan zehar elkarrizketa desberdinak eskatu izan dira irrati eta egunkari desberdinetatik (ikus. eranskina). Gainera, hauek gain aipamen bereziak ere egon dira EGK-k burututako adierazpenak ere txertatuz berrietan.

Hala ere, argi gelditu dira ere protokoloek dakarten zailtasunak. Alde batetik, lekuan-lekuko udaltzaingoei kudeatutako kasuetan parte inplikatuena adina ezagutzera emateko zailtasun gehiago egon ohi dira. Izan ere, biktimaren anonimotasuna ziurtatu ahal izatea izan ohi da presente.

Bestetik, badago ere zailtasun praktikoa, protokoloen aktibazio formula birpentsatzeko beharra eragin duena. Izan ere, albiste gisa eskegitzeak EGKren webgunean txertatzen diren beste albisteen protagonismoa kentzea dakar ezinbestean. Hau, kontuan izanda albiste arloa erabili ohi dela EGK-k burutzen dituen ekintzak aditzera emateko, zailtasun handia izanik. Hau dela eta, behin jada Gaur8 lantaldean nahiz lantalde teknikoan partekatuta, 2017an eraldatzeko lehenengotariko gauza izango da. Era honetara, EGK-k dituen eskaerak eta proposamenak PDF formatuan eskegita egongo dira, hauei

erreferentzia zuena eginez sareetan eraso berri bat ematerakoan. Era honetara, salaketarako oso erabilgarriak diren sare sozialak erabiltzen jarraituko dira eta sakontasun gehiagoko artikulua oroitzapenezko maiatzak 17 eta azaroak 25 datetan igoko dira, hurrenez-hurren, jada Indarkeria Matxistarekin egin den bezala aurten (<http://bit.ly/2fLyP8O>).

5.4. EMAKUME GAZTEAK ETA ENPLEGUA

(ikus. Bizibaldintzak atalean)

5.5. "GUNE ANITZA" ZIGILUA

Oraindik ere Berdintasunaren eta LGTBI+ kolektiboaren aldeko jarrera era bateratuan adierazteko irudiaren gabezia bat zegoen eta, kontuan izanik EGKren Berdintasun lan arloak biei arreta ezartzea duela helburu eta, honekin batera, bien arteko zubiak eraiki nahi dituela, ez da harritzekoa mezuak eta eraldaketak jada era bateratuan egiteko proposamenak agertzea.

Gabezia honen ideia izan zen abiapuntu, hala, ohiko "gay-friendly" kontzeptuari bira bat gehiago ematea baimentzen zuen marko berri baten aurkezpena, posible eginik biztanleri osoa, gazteria osoa, aniztasunaren barneko gisa ulertzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bai genero eta bai sexu-aniztasunaren gaineko lanaren arteko zubia eraikitzea eta bi hauekiko aldekotasuna erakusten duen zigilu bateratzaile eta berezigarria sortu eta hedatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bai genero bereizketaren arloko gatazka anitzak bai LGTBI kolektiboak bizi dituen zailtasunak marko berdin baten menpe txertatzea eta lan-indarrak bateratzea Manifestu batean.
- Genero askatasuna eta tratu berdintasuna, hala nola, LGTBI kolektiboaren eta aniztasun sexualaren eskubideekiko jarrera defendatu ahots batez. .
- Identitate eta desira ez normatiboen defentsa aktiboa bultzatu.
- Eraso Matxista zein LTGBI+fobikoekiko errefus soziala piztu eta hauen larritasunaren gainean kontzientziatu.
- Eskubide sexualen aldeko jarrera pro-aktiboa normalizatzea.

Garapena

Proiektu honetan zehar, EGKren barne bilerak bezala uler ditzakegunez gain, baditugu ere Nafarroako Gazteria Kontseiluarekin burututako jarraipen bilerak. Izan ere, hasiera batean proiektua bi Kontseiluek kudeatuko zuten zigilu baten proiektu gisa planteatu zen, nahiz eta azkenean, Nafarroan LGTBI+ kolektiboaren elkartegintzaren arloan dagoen egoeratik atzera bota da lehen urte honetatik proiektura bateratzea. Gauzak horrela, hurrengo urterako proiektuaren berrikuntza eta moldaketan parte-hartzeko atea irekita utzi da.

Hau esanda, hona hemen proiektuari dagozkion data eta bilera garrantzitsuen zerrenda:

- Otsailaren 17a: Nafarroako Gazteria Kontseiluaren presidente eta Elkartegintza teknikariarekin bilera egiten da eta proiektua komuna izateko lehen pausuak ematen dira.
- Martxoaren 17a: NGK-ko Elkartegintza teknikariarekin Skype bitartez lehen jarraipen bilera bat burutzen da non Gaur8ren martxan jartzea eta Nafarroako elkarte baten interesa positiboki baloratzen diren.
- Apirilaren 12a: NGK-ko teknikariari bidali ostean, Gaur8 lantaldearen bigarren saio honetan Manifestu Anitzari ekarpenak egiten zaizkio bertan txerta daitezen hurrengo bilerarako
- Apirilaren 24a: behin bidalita manifestua eraldaketak eginak dituelarik bai NGK-ko teknikariari eta baita lantaldeari, logoa diseinatuko duten diseinatzaileei Manifestua eta logoaren ideari buruzko informazioa helarazten zaie.
- Apirilaren 28a: NGK-k bere parte-hartzea bertan behera utzi behar duela adierazten du. Bestalde, diseinatzaileei lantaldearen eta Berdintasun teknikariaren feedback-a bidaltzen zaie.
- Maiatzaren 17a: LGTBI+fobiaren aurkako eguna aprobetxatuz, EGK-k bere webgunean aditzera ematen du proiektua eta ekainean Manifestua eskuragarri jarriko duela adierazten du.
- Ekainaren 6a: diseinatzaileek logoaren azken bertsioa helarazten dute formatu fisiko zein birtualean.
- Ekainaren 28a: Manifestua EGKren webgunean eskegitzen da atxikipenak bideratzeko
- Ekainaren 29a: interesa izan dezaketen espazio desberdinei berria helarazten zaie.
- Uztailaren 7a: EGKren Bilboko egoitzan Gune Anitza zigilua aurkezten da

prentsurrekoan eta, azkenik, aurreikusita zegoen Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan burutuko den proiektutik banatzen da aurkezpen hau.

Momentu honetatik aurrera talde eta elkarte desberdinetako atxikimenduak jaso dira, bost direlarik 2016an lortu diren atxikimenduak eta guztiak EGK kanpoko taldeak izanik (Pikara Magazine, Atara Zarata Antzerki Taldea, Ta Puntu Kooperatiba, AbadiñoSex Zerbitzua eta Donostiako Emakumeen Etxearen Biluzik Mundura Sexu eta Genero Aholkularitza Zerbitzua). Honetaz gain, interesa adierazi duten eragile desberdinak ere badaude (Bilboko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, EHU-UPV...). Honek guztiak baimenduko du 2017ari begira Gune Anitza Zigiluak hasiera batean zuen formari buruzko gogoetarako abagunea irekitzea Gaur8 lantaldean eta hurrengo urteari begira erronka berriak, hala nola, eragileen bilaketa aktiboaren garrantzia azpimarratzea.



Ebaluazioa

2016ko abenduan 5 izan dira jada atxikimenduaren prozesua bukatuta duten guneak, beste hainbatek beraien interesa eta curiositatea adierazi duten bitartean. Hortaz, aurten proiektuak izandako ahulezia gisa identifika dezakegu guneen bilaketa aktiborako denbora ez izatea.

Bigarrenik, hainbat eragilek burutako galdera nahiz iradokizunetatik 2017rako Zigiluaren nondik-norakoak eraldatzeko beharra dagoela ondorioztatzen da. Hartara, Manifestu orokorra mantenduz, beharrezkoa da aldaketa proposamenen birpentsatze prozesu bat ematea, baina baita Gune Anitza proiektua gehiago osatzea.

Honetarako, Gune Anitza Zigiluak gune mota desberdinetan erakartzen dituen gutxiengoan gidak osatuko dira 2017an zehar. Era honetara, gune bakoitzak bere testuingurura moldatutako gomendio eta neurri desberdinen zerrenda izango du. Honetaz gain, Gune Anitza Zigilurekiko atxikimenduaz gain, iradokizun edota kexak helarazteko eta, honen ondorioz, bitartekaritza bat burutu eta zigilua izaten jarraituko den ala ez erabakitzeke prozeduraren eraikuntza beharrezkoa dela detektatu da. Ordea, hain egitura konplexua denboraz diseinatu beharrezkoa da. Hau dela eta, Zigilua 2017an osatuko duten dokumentuen artean aurkituko da hau guztia jasotzen duen Gune Antza Zigiluaren erabilera eta jabetzari buruzko gida orokor hau.

5.6. JAIK: ELKARREKIN ETA GUZTIONTZAT

Azken urteotan gero eta handiagoa izan da aisian, bereziki gaueko aisian ezarritako arreta mugimendu feministetatik. Izan ere, testuinguru hauetan ematen diren emakumeenganako eraso desberdinak ikusaraztea eta hauen irakurketa feminista egitea ezinbestekoa zen. Gauzak horrela eta gazteri parekidearen eragile bat izateko asmoarekin, EGK-k mezu parekideen lehiaketa proiektua diseinatu zuen.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Jai giroan ematen diren berdintasun eta aniztasunaren aurkako gertakarietako errefusa erakustea eta hauen gainean kontzientziatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Elkarbizitzarako eta berdintasunerako nahia adieraztea.
- Elkarrekikotasuna sustatzea.
- Gazteetatik eta gazteriara diseinaturiko mezuak helaraztea.
- Jaiak eta aisialdi-giroa zapuzten dituzten gertakarien gaineko kritikotasuna piztu.
- Kontzientziazio kanpaina zuzena eta ez-zuzena izatea.

Garapena

Proiektu honek hasieran aurreikusitako ekintzak eta denborak eraldatu behar izan ditu hainbat arrazoiengatik. Hasteko, ezinezkoa zen apirilean lan-kargari aurre egitea, kontuan izanik 30. urteurrena ere antolatzen hasia zela lantalde teknikoa eta lankide baten baxa egoerari aurre egin behar zitzaiola. Bestalde, BeldurBarik programaren interesez gain, jo zenez, programako arduradunekin bilerak eta koordinazio dinamikak burutu ziren EGK-k burutuko duen lehiaketa BeldurBarik markoan aurkezteko. Gauzak horrela, ondokoak dira proiektu honen garapenean ekintzarik garrantzitsuenak:

- Maiatzaren 10a: BeldurBarik programaren bi arduradun nagusiekin eta Emakundeko EGK-ren kontaktuarekin bilera bat burutzen da BeldurBarik programa eta EGK-ren lehiaketaren arteko gertutasunak eta hauen sinergien aukerak ebaluatzeko.
- Maiatzaren 26a: EGK-ko Berdintasun Teknikariak BeldurBarik-ek Gazte Behatokiarekin elkarlanean ematen duen Eraso Sexisten Prebentziorako formakuntza jasotzen du.
- Maiatzaren 31a: BeldurBarik programaren teknikaria eta EGK-ko Berdintasun Teknikariaren arteko bilera ematen da lehiaketaren eta honen aurretiaz egongo den aurkezpen saioaren azken aspektuak adosteko eta koordinatzeko.

- Ekainaren 15a: egun honetan hiru asteren buruan egingo den #EGKBeldurBarik lehiaketaren aurkezpen saioa aditzera ematen da EGKren sare sozialetan eta webgunean. Halaber, BeldurBarik programaren erantzuleei helarazten zaie zabal dezaten.
- Ekainaren 16a: EGKren elkarteei emailaz bidaltzen zaie parte-hartzeko gonbidapena.
- Uztailaren 5a: lehiaketa aditzera emateko eta gai nagusia den “ligoteo sano”-az formakuntza jasotzeko aurreikusita zegoen saioa bertan behera uzten da partaidetza faltagatik.
- Irailaren 19a: #EGKBeldurBarik lehiaketaren itxiera data da eta ez da partaidetzarik jaso. Hortaz, bertan behera uzten da proiektua.

Ebaluazioa

Proiektu pilotu gisa erabilia izan den honek BeldurBarik programaren ohiko formularekiko desberdintasunean aurkitzen du bere ahuleziarik handiena. Izan ere, BeldurBarik Programa maila lokalean eta saretuan integratzen den bitartean, esperientzia honek ez du izan alderatu daitekeen sare ezta formatu lokalik. Hortaz, partaidetzan inpaktu zuzena izan duen lehen faktorea hauxe dugu.

Gainera, Berdintasun arloko hainbat proiektuekin nahiz Komunikazio arlotik bultzada berezia eskatzen zuten bestelako proiektuekin alde batera jorratu nahi izateak ezinbestean negatiboki eragin dio, denbora gehigarria eskaintzea guztiz zaila suertatuz era honetara.

Azkenik, badago ere lehiaketak izan duen gaiak eragindako zailtasuna. Izan ere, udak aurrera egin ahala argi gelditu da gazteriaren ardura nagusia ez zela matxismo testuinguru sotila baizik eta hau nabarikoak egiten direneko eraso egoeren salaketa burutzea.

Laburbilduz, zailtasun desberdinei aurre egin behar izan zaio proiektu honetan eta faktore desberdinek eragin dute BeldurBarik Programaren formatua eta EGKren hasierako ideien arteko ondorio izan den proiektu honek aurrera egiteko zailtasunak izatea eta bertan behera utzi behar izatea partaidetza faltagatik.

5.7. BERDINTASUNA... ZERTARAKO?

Proiektu honen bitartez Euskadin Berdintasuna eta gazteria erro nagusi gisa dituzten eragile nahiz banako desberdinen kezkak, beharrak eta proposamenak zeintzuk diren mahaigaineratu nahi da. Horretarako, partaidetza maila desberdinak dituzten ekintzak diseinatuak izan dira, jada urtean zehar mahaigaineratu diren gai konkrituak helduz batzuetan eta bestetan guztiz esplorazio ekintza irekiak izanik.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EAEko mugimendu feministaren sareak indartu eta belaunaldien arteko elkarlanerako gunea eraiki.

HELBURU ZEHATZAK:

- Mugimendu feminista ikusaraztea.
- Mugimendu feministako belaunaldi berriak sare feministan kokatu.
- Mugimendu feministen inguruan curiositatea piztu.
- Gazteei feminismoaren grina piztu.
- EGK mugimendu feministako belaunaldi gazteentzat aliatu bat izatea.
- Topaketatik ondorioztatutako lan-arlo eta helburu berriak identifikatzea.

Garapena

Proiektu honen ekintzen jarraipena azaltzeko alde batetik, proiektuaren ildo orokorrari dagokiona eta, bestetik, proiektu atal bakoitzari dagokiona jasoko da.

PROIEKTUAREN ANTOLAKETA OROKORRA:

Urriaren 10a: Egun honetan hasten da Diseinatzaileen lan poltsako diseinatzaile gazte batekin “Berdintasuna... Zertarako?” proiektuaren posterra eta triptikoren diseinu lana hasten da urriaren bukaera arte luzatzen dena.

Azaroaren 7a: “Berdintasuna... Zertarako?” proiektuaren albistea eskegitzen da webgunean eta honen informazioa zabaltzen da ohikoak diren kontaktuen artean (hau da, EGK-ko elkarten eta Gaur8 lantaldeko partaideen artean) eta Berdintasun ikuspegitik interesgarriak diren beste hainbat eragileren artean (<http://bit.ly/2fLLflq>).

Azkenik, ondokoa da proiektuaren ekintzen eskema:

ETA, ZUK... ZERTARAKO? (#ZUKZERTARAKO):

- NON: GASTEIZEN EHUKo campusean
- NOIZ: Azaroaren 8an. Egun osoan zehar, era ibiltarian
- ZER: Lehen ekintza honen helburua da gazteok Berdintasun ikuspegitik ditugun beharrak, erronkak eta eskaerak identifikatzea. Horretarako, era ibiltarian, EGK-ko teknikariak proposamen, esaldi eta eskaera bila ibiliko gara egunean zehar. Emakume eta gizonezkoen arteko Berdintasunean pentsatzerakoan zer esan baduzula uste duzu? Aprobetxatu biharko eguna! Gasteizen ez bazaude eta, hala ere, zure ekarpenak egin nahi badituzu,

ekintzaren nondik-norakoa jarraitzeko eta zure ekarpenak egiteko twitter bitartez egin ahal izango duzu #ZukZertarako traolarekin.

EMAKUMEEN HIRIA:

- NON: DONOSTIAN, [EGK-ko egoitzan](#) eta alde zaharrear barrena
- NOIZ: Azaroaren 21ean. Arratsaldeko 16:30ean (iraupena: bi ordu eta erdi)
- ZER: Emakumeok iraganean eta orainean hirietan daukagun espazioaz gogoeta egiteko ekintza izango da hau. EGK-ko Donostiako egoitzan (Andia Kalea, 11) harrera egin ostean Donostiako alde zaharrear zehar Tour bat burutuko da emakumeok iraganean eta honen oroimenean daukagun papera ikusteko. Ostean, hiriek egun duten diseinuaz eta honek oraingo emakume gazteen askatasunean duen inpaktuaz aurkezpentxoak eta eztabaida burutuko dira.

“BERDINTASUNA... ZERTARAKO?” TOPAKETAK:

- NON: BILBON, EGKren egoitzan ([Autonomia kalea, 44](#)).
- NOIZ: Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean. Arratsaldeko 17:30ean (iraupena: 2 ordu saio bakoitzak)
- ZER: Azken ekintza honetan bai genero (aurrekoetan bezala) baina baita adin desberdinetako taldeak sortu nahi ditugu. Bi saio hauetariko bakoitzean aurten mahaigainean egon diren bi gai desberdinez eztabaidatuko da: emakumeen aurkako indarkeria matxistak eta denbora eta erantzukizunaren banaketa desberdina.
Bi saio hauen helburuak izango dira belaunaldien arteko eztabaida medio hainbat erronka, eskaera eta aukera identifikatzea hauek ostean gizarte mailan eta, bereziki, gazteen artean aditzera emate aldera.

Azaroaren 8a: #ZukZertarako ekintzan bertan beste bi ekintzen berri emateko eta honen kartelak Gasteizko EHUKo campusean zehar ezartzeko aprobetxatzen da.

Azaroaren 10a: Donostiako EHUKo campusean kartelak ezartzen dira eta campuseko leku desberdinetan aurkitzen diren gazte taldeei ere “Emakumeen Hiria” eta “Berdintasuna... Zertarako?” proiektuaren berri ematen zaie.

Azaroaren 14a: Donostian jada egin bezala, Leioako EHUKo campusean kartelak ezartzen dira eta aurkitzen diren gazte taldeei ere eta “Berdintasuna... Zertarako?” proiektuaren berri ematen zaie, bereziki belaunaldien arteko topaketan ezarritik azentua.

#ZUKZERTARAKO EKINTZA:



Urriaren zehar: Parte-hartze teknikariarekin urriaren zehar koordinazioa burutu da, bai ekintzaren diseinua bai honen nondik-norakoak definitze aldera.

Azaroaren 8an: EHUko Gasteizko campusean barrena era ibiltarian Berdintasun arloko proposamenak luzatzera animatzen dira gazteak. Honetarako, hiru gunetara zentratuz: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatean, Gizarte Langintzako Ikastegian eta Las Nieves Gelategia eta Koldo Mitxelena Liburutegia duen eraikinean.

EMAKUMEEN HIRIA EKINTZA:

Irailaren 23a: EHUko Ikerlaria den Nerea Martin Fernandezekin harremanetan ezartzen da Berdintasun teknikaria bere doktorego tesiaren berri izan ostean, honetan eraso sexisten analisi bat burutu baita eta bere partaidetza interesgarritzat jotzen da. Tesiaren izenburua: “Análisis del delito de agresión sexual desde una perspectiva ambiental: patrones espacio-temporales, conductas de movilidad del infractor y características del escenario del crimen ubicados en espacio público urbano”.

Irailaren 30a: Nerea Martin Fernandez ikerlariarekin elkarren proiektuen aurkezpena aurrez-aurre egiteko bilera burutzen da. Martin doktorearen partaidetza konfirmatzen da “Emakumeen Hiria” proiektuan.

Urriaren 14a: Azaroaren 21aren data aukeratu eta “timing”-a adosten da. Lehenik, iraganari buruz gogoeta egiteko Tour-ak izango du denbora, ostean, EGK-ko Donostiako Egoitzan erasoan gainean Martin doktoreak eginiko lana izango delarik eztabaidarako abiapuntu.

Azaroaren 7a: Lehenago esan bezala, ekintzaren berri ematen da eta Berdintasun lan-arloaren artekarien bitartez ere berria zabaltzen da, informazioa ere EHUko Ikerketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterreko ikasleei ere helarazten zaie.

Azaroaren 21a: Azken momentuko asistentzia ezeztapenak medio, oso partaidetza baxua jasotzen da ekintzan, 8 pertsonako gutxieneko taldera iristen ez dena. Hala ere, kontuan izanda jada guztira elkartzen diren pertsonak, aurrera eramaten da ekintza.

BERDINTASUNA... ZERTARAKO? BELAUNALDIEN ARTEKO TOPAKETA:

Azaroaren 7a: Lehenago esan bezala, ekintzaren berri ematen da eta Berdintasun lan-arloaren artekarien bitartez ere berria zabaltzen da.

Azaroaren 15a: Gazteria eta Berdintasun arloetako intereseko eragile desberdinei gonbita helarazten zaie, partaidetza bultzatzeko helburuarekin.

Azaroaren 21 eta 25 artean: Partaidetza sustatzeko helburuarekin dei telefonoen bitarteko harremana ezartzen da baina ez dira konfirmazio berririk lortzen.

Azaroaren 30a: partaidetza baxua aurreikusirik, erabakitzen da ekintza saio bakar batekoa burutuko dela eta, azkenean, gutxieneko talde batekin, bi ordu eta erdiko eztabaida aurrera eramatea lortzen da aurreikusita zeuden bi gaiak landuz.

Gauzak horrela, memoria honen aurkezpen data osterako programatua dago “Berdintasuna... Zertarako?” proiektu osoaren ondorioak argitaratzea (abenduaren 19an) txosten labur baten bitartez eta honen berria jasotzen duen albistea webgunean ezarriz eta ohiko eragileei helaraziz.

Ebaluazioa

Proiektu honek ahulezia bat izan badu zalantzarik gabe hau izan da partaidetza baxua, bereziki azkeneko bi ekintzak kontuan baditugu. Honetarako, kontuan izan behar da bai testuinguru orokorrean ematen ari ziren partaidetza zailtasunak, hala nola, azaroa proiektuz eta jardunaldiz beteriko hilabete bat izatea. Hau dela eta, hurrengo urterako kontuan izateko faktore gisa izango da hau.

Hala ere, ekitzetan jasotako informazioa bere muga honen markoan baloratuz, positibotzat jo dira ondorio gisa lortu diren proposamen eta gogoetengatik. Izan ere, hasiera batean topaketen saioak bi ordutako iraupenaz aurreikusita zeuden eta, saio bakar bat izanda ere, bi ordu eta erdiko iraupena lortu zen honetan.

5.8. AURREIKUSITA EZ ZEUDEN LANKIDETZA ETA AHOLKULARITZAK

Kontuan izan behar dugu ere eta proiektu desberdinen atzerapenerako beste faktore bat izan da aurretiaz aurreikusita ez zeuden ekimenen aurrera eramatearen inpaktua. Izan ere, Berdintasun lan-arloaren zeregin orokorren artean dauden aholkularitza zerbitzuaren eskaera konkretuak jaso eta kudeatu dira urte erdi honetan.

Helburuak

Esan bezala, jarraian azalduko diren ekintza guztiak Berdintasun lan-arloaren eginkizun orokorren markoan txertatzen dira, ondokoak direnak:

- EGKren Berdintasun Plana diseinatu, garatu eta ebaluatzea..
- EGKren proiektuetan hala barne funtzionamenduan berdintasuna zeharkako gisa txertatzea
- Beste lan-arloei berdintasun arloko aholkularitza eman.
- Lan-arlotik nahiz lantaldetik diseinatutako proiektuen kudeaketa eta ebaluazioa.
- Gazte, elkarte, partaide diren entitate, gizarte eragile eta administrazioei berdintasun arloan aholkularitza eta laguntza ematea.

Garapena

Ondokoak dira marko honen barruan burutu diren ekintza desberdinak:

- PARTEHARTUZ-EN IKERKETA ETA ENKLABEEN BILAKETA:

ParteHartuz ikertzaile taldea EGKrekin kontaktuan ezarri zen orain 10 urte pasa berri zeudela EAEn abiarazi zen 4/2005 Emakume eta Gizonezkoen arteko Berdintasun Legediaren agerpenetik honen ondorioen eta efektuei buruzko ikerketa bat egiten ari zirelako.

Honetarako, ezinbestekoa zitzairen enklabe desberdinetako parte-hartzaileak izatea eta tartean gazteria ere ordezkaturia egotea. Hau dela eta, EGKrekin parte hartzen zuten edota honen partaide ziren elkarte zein talde desberdinak ikerketaren erantzuleekin kontaktuan ezartzeko eta hauen partaidetza bultzatzeko kudeaketa egin zen.

- LGTBI+ BILBOKO ELKARTE ETA KOLEKTIBOEI BURUZKO INFORMAZIOA:

Bilboko Udala maiatzaren bukaeran helbide elektronikoan kontaktuan ezartzen da EGKren Berdintasun lan-arloarekin, udaletik bultzatutako den proiektu bati begira hirian bertan dauden LGTBI+ kolektiboak buruzko informazio gehigarria eskatuz. Era honetara, ostean eginiko telefono bitarteko aholkularitzarekin batera, EGKn partaidetza aktiboan dauden elkarte desberdinei buruzko informazioa helarazi zitzaion.

- ELKARTEEN SARRERA EGK-N:

Gaur8 lantaldea behin eratua, honetan parte-hartzen zuen Bizigay elkarteak EGKn sartzeko interesa adierazi zuen eta, nahiz eta prozeduraren atal garrantzitsu bat Administrazio teknikariaren eta Parte-hartze teknikariaren eskuetan ere badagoen, garrantzizkoa izan zen Berdintasun lan-arlotik hasiera batean eginiko informatze prozedura, lantaldearen bigarren bileraren ostean (apirilaren 12an burutu zena). Azkenik, elkarte hau ekainaren 22an eginiko Ez Ohiko Batzarrean burututako bozketa positiboaren ostean sartzen da EGKn.

- ANIZTASUN SEXUALARI BURUZKO GIDA:

Bizkaiko Foru Aldundiarekin EGK-k duen lankidetzak markoan jaiotako proiektua izan da 2016ko iraila, urria eta azaroa bitartean aurrera eramana izan dena. Elkarteetako kide nahiz bestelako eragileekin aurrez-aurreko bilerak, hala nola, koordinazio bilerak zein

bulegoko orduak eskatu dituen proiektua dugu hau. Honen ondorio izango den Gisaren aurkezpena 2017ko otsailean burutzeko helburua dago.

- GASTEIZ GAZTE PLANA:

Urria eta azaroa bitartean, Gasteizko gazteri teknikariek harremanetan 2017an aurkeztuko den Gazte Planari ekarpenak egin zaizkio EGK-ko Berdintasun lan-arloak detektatutako premia eta proposamenei oihartzuna emanez.

- GAZTETALK:

Urriaren 3an eta 4an Aniztasuna gai nagusi zuen Bilboko Udalaren GazteTalk Mintegian parte hartu zuen Berdintasun Teknikariak eta EGK-ko Presidenteak bertan ere emakume eta gizonen arteko desberdintasunak aniztasun mota desberdinekin duen harremana aztertu eta honen harira proposamenak luzatzeko helburuarekin.

- EJECT: GAZTERIA ETA ENPLEGAGARRITASUNARI BURUZKO IKERKETA - MATXALEN LEGARRETA EHUKO IKERLARIAREKIN HARREMANA:

Urriaren 25ean Matxalen Legarreta EHuko ikerlaria harremanetan ezartzen da Berdintasun lan-arloarekin, Donostian burutzea espero ziren gazteen lan munduari buruzko jardunaldien harira. EHU-k Bartzelonako Unibertsitate Autonomoarekin eta Gaztela-Mantxako Unibertsitatearekin duen EJECT ikerketa proiektuaren berri jasotzen da eta aurrerantzean NPLEGU ETA Etxebizitza arloarekin izan daitekeen harremanaz hitz egiten da.

- USVREACT PROIEKTUA ETA EGKREKIN HARREMANA:

“Berdintasuna... Zertarako?” proiektuaren harira EHuko ikerlari talde bat EGKrekin harremanetan ezartzen da USVReact proiektuaren berri emateko (<http://bit.ly/2ghTVek>). Honi buruz eta harreman aukerez hitz egiteko bilera data adosten da abenduaren 14an (honen ondorioak etorkizun bateko memorian jasoko direlarik).

Ebaluazioa

Lehen urte honetako ebaluazioa eginik, argi gelditzen da Berdintasun lan-arloaren beharra EGKtik haratago dauden eragileengan ere nolabait aurki zitekeela, behin hau sortua honekin lankidetzan aritzeko marko desberdinak eraiki baitira.

Bestalde, azpimarratu beharra dago honek guztiak ezinbestean eragin duela urte honetarako aurreikusita zeuden proiektuen jarraipen zein antolaketara, hala nola, 2017ra beira eraikiko den Plangintzaren antolaketara.

Era honetara, 2017an lehen urte honetako ondorio izan diren hainbat erronka eta lan-ildo desberdinak jorratu ahal izango dira, beti ere, ardatz nagusi izanik emakume eta gizonetako gazteen arteko berdintasuna sustatzeko beharrak eta proposamenak detektatzea eta hauek aditzera ematea.

6. KOMUNIKAZIOA

6.1. RECACCIONA #EGK30AUKERA BIDEO LEHIAKETA



RECacciona bideo lehiaketa laugarren aldiz antolatu da 2016an. Aurreko hiruetan gai zehatza izan zuen eta oraingo honetan aldaketatxo bat sartu da. EGKren 30. urteurrena izanda, gaia *#EGK30aukera, gazteok zenbat?* izan da. Asmoa etorkizuneko erronkak, asmoak, etab. identifikatzea zen gerora hauek kontuan izan, lan-arloetan landu eta, beharrezkoa ikusiz gero, 2017ko plangintzan txertatzeko..

Lehiaketaren gaia honako hau izan da: *#EGK30aukera, gazteok zenbat?* eta gazteei galdera hauen inguruan pentsatzea gonbidatu zaie:

- Zure ikuspuntutik, egokia al da gaur egun dugun hezkuntza sistema?
- Zein da gaur egungo gazteen egoera?
- Zer arazori egin behar diegu aurre?
- Nola aldatu da gazteen egoera 30 urte hauetan?
- Zeintzuk dira lehen ematen ziren erronkak eta gaur egun sortzen direnak?

- Lan munduaren diseinuan, eraikuntzan eta kudeaketan genero ikuspegia txertatzearen beharra argia iruditzen zaizu?
- Pertsona gazteok lan kondizio txarrenak izaten jarraitzen dugula uste duzu?
- Prekarietate egoeraren bat bizi izan duzu zure lan esperientzian?
- Baliabide ekonomiko gutxi duten gazteek ikasteko aukera bermatua dute indarrean dagoen beka sistemarekin?
- Gazteon parte-hartzea bermatu behar dela iruditzen zaizu?
- ... eta honen inguruan bururatzen zaizkizun bestelako ideiak.

Parte hartzaileei dagokionez, iaz egin bezala 16 urtetik aurrerako EAEko gazteei (bertan jaioetakoak edo bertan bizi direnak) eman zaie aukera lanak aurkezteko. Gainerako oinarriak aurreko urteen antzekoak izan dira: bi pertsona edo gehiagok osatutako taldeetan antolatu behar ziren gazteak, bideoek gehienez lau minutuko iraupena izan behar zuten, eta euskarak presentzia izan behar zuen lan guztietan.

Sariak hauexek izan dira:

- **Lehenengo saria: 1.000 euro**, hezkuntza mailan dituzun ideia eta planak aurrera eramateko, ala zure parte-hartze proiektuetan gastatzeko*.
- **Bigarren saria: 400 euro**, hezkuntza mailan dituzun ideia eta planak aurrera eramateko, ala zure parte-hartze proiektuetan gastatzeko*.
- **Ikusleentzat saria: 50 euro** bidezko merkataritzako saltoki batean gastatzeko.

***Zertan erabili zitezkeen lehenengo eta bigarren sariak?**

- **Parte-hartzearekin** lotura duen **formazioa edo ikastaro bat egiteko**.
- Parte-hartze mailan dituzun **idea eta planak** aurrera eramatek..
- Parte-hartzearekin zerikusia duen **proiekturen bat gauzatzeko** (bideo bat grabatu, argazki-erakusketa bat egin, koreografia bat muntatu, argitalpen bat editatu, jardunaldi batzuk antolatu...).
- Gazteekin lotura duen ekimen bat edo elkartegintza esperientzia bat **ezagutzeko bidaiatzea**.
- Elkarre edo gizarte mugimendu batean **ekintzak** antolatzeke.
- **Brigada** batean parte hartzeko, Hegoaldeko **lankidetza** proiektu batean parte-hartzeko, bidaia solidario bat ala elkartrukeak egiteko...
- Elkarre bati, gizarte proiektu bati edo Gobernu Kanpoko Erakunderen bati dirua **emateko** edo kolektibo batentzat **materiala** erosteko.

- Bururatu ez zaizkigun ekimenetarako (zure ideia izen emate orrian aipatu).

www.egk.eus atarian irakur daitezkeen oinarrietan jasotzen dira bestelako zehaztapen guztiak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteok gaur egun dugun egoerari buruzko eztabaida sustatzeko abiatu du lehiaketa hau Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, baita gazteek gai honen inguruan dituzten ideia eta ikuspuntu ezberdinak jaso eta zabaltzeko ere.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hezkuntza arloan gazte eta gazte-elkarte ezberdinek dituzten ikuspuntuak eta proposamen berriak jaso.
- Gazteon artean hezkuntza politikei buruzko hausnarketa eragin.
- EGK-k Gazteria eta hezkuntza arloan egiten duen lana ezagutarazi.

Garapena

- Izen emateak eta bideoen bidalketa: ekainaren 4a arte (epea astebete gehiago luzatu genuen). Informazio hau norbanako gazteei zein EGK osatzen duten elkarte edo bestelako gazte mugimenduei helarazi zitzaaien sare sozial, webgune eta Piztu buletinaren bitartez.
- Bozketa eta epaimahaia: ekainaren 21a arte.
- Sari banaketa: bi elkarteekin batzeko izandako arazoengatik saritu bakoitzari saria bere lurraldean eman zaio: lehen saria EAPNi Bilboko egoitzan eta bigarren saria UBA Gazteak elkarteari Donostiako egoitzan.



Ebaluazioa

- Inoiz baino parte-hartze baxuagoa eman zen. Soilik bi bideo jaso ziren. Iaz izena emandako guztiei bidali zaie emaila eta aurreko urteetan bezala zabaldu da. Agian planteatutako gaiarekin ez da asmatu edo formatuak eman du eman beharrekoa. 2017ari begira aztertu beharko da.
- Guztira, lehiaketan sartu ziren bideoek **323 ikustaldi** izan dituzte.
- Lehiaketa egin arte **elkar ezagutzen ez zuten taldeek** elkar ezagutu dute.
- Lehiaketak **bideoak hauek guztiak eskuragarri** ipini ditu sarean, errealitate hori ikusarazteko beste tresna bat gizartearen esku jarritz.

6.2. PIZTU! HAMABOSTEROKO BULETIN ELEKTRONIKOA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) komunikazioa eraginkorra izateko baliabide oso ona da Piztu! buletin digitala. 2.137 harpidedunei bidaltzen zaie buletin bakoitza (aurten gora egin duen zenbakia), besteak beste: gizarte mugimenduak, gazte-bulegoak, gazteria arloko teknikari eta politikariak eta harpidetza egin duten norbanakoak.

Bi-hiru astean behin jasotzen dute hartzaileek, honako edukiekin:

- Euskadiko Gazteriaren kontseiluaren azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarten jardueren berri.
- Bestelako gazte eragileen jardueren berri.
- Komunikabide ezberdinek gazteei buruz eta gazte elkartegintzari buruz argitaratzen dituzten albisteak.
-

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren, gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak ikusaraztea eta balioan jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarten eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikusarazi eta balioan jartzea.

- Euskara sustatzea (%60-%70euskaraz).

Garapena

Bi-hiru astean behin osatu eta bidaltzen da Piztu buletina, normalean asteazken edo ostegunean. Etenaldiak egoten dira opor garaietan (Gabonak, Aste Santua eta udan), baina epea hauetan beti aurreikuspenarekin jokatzeko da eta egun libreak hartu baino lehen azken bidalketa bat programatzen da.

Ebaluazioa

2015ean ikusi zen Piztu! zaharkitua geratu zela. Hori dela-eta, Irudigital enpresarekin hitz egin zen eta getResponse erabiliko dugu hemendik aurrera gazteei buletin digitala helarazteko. Denbora gutxiegi pasa da ebaluatu ahal izateko. Hala ere, erreminta berri honen bitartez datu gehiago jakin ahal izango ditugu: nork irekitzen duen, inpaktuen %koa, etab.

Aurrez harpidetuak zeudenak mantendu dira (haiek baxa eman ez badute, noski) eta Piztu! indartzeko asmoz webgunean garrantzia eman diogu. Atal propioa dauka webguneko menu nagusian eta lehen orrialdean ere jarraian ikus daitekeen bezala:



Bigarrena agenda azpian dago hasierako orrian.



6.3. WEBGUNEAK: WWW.EGK.EUS



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua
—
Consejo de
la Juventud
de Euskadi



Haziera	Nor gara	Lan-arloak	Proiektuak	Argitalpenak	Albisteak	Agenda	Non Gauden
---------	----------	------------	------------	--------------	-----------	--------	------------





Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) gazteriarekin lotura duten gaiak lantzen dituzten 60 bat elkarteren topagunea da. Gure helburuak dira, besteak beste, gazteen eta gazte elkarten parte-hartzea sustatzea, gazteria politiken garrantzia aldarikatzea, erakundeek gure ikuspuntuak kontutan izatea eta administrazio hauen eta gazte elkarten arteko zubi lana egitea. Laburbilduz, gazteen eskubideak defendatzea eta gure ahotsa entzuna izatea bilatzen dugu!

Helburu hau lortzeko, hainbat espazio ditugu gazte osatutako lantaldeak bezalakoak eta jardunaldiak eta ekintzak ere antolatzen ditugu gazteon beharrik zirenak diren identifikatzeko. Iku hauetan elkarte batean ez dauden gazteek ere parte har dezakete baita modu indibidualen hitza izan nahi dutenak. Gainera, gazteon iritzia entzuna izan nahi den edozein forora joaten gara eta gure presentzia handiagoa da, egunetik egunera, komunikabide, internet eta sare sozialetan.

Gure beste eginkizun ere badira aholkularitza ematea, gazteriarekin lotura duten jardueren zabalpena edo gela eta materialen lagapena.



ALBISTE NABARMENAK

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko kanal nagusia webgunea da (www.egk.eus) eta horregatik 2016an eraberritze prozesua martxan jarri dugu. 2014ko abenduaren 3tik beste hainbat webgunek bezala .eus domeinuarekin bat egin genuen eta iaz diseinu eta programazio berria aurkeztu dugu webgune erabilgarriagoa, praktikoagoa eta erakargarriagoa izateko asmoz. Horretarako, hitzarmenean adostua dagoen bezala

2016an irekitako diseinatzaile gazteen lan-poltsatik hautatu genituen Irudigital eta Peopleing enpresak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

www.egk.eus atarian EGKren jardueraren informazio gaurkotua argitaratzen da. Hau da, bertan daude antolatutako egitasmo eta proiektuen deialdiak, lan-arloen azken berriak, lantaldeen deialdiak eta antolatutako bilkura eta topaketen ondorio bezala sortzen diren txostenak. Aurrez esan bezala, ekintza EGK-k antolatzen duenean edo EAEko beste eragileekin batera egitean denean.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko albisteen berri ematea (jarduerak, argitalpenak, manifestuak, iritzi-artikuluak...).
- EGK-ko elkarteen eta EGK-koak ez diren elkarteen jardueren berri ematea agenda atalean.
- EAEko gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak jasotzea (Agenda atalean).
- Elkarteen direktorio gaurkotua eskaintzea.

Garapena

Helburu hauek bete ahal izateko, hau da egunerokotasunean egiten den lana:

- Webgunea (www.egk.eus) edukiz hornitzea: EGK-k antolatutako edo bat egiten duen ekintzen berri eman eta EGK-k nahiz bestelako eragileek antolatutako ekintzen berri agenda bidez eman.
- Webgunearen mantentze egokia bermatzea: gazteek egindako iruzkinak erantzun eta bideratu, kontaktu formulario bidez heldutako eskaerak kudeatu, spam iruzkinen ezabaketa, etab.



Ebaluazioa

Google Analytics bitartez egiten ditu Komunikazio Arloak neurketak. Azken urtean, bisita kopurua pixka bat jaitsi da, baina nahiko berdintsu jarraitu du.

ADINAK: (ia %52a 18-34 urte bitartekoa).

Edad

63,32 % del total de sesiones



1. ■ 25-34

2. ■ 35-44

3. ■ 45-54


4. ■ 18-24

5. ■ 55-64

6. ■ 65+

	1.614	1.614
% del total: 63,32 % (2.549)	% del total: 63,32 % (2.549)	
	645	39,96 %
	419	25,96 %
	230	14,25 %
	182	11,28 %
	102	6,32 %
	36	2,23 %

GENEROA:



BISITEN JATORRI DEMOGRAFIKOA Kopuruaren arabera ordenan, lehenengo hamarrak honakoak dira (8 EAEkoak):

- Bilbao
- Donostia
- Vitoria-Gasteiz
- Madril
- Errenteria
- Bartzelona
- Las Arenas
- Durango
- Irun

6.4. SARE SOZIALAK



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak sare sozialetan dituen profilak ia egunero eguneratzen dira. Orain asteburuetan ere. Batetik, Facebook-ek jarduerak programatuak uzteko aukera ematen duelako; eta, bestetik, Hootsuite erabiltzen hasi garelako. Honen bitartez Twitter, Google+ eta Linkedinen jarduerak programatuta uzten ditugu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren jardueren informazio gaurkotua argitaratzea, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko funtzioekin lotutako edukiak elkarbanatzea eta Gipuzkoan egiten diren jardueren zabalpena.

HELBURU ZEHATZAK:

- www.egk.eus atariko **trafikoa** handitzea.
- EGK-ko **ekimen zehatzak** gauzatzea (adibidez: RECacciona bideo lehiaketa edo Twitter lehiaketa).
- Beste elkarte eta gazte-eragileen jardueren berri **jasotzea**.
- Beste elkarte eta gazte-eragileen jardueren berri **ematea**.
- EGKren jarraitzaileekin **harremana** sendotzea.
- EGKren **marka** indartzea.
- Gipuzkoako gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen albisteak elkarbanatzea.

Garapena

la egunero gaurkotzen ditu Komunikazio Arloak sare sozialetan kudeatzen dituen aipatutako profilak, batez ere [Twitter](#), [Facebook](#), LinkedIn, Google+ eta Instagram. [Youtube](#)ren kudeaketaren aldizkakotasuna, ordea, luzeagoa da. Ekintza berezi bat dugunean edo kanpaina konkreturen baten kasuan bideo bat egitean igotzen ditugu bideoak.

Ebaluazioa


2016eko abenduaren 21eko datuak:

- **Facebook**: Une honetan 3821 jarraitzaile ditugu. 2015eko abenduaren 11ean 3.635 genituen. Hau da, 186 jarraitzaile gehiago.
- **Youtube**: Esfortzu handia eskatzen duen sare soziala da, ziurrenik 2017ra begira bultzadatxo bat behar duena. 2016an 8 bideo besterik ez dira igo, guztira 1229 aldiz ikusiak.
- **Instagram**: 183 jarraitzaile ditugu, 2015ean baino 104 gehiago. Iazko memorian aipatu zen bezala, komunikazioa berritzeko prozesua amaitu eta esfortzu berezia egin da sare sozial hau bultzatzeko. Gazteek egun asko erabiltzen dute eta, era honetan, oihartzun handiagoa lortzea espero da. Egindako ekitaldi ororen argazki pare bat igotzen dira eta unean-uneko jarraipena egiten saiatzen gara. Era berean, bideo laburrak igotzen ditugu. 2017an bide beretik jarraitzea aurreikusten da.
- **Twitter**: 2701 jarraitzaile ditugu une honetan. Unean uneko jarraipena egin da ekitaldi garrantzitsuenekin eta prentsurrekoetan ideia garrantzitsuenak zabaldu dira. Era berean, hainbat hedabide edo blogetan azaldutako albisteak zabaldu ditugu, baita jarraitzaileen interakzioa zabaltzeko hainbat saiakera: Twitter lehiaketa, inkesta puntualak uneko gaiei buruz, etab. Ondorioz, esan bezala, iaz baino 261 jarraitzaile gehiago ditugu. (2014an baino 438 gehiago).

Azken urteetan geneukan susmoa nolabait konfirmatzen hasi da. Poliki-poliki baina modu konstantean EGKren sare sozialak indar gehiago hartu dute. Batetik, trantsizio urtearen ostean gehiago erabili direlako; eta, bestetik, mezuarekin batzuetan asmatu dugulako. Aipamen berezia merezi du kanpaina puntualek egiteak izan duten oihartzuna: RECacciona bideo lehiaketa, twitter lehiaketa...

2016an zehar saiakera egin da egindako esfortzua neurtzen. Horretarako hainbat erreminta erabili dira. Jarraian daude zehaztuta:

- **Facebook:** Sare sozialeko orrialdeak berak ematen duen aukera probestuz, Estatistikak, hilabeteroko jarraipena egin zaie argitalpenen irismenari eta hauek sortu duten erreakzio eta elkarbanatzei.



- **Twitter:** laz apustua egin zen euskara bultzatzeko sare sozial honen bitartez. Hori neurtu ahal izateko UMAPeK egiten duen ranking-az baliatu gara. Poliki-poliki ranking horretan gorantz joan da EGK. Azken datuen arabera 8.939 erabiltzaile aktibo daude (2016ko azaroa) eta irudian ikusten den bezala EGK 256 postuan da (2016ko abenduaren 5a %69,85eko erabilerarekin). 207ari begira Twitterren ematen dituen aukerak baliatzen saiatuko da Komunikazio lan-arloa, esaterako GIFak edo Periscope. Lehenaren bitartez gertukotasun kutsu bat emango zaie mezuei, EGK-k batzuetan duen instituzio itxura gutxitzeko eta umorea eta

gaztetasuna erabiltzeko. Bigarrenaren bitartez, unean baliagarria bada, ekimen edo antzekoen unean uneko emankizuna egingo da.



Gazteria Kontseilua @GazteKontseilua

Gazteak, parte-hartzea, eraldaketa / Jóvenes, participación, transformación social. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua gara. Consejo de la Juventud de Euskadi.

Postua: 256 | Rank: 69,85

Ranking Eboluzioa



- **Instagram:** Aipatu den bezala esfortzu berezia egin da 2016an sare sozial honetan komunikazio lan-arlotik bultzada emateko asmoz. Zenbakiak argi utzi dute merezi izan duela, nahiz eta oraindik gainerako sare sozialetatik oso urrun egon. Horregatik, 2017ari begira lan-ildo berdina mantenduko da. Saiatuko gara elkarte eta eragileen zerrenda egiten, hauekin interakzio maila igotzeko eta, era berean, gazteek erabiltzen dituzten aplikazio osagarriak erabiltzen. Boomerang esaterako.

Linkedin eta Google+ sareetan esfortzua egin da baina ez dute emaitza handirik ematen. Hala ere, 2017an bide beretik jarraituko da. Webgunearen posizionamenduan laguntzen dute eta esfortzu bat bada ere merezi duelakoan gaude.

6.5. KOMUNIKAZIO KANPAINAK

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak jarduera ugari egiten ditu urtean zehar eta komunikazio arloaren lana hauei zabalpena ematea da, arlo bakoitzeko teknikariarekin batera (berdintasuna, parte-hartzea, enplegua eta etxebizitza, hezkuntza, bakea eta bizikidetzatza eta presidentzia).

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k, bakarrik edo beste administrazio edo elkarterekin batera, antolatzen dituen proiektuak gizarteratzea eta gazte erakundeen artean komunikazioa, harremana eta trukaketa sustatzea.

Hau guztia kudeatzeko, lan ezberdinak ematen dira:

- Prentsaurrekoak antolatu.
- Prentsa-oharrak idatzi.
- Iritzi-artikuluak txertatu.
- Deialdiak egunkarietako agendan sartzea kudeatu.
- Elkarriketak lotu.
- Kazetarien eskaerak/proposamenak kudeatu.

Garapena

Plangintzarekin lotuta, hauek dira urtean zehar egin diren eta antolatzeko bidean dauden komunikazio kanpaina nagusienak:

1. BAKEHIZKETAK:

2015eko urrian Arrasaten egindako topaketa biltzen zuen dokumentala aurkeztu zen otsailean Bilbon. Bertan izan ziren hainbat gazte eta eragile sozial, dokumentalean parte hartu zutenak eta beste hainbeste kazetari, biktima, biktimario, historialari, kargu publiko, kultur eragile, etab.

2. EMAKUME GAZTEAK ETA LAN-MUNDUA HIRUBURUAK:

Gasteizko El Pilar Gizarte Etxean burututako [ekimena](#) izan zen Emakume gazteak eta lan-mundua. Gazteak, politikariak eta teknikariak batu genituen gaia landu, arazoak identifikatu eta proposamenak finkatzeko. Ondorio nagusia lan-munduan genero ikuspegia txertatzearen beharra izan zen.

3. AGERRALDIA EUSKO LEGEBILTZARREAN:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua urtero agertzen da legebiltzarkideen aurrean. Aurten, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordean egindako agerraldian, [mezu nagusia](#) gazteriaren lidergo soziala bermatzea izan da. Komunikazio lan-arloaren zeregina presidentziari mezua prestatzen laguntzea eta bertan egindako agerraldiaren mezua hedabideetan, webgunean eta sare sozialetan zabaltzea izan da. Besteak beste, ETBn oihartzuna izan zuen agerraldiak.

4. GU GAZTEOK TXOSTENA:

Hizkuntza Politikarako sailburuorde, Patxi Baztarrika, eta Euskararen Aholku Batzordeko (EAB) Gazteriaren Batzorde-atalaren zuzendariarekin, Jone Miren Hernandez, batera aurkeztutako [txostena](#). Komunikazio lan-arloaren zeregina presidentziari mezua prestatzen laguntzea eta bertan egindako agerraldiaren mezua hedabideetan, webgunean eta sare sozialetan zabaltzea izan da

5. GUNE ANITZAREN AURKEZPENA

Aniztasunari bermea adierazten dion zigilua da. Bilbon aurkeztu genuen uztailaren 7an. Berdintasun lan-arloko Gaur8 lantaldeak garatutako manifestura bat eginda, EAEko gune fisiko zein birtualek aniztasunaren aldeko konpromiso adierazten zuten. Prentsaurrekoa prestatu, prentsa-oharra idatzi eta mezua sare sozial eta webgune eta zabaltzea izan zen komunikazio arduradunaren lana.

6.- HAUTESKUNDEEN #GAZTEZTABAIDA:

Aurten ere UPV/EHUko Leioako campusean antolatu genuen #GaztEztabaida EAEko hauteskundeei begira, gazte politikei buruzko eztabaida garrantzitsuena eta euskal alderdietako hautagai eta lider nagusiekin. 100 gazte baino gehiago hurbildu ziren Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko auditoriora eta ekitaldia streaming bidez zuzenean jarraitu zen, baita sare sozialetan ere #GaztEztabaida traolarekin (goizean zehar euskaraz idatzitako txioetan trending topic zerrenda sartu zena). Gainera, gero bideoa ere Youtubera igo zen.

Sei alderdiek parte hartu zuten: EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE, PP, Podemos eta Ciudadanos. Eztabaidak bi zati izan zituen: hasieran lider bakoitzak bere alderdiaren ideiak eta proposamenak zabaltzeko 10-15 minutu izan ditu eta, bigarrenean, bertan zegoen publikoaren eta internet eta whatsapp bidez jaso diren galderak egin dira.

7.- IBILBIDE MOREAK TXOSTENAREN AURKEZPENA

Aurrez aipatutako Emakume gazteak eta lan-mundua Hiruburuaren ondorio da txostena. Berdintasun eta enplegu eta etxebizitza lan-arloek elkarlanean egindakoa da. Gasteizen aurkeztu zen prentsaurrekoan eta oihartzun handia izan zuen, ETB2 eta Hamaika Telebistan elkarriketa bana esaterako. Komunikazio teknikariak agerraldia prestatzen lagundu die teknikari eta presidentari, prentsa-oharra idatzi, elkarriketak kudeatu eta mezua zabaldu webgune eta sare sozial bidez.

8. GAZTE OLINPIADAK:

Kirola eta parte hartzea batzen dituen [ekimena](#). Aurten Bilbon egin zen jardunaldia kirol egokituak gazteoi ezagutarazteko eta hainbat kolektibok kirola egiteko dituzten zailtasunak mahai gainean jartzeko. Gazte ugari batu genituen beste urtebetez eta emaitza oso positibo bezala baloratu zen..

9.- #IZANZUALDAKETA KANPAINAREN AURKEZPENA

Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean sortutako kanpaina da, lurraldeko gazteok boluntario bezala egindako lana aitortu eta baloreen jartzeko. Era berean, etorkizunera gazte gehiago boluntario izatera animatzea du helburutzat. 2016an Bizkaiarekin soilik egin da, baina datozen urteetan EGKtik hainbat instituziorekin horrelako ekintzak burutzea da asmoa, indarrak batuz eta hedapen maila handiagoa izango delakoan.

10. KOMUNIKAZIO ARLOAREN BESTE EKINTZAK:

Gainera, ezin dira ahaztu, hedabideetan presentzia izan duten beste hainbat ekimen:

- 2016ko udaberrian Gasteizen egindako Hiruburu ekimenen ondorioak zabaldu.
- EGKren Batzar Orokorra, urtean behin burutzen den bilera nagusia, Gasteizko Pilar Gizarte Etxean egin zena.
- Lan Osasunaren inguruko ateratako manifestuaren elkarriketak.
- Astialdi Foroan dauden elkarteek eta beste entitateek antolatzen dituzten udako ekintzen zabalpena, baita kurtso hasieran abian jartzen diren ikastaroena ere (begiralea, zuzendaria eta animatzaile soziokulturala).
- RECacciona bideo lehiaketa eta sari banaketa
- EGKren 30. urteurrena
- EGKren Ezohiko Batzarra

- Uda osoan Indarkeria Matxista eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloa aktibatu den bakoitzean albistea webgunean, sare sozialetan zabaltzeko, prentsa-oharra eta ondorioz sortutako elkarrizketak kudeatu
- Memoriaren Egunaren harira testu laburra publikatu sare sozialetan
- Giza Eskubideen Egunaren harira testu laburra publikatu sare sozialetan.
- #EGK2016 Twitter lehiaketa.

Ebaluazioa

EGK-k komunikabideetan dituen agerpen guztien jarraipena egiten du. 2015ean zehar komunikabideetan izan egindako agerpen guztiak ikusi nahi izanez gero, esteka honetan bilduta daude:

[Agerraldiekin Excel dokumentua](#)

Bukatzeko, esan behar da aurten medioetan inoiz baino gehiago atera da EGK, iazko martxa hautsiz: kazetariak EGKren ekintza zehatzen berri ematen dute eta, noizbehinka, EGK-ko presidentea, teknikari edo elkarteei egiten dizkiete elkarrizketak gazteen egoera orokorraren inguruan. Besteak beste, EGK-k bere mezua zabaltzeko du Gipuzkoako lurraldean irakurri, entzun eta ikus daitekeen medio hauetan: ETB, Televisión Española, Hamaika Telebista, Cadena Ser, Onda Vasca, Onda Cero, Radio Nacional de España, Info 7, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Antxeta Irratia, El Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, Gara, Berria, El País, El Mundo, Gipuzkoako Hitza, Gaztezulo...

Azpimarragarria da ere, hainbat mediotan lortu den maiztasuna: kurtso hasieran hilabeteetan behin ostegunetan Euskadi Irratian, hilabetero Gaztezulo aldizkarian EGK-ko elkarte batean iritzi artikulua eta irailetik aurrera Onda Vascan astelehenero bi astetik behin. EGKren ikuspuntutik 2015a urte garrantzitsua izan da EGKren mezua zabaltzen eta gazteen egoera ikusarazten jarraitzeko.

6.6. BARNE KOMUNIKAZIO KUDEAKETA ETA BESTE BATZUK

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren baitan komunikazioa errazteko ardura du Komunikazio Arloak, bai teknikarien artean, bai teknikarien eta Batzorde Iraunkorraren artean, bai eta Batzarra osatzen duten elkarteekin ere. EGKren barne-komunikazioak EGKren funtzionamendua eta eraginkortasuna bera baldintzatzen du-eta.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

EGKren baitako barne-komunikazioa hobetu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko arlo teknikoen arteko komunikazioa erraztu.
- EGK-ko lantalde teknikoa eta Batzorde Iraunkorraren arteko komunikazioa indartu.
- EGK-ko Batzarra osatzen duten elkarteekin barne-komunikazioa hobetu.
- EGK-ko lantalde teknikoari eta Batzorde Iraunkorrari komunikazio-laguntza eman.

Garapena

Urte osoan zehar hainbat lan egin behar ditu komunikazio arloak EGKren barne komunikazioa ahalik eta emaitza onenak uzteko:

- EGKren lanarekin zerikusia duten gaurkotasuneko albisteak bildu eta langileen artean banatu. Egunero EAE, Euskal Herriko eta Espainia mailako 12-15 egunkari eta aldizkari begiratzen ditugu eta, zerbait interesgarria aurkitzean, teknikari bakoitzari edo guztiei bidaltzen zaie.
- EGK-k komunikabideetan dituen agerpenak teknikariei bidali. Kanpaina bakoitza egiten denean, emaitzen berri ematen zaie.
- Batzorde Iraunkorrak eta Batzarreko elkarteek EGKren jardunaren berri jasotzen dutela bermatu, EGKren tresnen bitartez (buletin digitalak, e-maila...). Administratiboarekin batera egiten den lana da hau.
- Teknikariei (eta Batzorde Iraunkorrari hala eskatzen badu) komunikazio laguntza eman (zuzenketak, aholkularitza, estilo-ildoak...).

Ebaluazioa

Teknikariekin eta Batzorde Iraunkorrekin komunikazio loturekin (Iker Montes eta Gorka Mostajo) ekintza honen jarraipena egiten da. Komunikazioa perfektua ez bada ere, guztien

artean koordinazio nahiko ona lortzen da.

Poliki-poliki emaitzak ematen doa aipatutakoa. 2016ko udan Berdintasun lan-arloak Indarkeria Matxista eta Indarkeria LGTBI+fobikoa aurka martxan jarritako protokoloak dira adibide argiena. Ohartu garen oro aktibatu dugu. Jarraipen berbera egiten saiatu da EGK eragiten dioten gai guztiekin.

7. PRESIDENTZIA

7.1. BATZORDE IRAUNKORRA

Batzorde Iraunkorra EGKren erabaki-organoa da. EGK-ko eskubide osoko kide diren elkartetako 11 ordezkari osatzen dute, hurrengo moduan banatuta: presidentea, 2 presidenteorde, diruzaina, idazkaria eta 6 batzordekide. Batzar Orokorra urtero ospatu arren, Batzorde Iraunkorraren eraketa 2 urtetik behin erabakitzen da. Bere ardura da EGKren gaineko erabakiak hartzea, lan-ildoak ezartzea eta EGKren irudi publikoa landu eta aurrera eramatea.

2015ean, legeak ezartzen duen moduan, Batzorde Iraunkor berria osatu da. Batzorde Iraunkorreko kide berriek EGKren gainean daukaten ezagutzan sakondu beharko dute, Batzarrean onartzen den plangintza aurrera ateratzeko ahalegina egin eta urtean zehar, dagokion erabaki berriak hartu.

Bestalde, Presidenteak zubi lana egingo du Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean. Batzorde Iraunkorraren bileretara teknikariak azalduko dira txandaka. Hartara, EGKren lana modu zuzenagoan ezagutzera emango da eta erabakiak hartzeko era erraztuko da.

Azkenik, Presidentziaz Batzorde Iraunkorra gai guztietan jakinaren gainean mantentzeko lana egingo du baita bileretatik at ere, telefonoz eta e-postaz nagusiki.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren gaineko erabaki nagusiak bideratu.

